–*Gaiztoen biotzac zauritzen ditu Conciencia, edo barreneco aarrac*. (553-534).

–*Faliscoco Maisuaren Billauqueria*. (554-555). Honen amaieran lexiko-ohar labur batzuk (*cimelduta leguez egozan, lora-aro, coroiac, aclaren leian*).

⁴ Msek 541 zenbakia birritan idatzi dau, eta 542 ahaztu.

Bizkaieraz: *En el dialecto vizcaíno*.

–*Gaizto-dongueen biotzac zaurituten ditu Conciencia edo barruco aarrac*. (557-558).

–*Faliscoco Maisubaren billauquerija*. (558-559).

4. TESTUEN KONPARAKETA HIZKERAREN ALDETIK

4.1. Atalen ordena

H kodizeak *T* edizinoko testu-atalen ordena bera jagon dau. *P*-ko ordena, ostera, ez dator bat *H* eta *T*-k dakarrenagaz. Bizkaierazkoak Catilinarene jardunaren ostetxoan dakaz Germanicorena eta Scipionena, baina Cicero-ren Catilinarene kontrako jardun bien aurretik. Gipuzkerazko bietan, ostera, Cicero-renen ondoren datoz dalako jardun biok.

4.2. Sintaxia eta testuen joskera

–Pasarte batzuetan *P* eta *T* idatzaldiak alkarregandik hurrago dagoz *H*-renetik baino, nahiz euskalki diferentez idatzita egon.

Lexiko mailan ezagun da hurkotasun hori hitz batzuetan:

Abade nagusijac (P), *Apaiz Nagusiac* (T) # *Guraso Nagusiac* (H);

largaco deuntsagu baquian (P), *largaco diogu paquean* (T) # *largaco diogu viciric* (H);

Izenburutzat darabilen IS honetan be ezagun da: *Catilinarene jardun erreguzcua bere Soldadubai* (P), *Catilinarene Izqueta erreguzcoa bere Soldaduai* (T) # *Catilinarene Izqueta eder bere Soldaduai zucendua* (H).

–Gitxi batzuetan *H* eta *T* dagoz alkarren hurrago, eta *P* urrunago. Izan daiteke IS mailan edo perpaus mailan. Halan, Germanicoren lehen lerroek testu bera dabe *H* eta *T*-n. Bardin:

Noraño bada eldu da (H 45, T 16) # *¿Noraño dua bada* (P 141).

Solda(d)u aldra machinatuac (H 46, T 16) # *Soldau aldra nagui ta machinatu jaco-zanac* (P 142).

–Baina maiztasunez gehiagotan, euskalki diferenteetan idatzita egon arren, *H* eta *P*-ko paragrafoak datoz batera edo bateratsu, eta *T*-koa da urruntzen dana. Halan:

ceñen videz, guizon benetacoac ciranac, beren etsaiei baño gastigu latzgarriagoac ematen cizten erri-caltegarriac ciranai (H 43), guizon benetacuac cirianac euren arerijuai baño castigu latzaguac emoteutsezanan erri-caltegarrijac cirianai (P 147) # guizon sendoac etsai aguiriac baño gastigu latzgarriagoaquin menderatzen cituztenac erritar caltegarriac (T 14)

nere odola issuriric ase albacindizque (H 45), neure odolaren erijuaz ase albacendiz (P 141) # nere odolean ase albalidi zuen gorroto muga gabea (T 16)

aitatu zuen zoli zoli ice au (H 45), aitatu eutseen zoli zoli icen au (P 142)) # aitatu zuen zoli itz au (T 16)

icusi ecin nautenen escuetan (H 46), icusi gura eznaheen en escubetan (P 142) # gorroto didaten etsayetan (T 17)

ta bere edertasunac siniserazo dit (H 47), ta bere edertasunac sinistu eraguin deust (P 144) # ta bere edertasunac siniserazo dit ala dala (T 18).

Zure emazte-gai au egon da nere echean Aita batenean bezala (H 48), Zure Emazte guei au egon da neure echian Aita batenian leguez (P 144) # Zure emazte gai au egon da nere echean Aita batenean bezain garbi ta calte gabe (T 19)

ucatzen zuela izan zala inoiz iñor doatsuagoric (H 53), ucatuten ebala, izan zala iñor, ta iños dontsubagoric (P 150) # ucatzen zuela izan citequeala iñor zorionecoagoric (T 19).

Hitz arrunten itxureari jagokonez be, batzuetan *H* eta *P* batera datoz, eta *T* bestera:

Soldauena (H), Soldaubena (P) # Soldaduenta (T); Batzaarra (H, P) # Batzarrea (T); eratsiric daude (H), eraatsiric dagoz (P) # ichatsiric daude (T).

Aditz trinkoen erabileran be bai: *Badacutsute (H), Badacutsute (P) # Ycusten dezute (T).*

–Azkenez, badira pasarteak, non eraginak nahasi samar agiri diran: hau da, *P* eta *T*, *H*-gaz bat datoz hitz batzuetan, eta beste batzuetan ez:

zure amoriarentzat erabaquita cegoana (H 48), zure oniritxi ta maitetasunarentzat erabagita eguana (P 144) # zure amorearentzat gorderic cegoana (T 19).

Ezaugarri bat bada, oinarrian idatzaldi guztietan agiri dana: idazleak askatasun handiz jokutzen dau testua berridazteko unean, eta deritxozan aldaketak, ugalketak eta laburketak eragiten deutsoz testuari. Alde horretatik, malgutasuna eta jariotasuna dirateke, gure ustez, berez be libre samarrak diran itzulpenon eta euron idatzaldi diferenteon ezaugarri garrantzitsuenak.

–Gipuzkera ereduari dagokionez, susmo sendoa dogu, 1802ko bertsinu publikatua orraztua edo zuzendua izan zatekeala apurren bat; lehenengo Mogelen beraren eskuz, baina ondoren, beste zuzentzaile edo idazle giputzen baten eskuaz. Editorearen eskua be, zuzen edo zeharka, ez zan urrun ibiliko, beharbada. Ze zuzenketa kontu hau ez da nobedadea Mogelen giputz testuei jagokenean: lehenago be ikusiak gara holako zuzenketak *CatB* eskuizkribuan.⁵ Baina *VersB*-en kasuan, gugana ez da heldu *T*-ren eskuizkribua, eta ezin zehatz jakin daiteke zer datekean bestek aldatua. Baina zenbait hitz-itxura eta adizki zuzentze-lanaren ondorio dirala pentsatzeko arrazoiak badira. Zehaztu daiguzan:

a) Bizkaiera usaineko adizki batzuk darabilz *H*-n, *T*-n ez datozenak: *ematen dizquiotez* (H 546) / *ematen dizquiotezute* (T 17).

b) Markinaldeko idazle klasikoen ezaugarria da baita, batzuetan plural balio-ko *-zu* atzizkidun adizkiak erabiltea, Mogelenean Frai Bartolomerenean baizen ugaria izan ez arren. *H*-n badira halako bakan batzuk, *T*-n agiri ez diranak: *aguiri dezunoc* (H 547), *aguiri dozunoc* (P 144) # *aguiri dezutenoc* (T 18); *nai badiozcatzu* (H 547) # *nai badiozcatzute* (T 18).

c) Laguntzaile aoristo iragangaitz orainaldikoan *didin* darabil *H*-n, *T*-n *dedilla* darabilen bitartean: *errierta au izan didin* (H 547) # *errierta bera izan dedilla* (T 18).

Iraganean be *zidin* bizkaiera zahar kutsua dakusku idatzaldi bietan: *zambrotuta aguertu cidin* (H 555) / *aguertu cidin zambroz beteta* (T 22).

d) Badira erabilera urriko adizki batzuk, idatzaldi diferenteetan bat datozenak. Halan: *ezpaneranbil* (H 537, T 18, P 144), ‘erabiliko ez banindu’.

e) Bokale bituen kasuan gauza bera dakusku batzuetan: *artzeen ez cituen* (H 546) / *artzen dituen* (T 17), *zuteela* (H 554) / *zutela* (T 21). Bokale bituak ugariago darabilz *H*-n, bizkaierazko *P*-n legez, baina mehatzago *T*-n. Eraz dator hemen gogoratzea, *CatB*-en eskuizkribuan be beste esku batek tatxaturik dagozala bokale bitu asko, halan inprentartzeko usteaz, jakina. Hemen be testu-zuzentzailearen batek bokale bituok batera ekarri ete dituan susmoa dogu. Testuon erkaketan, honakoak esaterako: *Batzaarrari* (H, P) # *Batzarrari* (T); *aarrac* (H 53) # *arrac* (P 150, T 19).

f) Grafian bertan be *H*-tik *T*-rako aldea igarria da grafema batzuen idazketan. Halan bokalaratean *i* ohi darabilen *H*-k, *T*-k y dakarren lekuan: *zaio* (H 546) / *zayo* (T 17).

⁵ *CB* laburduraz adierazo dogun obra honen testua –gorde dan edo ezagutzen dan tomoa, hain zuzen– geuk argitara genduan orain urte batzuk: (1994) *El Catequista Bascongado. Cristau Eracasle Euscalduna*. Adolfo Arejitaren edizinoa. Bilbao. Jarein, Labayru Ikastegia & Bilbao Bizkaia Kutxa

g) Ez gara ausartzen neologismo kontuan be kanpotiko eskuren bat tartean ibili danentz baiesten, baina izan leiteke *Taldegauza*, *Taldelur* eta halako hitzbarriak, nahiz Mogelen uztakoak izan seguruenik, bera baino garbizaleago zanen baten aholkuari jarraiturik erabili izana. Humboldt-en gomendioz, behar bada?

4.3. Lexikoa

Hiztegia da idazlea gehien kezkatzen dauen puntua, era honetako itzulpen baten aurrean. Idazlea jakitun dago, latinetiko bertsinok euskerara ekarteak neke-lor astunak darakazala eta ohiz gorako ahalegina eskatzen dauela; euskeraz zuzen testua sortzea baino zailtasun gehiagokoa dala beste hizkuntza batetik euskeraz sekula landu bako genero, gai eta kontzeptuak hizkuntza honetan modu ulergarri eta esanguratsuz adierazotea. Bide horretatik doaz, *Notas* ataltxoaren bidez Humboldt-i gaztelaniaz azaltzen deutzazan kezka eta argibideak. Kultura-hitzak euskeratzean datza untzea. Zelan euskeraz emon, erromarren kultura landu haretako kontzeptu bereziak, baina herritar euskaldunek ulertzeko moduan eta euskal hizkuntzaren berezko sena behartu barik?

Zenbait kultura-hitz euskeraz finkatzen saiatuko da, berariaz horko erretorika generoan azaltzen dan terminologia administratibo eta militarra. Finkatze-ahalegin horren behin-behinekotasuna ezagun da idatzaldi diferenteak konparatzean: batean eta bestean hitz-itxura diferenteak proposatzen ditu behin baino sarriago kontzeptu berarentzat.

–Halan, izkribu baxotxa bere bidetik dabil hitz batzuetan. Esaterako, lat. *legio* adierazoteko, *Soldau-motso* (H), *Soldau aldra* (P) eta *Soldadu Talde* (T) pasarte berean.

Beste baten, ostera, hiru izkribuek dakarre *Solda(d)u pillo* (H 453, B 150, T 19).

–Batzuetan *H* eta *T* datoz bateratsu eta *P* bereiz: *Soldadoequin* (H 54), *Soldaduen Burua* (T 21) # *guerra guizonacaz* (P 151).

–Jakintza- edo kultura-hitzei dagokienean, oro har, *H* eta *P* idatzaldiek maileguetara edo perifrasietara errazago jotzen dabe, inprimategirako ondu eban *T*-n baino. Han hizbarri zehatz eta jasoagoak bilatzen ahaleginduko da. Adierazgarriak dira honako diferentziok:

Errepublicaren (H), *Errepubliciaren* (P) # *Taldegauzaren* (T); *Errepublicac* (H), *Errepubliciac* (P) # *Taldeaguenteac* (T).

Beguiralearen (H), *Beguiraliaren* (P) # *Ondocuslearen* (T); *beguiratzeco ipiñiac gueranc* (H), *Beguiralioc* (P) # *Ondocusletzat ipiñiric gaudenoc* (T).

Errepublica onetan (H, P) # *Taldelur onetan* (T).

Orohar bateratsuago datoz hiztegi mailan *H* eta *P*, *T* baino: *Aguintari edo Buru* (H 54, P 151) # *Aguintari, edo guerra-buru* (T 21).

4.4. Neurria: luze-laburra

Konposizino bakotxaren neurria hartzen badogu konparabidetzat, H laburragoa da, orohar, beste idatzaldi biak baino, eta are laburragoa T baino. Testu batzuetan handiagoa da alde hori beste batzuetan baino: *Alexandroren Izkundea*-n esaterako. Baina antzera jazoten da *Catilinaren Izketa erreguzkoa*-n eta besteetan be: esaldi luzeagoak, informazinoz ugariagoak ditu orohar T-k H-ren ikusian, gehienetan P erdibidean gertatzen dala.

4.5. Kronologia

–H idatzaldia, argi dago, Humboldt-ek eginiko proposamenari emondako erantzun zuzena dala. Idatzaldi berau da Humboldt-i Jose Maria Murgaren bidez eta honen aurkezpen-gutunagaz lagundurik bialduko deutsana.

–Aurreko baiestapenaren haritik, esan daiteke idatzaldi hau ez zala inprimategira bialtzeko asmoz ondu izan, Humboldt-ek Murgari eginiko enkarguari erantzuteko baino. Egileak berak autor dau, gainera, epe laburregian idatziriko lehen zirriborroa dala, eta orrazteko asti barik bialdu izan dirala. (555).

–Kronologiari dagokionez, aurretik esandakoaren haritik, esan daiteke 1801ean sortuak dirala hiru idatzaldiok, ia bata bestearen atzean, eten handi barik.

Hiru testuen hizkera-ezaugarriak konparatu ondoren —hitzen itxurak, sintagma-unidadeak, perpaus-unidade eta kateak, eta bardin esamoldeak— sekuentzia hau proposauko genduke: H izan daiteke hiru bertsinoetarik zaharrena. Murgak Humboldt-i bialduriko gutuna 1801eko irailaren 24an datatua dago. Orduko ingurukoa izan behar dau, hurrean.

Horren ostekoa dateke PAb obrako bizkaierazko bertsinoa.

Eta azkenez, inprimategirako gipuzkeraz ondu eban testua (T) izan daiteke atzerengoa. Bertsino honen testua, beste biena baino ugarituagoa, garbizaleagoa eta beste bietarik aldenduagoa izanik, 1802an egin zan argitaraldirako beren-beregi berridatzia izan zala pentsa daiteke.

Gipuzkerazko bertsino bien artean, T idatzaldia, inprimatu zana, da atzerengoa. Alde guztietara H baino hanpatu eta ugariagoa da: batez be, sinonimoen edo zentzun hurbileko hitzen segidak edo kate komunztatuak luzeagoak dira han, besteetan baino.

5. HIZKERA ALDERDIKO BESTE ZERTZELADA BATZUK

H bertsinoaren testura mugatuta, badira erabilera batzuk, iruzkin laburra merezi dabenak. Euretariko batzuk, gorago be aitatu dira, bertsinoen erkaketaren atalean.

Izen edo izenordain bizidunen deklinabidean, aitagarria da *-etan* inesibo-atzizki plurala aurkitzea *zuek* izenordainari lotuta: "*Zuetan* beguiac ezartean" (541).

Adizkien morfologia dala-ta, aitatzeta merezi dau *-zu* plural balioko aditz atzizkiaren presentzia. Halan, *diezu*, *zuek*-hareei adierazoteko: "esetsi bear *diezunean* etsaiari" (540), "Larga nai *badiezu* guerraco burni odolguiuroai" (541).

Era berean ohartzekoa da *deritxu* adizkia, 'eretxi | eritzi' aditzarena, ha-zuri argumentuduna, iragangaitza beraz, eta zabalago dabilen *deritxazu* adizkiak bestelakoa, eta Mogelek beste gehiagotan be darabilena: "onembeste atseguin emoten badeutsu nire vicitziac, edo ain ondo *baderichu* nire zorionac" (557).

Aditzen eta perpaus osoaren egitura inperzonala aditz transitiboan kasuan, nor IS bigarren perzonakoa danean be bideragarri da, aditz laguntzailatzat *izan* laguntzailea erabilita. Halan: "Irichi, ta ichedon nai badezute osasuna iguesaren videz,⁶ ta burni guerracoac etsaien beguietatic alderaturic, zorotzat emango *zerate*" (341).

6. GLOSARIOA

AGINIK: zorian, beharrean: "zerabilzaten etsaiac larri, ta *garaituaguinic*" (547)

AGINTARITZA: 'imperio': *Erromaco Aguintaritzac* (545)

AIZETU: *adj* astin, puztu: "bidaltzean niri garta arro, ta *aizetueac*" (539)

ALDRA: Soldadu-aldra: "eragozten digute Soldadu *aldra* andi bic" (540), "Soldau *aldra* machinatuac" (546)

APAL, *bizk* arasa: "*apal* asco, cillar, ta urrez estaliac" (553)

AUPATU: desafiatu: "orain *aupatua* naiz" (539)

AZARTASUN: ausardia: "*Azartasuna* da muru orde, orma sendoa" (541)

AZARTU: *adj*. ausart, 'osado': "araco lotsagabe, *azartu* L. Catilina" (543)

AZKORTASUN: adore, kemen: "guizonai *azkortasunic* erasten" (540), "Zori onac igues eguiten badio zuen *azkortasunari*" (541)

BAI: 'prenda': "Au izango da zuen damu, ta leialtasunaren *bairic* ederrena" (547)

BALDAN: jaregin, utzi, baldar, narrats: "nagui *baldana* bada" (540)

BEGIRALE: 'protector': "Batzaarrac au badacus; *Beguiraleac* ezagutzen du" (541)

⁶ Lehenengo *badezu* idatzi dau, eta ondoren gainetxoan *te* erantsi, ondoriotzat *dezute* emonez.

- BERDINDU: konparatu, erkatu: “ez naizala *berdintzeco*a guizon andi oequin” (546)
- BILLAU: doilor, zital: “billostu eguijela Escola-maisu *billauba*” (559)
- BILLAUKERIA: ‘vileza’: “ta ezagutu alaco *billauqueria*” (554).
- BURU NAUSI: buruzagi, ‘cabecilla’: “erri barreneco machinarien *Buru nausi* au” (544)
- DAMUERAZI: bengatu: “oen eriotzac *damuerazitzeco*” (547)
- DOATSU: zorienttsu: “ucutzen zuela izan zala inoiz iñor *doatsuagoric*” (553).
- DOATSUTASUN: zorienttasun, ondo izate: “erri ascoren *doatsutasuna*” (540)
- EGIKARI: ekintza handi, ‘hazaña’: “lengo *eguicarietan* aguertu dezuten biotzeco nau-sitasuna” (541)
- EGORRITU: urten eragin, kanporatu, erbestetu: “*egorritu* da gure zorionean” (543).
Cf. T: *erri-egorritu degu* (14)
- EKANDU: *ad* ohitu: “*Ecandubac* egozan Faliscuac orduban mutilchu asco imintera Iracastle baten azpian” (558)
- ENZUTEGI: ‘audiencia’: “ez Marteren Campoan, ez Batzaar barruan, ez beste Aguin-tarien *Enzutegian*” (544)
- EPELDU: desanimatu: “ez dezute orregatican *epeldu* bear” (543)
- ERALE: hiltzaile, ‘asesino’: “bere Cañibet *eralea* bere escuetatic aterata” (544),
“Varo, ta iru Soldaupilloren *eraleac*” (547)
- ERBESTETASUN: desterru: “lotsatzeco *erbestetasun*, ta deserritze astuna.” (541)
- EREGATU: igurtzi “baita ere corputza *eregatzeco* miritza, edo unguentuac” (553)
- ERIOZGIN: hiltzaile, ‘asesino’: “bere Cañibet *eriotzguiñ*, ta odolez ugartua” (544)
- ESKU OSOKO: eskubide osoko, ‘de pleno derecho’: “izanic Beguirale *escu osocoac*” (543)
- ESKUA EMAN: eskubidea eman: “*Ematen* zaio *escua* erabaquitze” (540)
- ESKUPE: agindupe, mende: “Nic (...) eman ditut Faleriocoac Erromarren *escupera*” (554)
- EZ: *iz* gabetasun: “ogui ta gauza gucien *eza*” (540)
- EZAGUTURIK EDUKI: jakitun egon: “*Ezaguturic daducat* (..) ez diela itzac guizonai azcortasunic erasten” (539)
- EZAGUTZA: esker on, ‘reconocimiento’: “*Ezagutzatzat*, nic escatzen dizut, izan zaitela Erromarren adisquidea” (548)
- EZARIAN: igarri barik, apurka-apurka: “*ezarian*, ta igarri gabe bezala urrutitu cituen cerbait gueiago errico ateetatic” (554)
- EZARRI: ipini, bota: “ta gañeti *ezarteco* estalqui chito apaindubac” (557)
- EZKELDU: okertu, trabestu (begiak): “ala ere *ezqueltzen* ditu burupetic bere begui odoldu, sutu, ta amorruz iraaquiñac” (544)
- GABE: *iz ez*, gabetasun: “gauza gucien *eza*, ta *gabea* degu” (540)
- GABEKO ZAILLA: ‘vigilante nocturno’: “Palatinoco mendico *gaveco Zaillac*” (541)
- GABEKO ZAILLA: gau-jagole, gau-zaintzaile, ‘vigilante nocturno’: “Palatino mendico *gaveco Zaillac*” (540)
- GERRAGIZON: gudari, soldadu: “bere *guerra-guizonacaz* Camilo eguan toquirá” (558)

- GOMUTA ERAGIN: gogorarazi: "Erregue-eche, edo Jauregui ospetsuben edertasuna gogora eracarri, edo *gomuta eraguiten*" (558)
- GORABEERATU: azpikoz gora jarri: "gauza guciac *gora-beratuco* zaizquigu" (540)
- GOZAGARRI: *iz* plazer: "*Gozagarri* gucien ondoan, onic onenean" (553), "onic onenian, *gozagarri* guztien artian dacus zorioneco beguitandu onec bere buruban gañian Burdina zorrotz argui eguitebana" (557)
- GURA BETIAN (biz): guraina, nahi adina: "ondasun ta atseguinac *gura betian* ta ugarri eucazan unian" (557)
- IGITU: mogitu: "icen onac *iguitzen* ez duenari" (540)
- IRAUNTSI: *iz* jardun, ekin: "Aguintariaren *irauntsi*, ta equiñequin ez dala Soldaute-guia, nagui baldana bada, pizcortzen" (540)
- IRRISKU: arrisku, abentura: "Alperric jardun ta equingo diozu, *irriscu*, ta icen onac iguitzen ez duenari" (540)
- IRUDIKO: *-en irudiko*: -en antzeko, -en moduko: "Eztira Erromarrac, ez euren Aguintarija bere, zure *irudicuac*" (559)
- ISKANBILATU: nahastea sortu, 'alborotar': "Ezdu onezquero erri-orma, edo muru barrumbe oetan gueiago *iscambillatuco*" (543)
- IXIL EGOTE: *iz* ixiltasun: "artuco dituzu bideac gure *issil egotetic* cere asmo galdue-taraco" (540)
- IXILTOKI: ezkutaleku, 'escondrijo': "*issil-toqui* celatacoetatic ateraeraci" (544)
- KINU: keinu, aieru: "bere *quiñu* baten zain egozanac agiunduteutseen guztia beria-la eguiteco" (557).
- KONKORTU: apaldu, kikildu: "Biotzeco beldurrac *concoztzen* ditu belarriac" (540), "beldurrac azpiratzen bagaitu, *concoztzen* baguera" (540)
- LAUSENGARI (biz): balakari, losintxari: "Damocles ceritzon bere *lausengarien* arte-coa" (553). PAb: "bere *labanguillen artecua*" (150)
- LAZGARRI: bildurgarri, ikaragarri, 'terrible, horrible: "beren etsaiei baño gastigu *latzgarriagoac* ematen cizten" (543)
- MALMUTZ: 'astuto, malvado'. "Egozten dizquigu bere begui *malmutzac*" (541)
- MATXINARI: iraultzagile, 'revolucionario': "erri barreneco *machinarien* Buru nausi au" (544)
- MIRITZA: ukengu: "corputza eregatzeco *miritza*, edo unguentuac" (553)
- MUKAITZ: *adj* zabar, nasai: "Sendaguilla nagui, *mucaitz*, ta baldanac" (539)
- NASAITU: *ad da* asaskatu: "olgau citezan ta *nasaitu* joco, ta jolasetan" (558)
- ODOLGIRO: *adj* odolzale, krudel, 'sanguinario': "Larga nai badiezu guerraco burni *odolguiroai*" (541)
- ONETSI: maite izan: "jaquin det guciac asco *onestzen*, ta maitatzen cenuela" (547)
- OTU: burura etorri, buruak emon: "Ezda eguin biar *otuten* dan guztija" (559)
- SENDOTU: 1 *ad* adoretu, azkortu, balientetu: "ez da ere beldurtia *sendotzen*" (540).
2 *adj* 'fortificado': "toqui *sendotu* oneec" (541)
- SOLDAU-ALDRA: armada, ejerzitu: "baquia eguinda biurto zan Erromara *Soldau aldra* guztia" (559)

- SOLDAU-PILLO (biz): armada, ejerzitu: “Erregue onen *Soldau-pilluac*” (558)
 SOLDAUTEGI: armada, ejerzitu: “biurtu zan Erromara *Soldauteguid*” (555)
 URRUTITU: urrundu: “igarri gabe bezala *urrutitu* cituen cerbait gueiagi errico atetatic” (554)
 ZALDI-ZURDA: ‘crin de caballo’: “*zaldi zurda* edo ille bat erantsiric” (553)
 ZANBROTU: zambroz bete, urratu, erremindu: “araguia *zambrotuta* aguertu cidin” (555)
 ZETAKA: orban: “quendu guere icen onari ezarri diogun *cetaca*, ta ugarra” (547)
 ZURTU: harritu: “*Zurtu* cirian Faliscocuac icustian Erromarren prestutasuna” (559).

7. BIBLIOGRAFIA

- AREJITA, Adolfo (1994): *La obra de Juan Antonio Moguel. II. Peru Abarka. Edizio kritiko*. Bilbo, Deustuko Unibertsitatea. (doktorutza-tesia)
- ASTARLOA, Pedro Pablo de (1803): *Apología de la Lengua Bascongada, ó ensayo crítico filosófico de su perfeccion y antigüedad...* Madrid, Don Geronimo Ortega.
- (1804): *Reflexiones filosóficas en defensa de la Apología bascongada o Respuesta a la Censura crítica del Cura de Montuenga*, Madrid. (egilearen izen barik argitaratua)
- (1883): *Discursos filosóficos sobre la lengua primitiva o Gramática y análisis razonada de la Euskara o Bascuence*. Bilbao.
- GARATE, Justo (1936): *La época de Pablo Astarloa y Juan Antonio Moguel*. Bilbao, Imprenta Provincial de Vizcaya.
- MAHN, C.A.F. (1857): *Denkmaeler der baskischen Sprache, miteiner Einleitung...* Berlin, Dümmler.
- MOGEL, J. A. (1802): *Versiones Bascongadas de varias arengas y oraciones selectas de los mejores autores latinos, o demostración práctica de la pureza, fecundidad y eloqüencia del idioma bascuence*. Tolosa, F. de La Lama.
- (1999): *Versiones Bascongadas...* Sarrera: Adolfo Arejita. Gizonak & Lanak 1. Asociación Ikeritz, Zarauz.
- (1891): “Apología de la Lengua Bascuence contra las erradas ideas, y congeturas de D. Joaquin Traggia, autor del Artículo del Origen de dicha lengua en el Diccionario Histórico-Geográfico de la R. Academia: V. Navarra”, *Euskal-Erria*, 1891 (XXV): 38-42, 69-73, 116-120, 137-142, 212-216, 244-249, 270-272, 297-300, 336-340, 369-374, 390-397, 442-447, 474-480, 497-503 y 524-529.

8. LABURDURAK

- Pab: *Peru Abarka*. Eskuizkribuaren transkripzioa.
 H: Humboldt-i bialduriko *Versiones Bascongadas*-en bertsinoa.
 P: *Peru Abarka* berba-jardunen barruan txertaturiko bizkaierazko bertsinoa.
 T: *Versiones Bascongadas de varias arengas...*, Tolosa, 1802.

9. MURGAREN GUTUNA

Jose Maria Murgak Humboldt-i 1801.eko irailaren 24an, Mogelen euskal bertsinoko eskuizkribuzkoak batera, eta hareen aurkezpen modura bialduriko gutuna ondoko hau da:

[537a]

Mi estimado amigo y Señor:

Si Vm. hubiese creído mas bien en quanto á mi inteligencia en el Bascuence á lo que pudo juzgar por sí mismo durante los pocos dias que pasamos juntos, que á lo que le dijeron personas demasíadamente empeñadas en favorecerme, no me hubiera Vm. puesto en la empresa para mí dificultosísima de traducir á aquella lengua algun pasage de qualquiera buen Autor latino, y yo hubiera tenido antes el gusto de responder á su estimada carta de 22 de Julio. Pero el mal está hecho, y todo se reduce á que yo no pida á Vm. perdon de mi largo silencio, y á que acompañe mi ensayo de traduccion con una especie de Prólogo tan largo ó mas que ella.

Para dar á Vm. razon de los papeles que le envio, debo empezar por decir que no habiendo podido sus atentas expresiones hacerme desconocer mi insuficiencia, recurrí desde luego al Sr. Moguel para que traduxese los retazos que le pareciese de Salustio, T. Livio, [537b] Tácito y Ciceron, y yo por decir que hacia algo, pensaba poner algunas notas, que era oficio mas propio de mi pereza. Hizo aquel amigo con la mejor voluntad, lo que se le pedia y añadió un trozo de Q. Curcio, pero por razones que hubo para ello, usó del Dialecto guipuzcoano, que yo apenas entiendo, y fuera de esto eligió en todos los Autores citados arengas, que es donde las traducciones, que Vm. quería literal quanto fuera posible, exigen, mayor libertad; y de esta se tomó tanta, que á veces pareció á mi escrupulosa una ciencia que no solamente ponía unas figuras por otras, sino aun que se apartaba del sentido. Asi me hallé con que su trabajo, aunque mui apreciable, y digno de remitir á Vm. con elogio como lo hago, no era propio para los fines que Vm. deseaba, y hube de cansar de nuevo al mismo amigo, rogándole que me traduxera en ambos Dialectos Vizcaíno, y Guipuzcoano, y con la mayor [537c] actitud que permitiera el genio de ellos, las dos oratorias de Damocles, el favorito de Dionisio de Siracusa, y del Maestro de los niños Faliscos, que por su sencillez recomienda y copia Rollin en el Tratado de los Estudios. Entretanto, yo el recomendado á Vm. por mi pureza Bascongada, adquirí el Diccionario de Larramendi, y me hallé en un mundo enteramente nuevo, porque si antes podia tener alguna duda, entonces me convenzí de que no sabía palabra. Sin embargo quando el amigo Moguel, siempre igualmente bondadoso, me envió estas nuevas traducciones que tambien incluyo porque tienen mucho mérito, ayudado de ellas y del Larramendi quise probar mis fuerzas, y hice de la historia de Damocles esa traduccion con tanto tra-

Mi estimado amigo y Señor. Si
 hubiese podido mas bien en quanto á
 su inteligencia en el Bafuenne á lo que
 me juzgar por si mismo durante los pocos
 dias que paramos juntos, que á lo que le di-
 eron personas demasivamente competidas en
 la materia, no me habian Vm puesto en la
 empresa por mi dificultadissima de traducir
 á aquella lengua algun pasage de qualq.
 autor latino, y yo hubiera tenido au-
 tor el gusto de responder á su estimada car-
 ta de 22 de Julio. Pero el mal está hecho,
 y todo se reduce á que ya no pida á Vm
 perdón de mi largo silencio, y á que acom-
 pañe mi ensayo de traduccion con una ex-
 plicacion de Prologo tan largo ó mas que ella.
 Para dar á Vm razon de los papeles
 que le envío, debo empezar por decir que no
 habiendo podido sus atentas expres^{nes} haerme
 desconocer mi insuficiencia, recurrí desde luego
 al Sr. Moguez p.^a que traduxese los
 versos q.^e le pareciese de Salustio, T. Livio, Ta-

Eskuizkribu hau eta hurrengoak Humboldt fondokoak dira.

bajo que no me quedó gana de continuar en la de los Faliscos. Pero esto fué nada para lo que hube de sudar quando quise representar mi traducción por otra traducción interlinear Francesa que fuese á lo menos [537d] comprehensible. Crea Vm., amigo mio, que solamente el aprecio que hago de su persona, y de su amor á las Buenas letras, de que yo siento tambien de tarde en tarde alguna débil chispa, pudo haberme superado á tan desabrida tarea; pero al cabo molestado del temor de que mis notas fuesen ininteligibles, aburrido de conciliar lenguas de indole tan opuesto como la Francesa y la Bascongada, horrorizado en fin, si es permitido decirlo así, de estropear con barbarie vandálica el estilo de Cicerón y el idioma de Fenelon, ni he tenido valor de concluir mi trabajo, ni aun de poner en limpio lo que yá tenia hecho, y así se lo envio á Vm. con borrones, con enmiendas, apenas legible, para que se asegure de que no me faltó deseo, sino capacidad de servirle completamente.

Después de esta necesaria apología paso á manifestar á Vm. lo mucho que apreciamos la honra que espera á este Pais de [537e] darse á conocer en el Norte de Alemania su idioma y sus costumbres por una pluma tan respetable, y tan propensa á favorecernos. Los elogios que hace Vm. de estas Provincias en su apreciable carta y que de Vm. á mí no pueden menos de ser sinceros, han contentado en extremo á quantos los han oido, y á los que trataron á Vm., solamente les ha quedado el sentimiento de no haber obsequiado mas, y mas á quien sabe tan bien expresar su gratitud, y de no haberle tenido por acá mas despacio. Yo aseguro á Vm. que, leyéndolos me admiraba de tener por acá tanto de bueno sin advertirlo; pero volviéndolos á leer, no podia señalar precisamente en qual estaba la ponderación: efecto que si no queremos atribuirle á amor á la patria por respeto á un nombre tan sobresaliente, se le atribuiremos á los hábitos adquiridos desde la niñez, y al agradecimiento que debo á mis paisanos, y quedará bastantemente cansado. [537f]

Habrá como un mes que estube en Vitoria, y ví allí al amigo Eguia, con quien como puede Vm. suponer, hablé mil veces de Vm. Le pedí la musica y letras Bascongadas, y le he vuelto á escribir sobre ello, pero Vm. y yo sabemos que la actividad no es la mejor de sus prendas, y ademas de eso ha estado un poco indispuerto. Su padre, y el Sr. Corral están en Bayona por temporadas.

Doy á Vm. infinitas gracias por sus diligencias con M. Barbié de Bocage para agenciarme el Mapa que falta al Atlas de la ultima edición de Anacharsis, y por las noticias de política, literatura, y artes que me comunicaba. No esperará Vm. que yo, y escribiendo de Bilbao, se las pague á Vm., y escribiendome de Paris ó de Berlin, pero sí que le ruegue me las continúe.

La única novedad que puedo avisar á Vm. es la introducción de la vaccina, á merced de los eficaces esfuerzos del amigo Mazarredo, [537g] que aun ha dado á luz un extracto de la obra publicada en Paris por Hussion sobre este asunto.

Está vacunada, ó *invacunada* como aquí decimos, su niña, y la de nuestro amigo Iturriaga en Azpeitia; mis niños creo que lo estén en toda esta semana: en Madrid se ha recibido con el mayor entusiasmo esta invención. Según veo por las Gacetas Francesas, los Médicos Prusianos se quieren tomar aun mas tiempo para juzgarla.

Yá sabrá Vm. la indisposición de nuestro Rey y las demás novedades políticas que yo pudiera contarle. El General Mazarredo ha elegido este Pueblo, patria suya, para su retiro.

No sé si me disculpé con Vm. de no responderle en Frances, y si es necesario, valgame decir que basta para solecismos con los de mi traduccion Galo-Cantabra. Vm. sabe el Castellano mejor que yo el Frances, y esta es mas justificada disculpa, sin entrar ahora en cotejos de lenguas que son tan sabrosos á los Doctores de [537h] la literatura Bascongada. *Ego me illorum deserim quibus esse magistros, excerptam numero*, no crea Vm. que por encajar aquí un paso de Horacio, me tengo por tan superior á Moguel ó á Astarloa, como él á Lucilio, pero sin una cita en latin, ¿qué se diría de una carta escrita enviando una Traduccion de Ciceron?

Doy por supuesto que escribirá Vm. en Frances su visita á nuestros andurriales, pues si lo hiciese Vm. en Aleman, no le sabemos, y andariamos perdidos. Si Vm. me quisiese remitir sus trabajos literarios, entre los quales me acuerdo haberle oido nombrar una traduccion de alguna tragedia de Sófocles, tendré mucho gusto en recibirlos, aunque estén en lengua que por mi desgracia yo no entienda, como testimonio de la fineza con que corresponde Vm. á un amigo iliterato, que de veras le estima.

Si vé Vm. á mi amigo Rafael de Urquijo, hágame Vm. el gusto de saludarlo afectuosamente en mi nombre, y de decirle que [537i] lo luce en esa Corte con su guitarra y cantares Españoles. Reciba Vm. finas expresiones de mi muger, y póngame á los piés de la suya, a quien sin tener la fortuna de conocerla, venida por las noticias que me tiene Vm. dadas de su aplicacion y talento, y crea Vm. que se precia de serle mui apasionado su afectisimo amigo y seguro servidor que s. m. b.

Joseph Maria de Murga

Bilbao 24 de Septiembre de 1801

i que la luce en esa Costa con sus quitarras y
cantares Españoles. Reciba Vn. finas expresiones
mi muger, y pongame á los pies sus brazos
quien sin tener la fortuna de conocerla, viví
por las noticias que me tiene Vn. de sus
aplicacion y talentos, y crea Vn. que se
precia de serle muy apas. de sus aff. am. y
sig.º serv.º q.º J. m. b.

Joseph Maria de Alzola

Bilbao 24 de Sept. de 1801.

El Baron D. Guill.º de Humboldt.

Versiones bascongadas

de varias harenegas, o Oraciones latinas de los me-
jores Autores.

Alexandriaen Izquierda bere onitarumean Idiaquide,
ta Sondagullai.

Badacutute, cein lazi ta eciu ipini rauen nere gureta-
quizionen Ezina. Dextat, onzuten nauoala etta amen
O.ve, ta escombila latzomila. Seruicioo egumetan nere
gogoz, ta auquereaz onnan nuen guduta orain aupaue
nuzi; nere eiciten aialate. Danoc bada bicia tzean nire gan-
ta axno, ta aizehuaz; nullo gaura gucim jabe izateco con-
billon armaoa; alboxic ordea nere eciuan baneduca orasu-
na iducuitza. Sondagami macal, indar guchico, ta lura-
pona dactenaz, brite ore Sondagulla naguz, mucaite,
ta baizimac, ez dira narqui coquico nere gaitzentza.
Obeto diagoquit euzteaz vire arcesuicoa, ecer ez orasun
beronauco. Ala Sondagulliton lapuntaraz anguitzen
bada, beren lanaz alpezzaz espadiaz, jaquer beraze, gucia-
go inilatzen xedala guda gaurzen zuzentzea, nere ora-
sumarona bano. Selectas Oraciones ex G. Cecilio III.º S.

Catibazoren Izquierda edon bere Soldaduzaz zuzentza,
Ez agutuz darducatz, Soldaduzaz, ez ailla ezaz gurenaz

arcontarini enasien; ta Aguntaxiaraz inuaiti, ta equite
 quen ez dala Soldantigua, nauai baldana bada, piccatron,
 ez dala ez belantia sonlotron. Beraz, ta faloria bezala ba-
 coitrac duina, aguntaxia du. Escuelara talon orlean. Lipor
 ric jandun ta equiteo diore, beraz, ta icon onac equiteon ez
 duonari. Beraz, beladunac concerton dila beladunac. Deidi
 x zaiter ez bada con equiteo beaz dezuon adicaxion, beraz, con
 eraguntaxia con equiteo dila, ta onen equiteo dila.
Sentuloxon nauaitarion, ta lotutarion conmit dila, ta erata
erazi diore, quisi beraz orten, basia izate, Soldadun.
 ta noia Vicia laguntza scholast. neropan riten, eriz jan
 x nindemian Gahina. Goosa idingua gabi, duido eragun
per paritu erinesac. Eraxion diore Soldadu aldun and
f. dio, bata Vicior, beria, Guistaxion. Ac eragunt eriaz
zuec nie bezala. Berteb don ta gaura quien on, ta pa
bea dezu. Nora nai f. m, buvi zaxotrac idiqui deano du
videa. Oragunt zandeta prest, ta sondo, ta erazi beaz di
zimean eriaz, eragunt eriaz eriaz, on zute eriaz eriaz
ta on eriaz eriaz eriaz, ta eriaz eriaz eriaz. Quier
jateduco quora, nai ala jon izango eriaz, agunt eriaz eriaz
guz ala eriaz, nola locari gaba eriaz nai eriaz eriaz
eriaz, eriaz eriaz eriaz, ta eriaz eriaz eriaz. Roma belia
eriaz eriaz eriaz eriaz eriaz eriaz, beria eriaz eriaz
eriaz eriaz eriaz, gaura eriaz eriaz eriaz eriaz eriaz.
Eriz du, ta eriaz eriaz eriaz, eriaz eriaz eriaz, eriaz eriaz
eriaz eriaz eriaz eriaz eriaz eriaz.

10. TESTUA, HUMBOLDT-I BIALDUA, ALBOAN TOLOSAN INPRIMATURIKOA DAUTSALA

[539]¹

**Versiones bascongadas
de
varias harengas, o Oraciones latinas de
los mexores Autores**

¹ Orrialde-zenbakiok eskuizkribuko orrieci jagokezanak dira; guk bertan datozen moduan jagon ditugu.

[1]

Versiones Bascongadas
De
Varias Arengas, y Oraciones Selectas
de los mejores Autores latinos.

ó

Demonstracion Practica

de la pureza, fecundidad, y eloqüencias del idioma
Bascuence contra las preocupaciones de varios Es-
critores extraños, y contra algunos Basconga-
dos, que solo tienen una noticia su-
perficial del idioma
patrio.

Por Don Juan Antonio de Moguel y Urquiza
con Licencia

EN TOLOSA:

Por Don Francisco de la Lama.

AÑO M.DCCC.II.

Alexandroren Izcuntza bere eritasunean Adisquide, ta Sendaguillai

Badacutsute, cein larri ta estu ipiñi nauen nere guertaquizunen Zoriac. Deritzat, enzuten nagoala etsai-armen Ospe, ta iscambilla latzgarria. Lenvicico egunetan nere gogoz, ta auqueraz eman nuen guda; ta orain aupatua naiz; neri esesten didate. Darioc bada bidaltzean niri garta [*sic*] arro, ta aizetuac, nere gauza gucien jabe izateco cerabillen asmoa; alperric ordea nere escuan baneduca osasuna iduquitzea. Sendagarri macal, indar guchico, ta luzapena dacartenac, baita ere Sendaguilla nagui, mucaitz, ta baldanac, ez dira nosqui egoquiac nere gaitzarentzat. Obeto dagoquit eriotza viotz azcarrecoa, ecen ez osasun beranducoa. Ala Sendaguilletan laguntzaric arquitzen bada, beren lanac alperrac ezpadira, jaquin beza-te, gueiago billatzen dedala guda gauzeen zucenvidea, nere osasunarena baño.

Sellectae Orationes ex Q. Curtii. Lib. III. c. 5.

[9]

Alexândroren Izqundea bere eritasunean bere Adisquide, ta sendaguillai

Ex Quinto Curtio. Lib. III. Cap. V.

Ycusten dezute, nolaco esturan, ta cein larri ipiñi nauten nere gauceen zori charrac. Deritzat enzuten nagoala etsai-armen ospe ta iscanbilla lazgarria. Igaro diran egun dontsu, ta obeagoetan ni neú izandu nintzan eman nituena guerraraco dei, ta videac; neronec circatu nituen etsayac cetocen, berriz orain aupacada dabilta, deitcen naute; nere atzean dacustaz, ta aurrerenac dira nere lotsagarri gueyagoraco. Darioc arnasa berriac arturic, bidaldu dizquit carta arro, aicetu, astin, ta lotsagabeac, quiñatzen nauela jabetuco dala nere gauzaaquin. Gucia litzaque alperric, ito bearco luque itz arroa, nere osasunaren jabe banintza, ta nere escuan balego eritasun aú ayenatzea, ta indartzea corputz eri luceac macaldua. Sendagarri macal, indargabe, ta luzapen andia dacartenac, ta oro-bat sendaguille nagui, mucaiz, baldan, ta ardura guchicoac, ez dira nosqui egoqui ta adiutuac nere gaitzarentzat, ta bay largatzeco eri gaissoa ez atzera, ez aurrera, estu ta larriago. Obeto legoquit, ta dontsuago nintzaque eriotzaco ayotz zorrotzac ebaquico banindu nere viotz osoaren jabé naizala, azcor [10] azcor nagoala, ta ez vici lotsagarri onetan eriotza beranduco baten zaí, ecer eguin gabe, alperric. Ala Sendaguilleétan laguntzaric arquitzen bada, beren lánac alper-utsac eypadira, jaquin bezate, gueyago billatzen dedala, ta lenago autatzen guerraco eguizun zucen-videa, nere osasuna ecartzea baño.

Catilinaren Izqueta eder bere Soldaduai zucendua*Salust.*

Ezaguturic daducat, Soldaduac, ez diela itzac guizonai [540] azcortasunic erasten, ta Aguintariaren irauntsi, ta equiñequin ez dala Soldauteguia, nagui baldana bada, pizcortzen, ez da ere beldurtia sendotzen. Berez, ta jatorriz bezala bacoitzac duena, aguertuco du escuetara datorrenean. Alperric jardun ta equingo diozu, irriscu, ta icen onac iguitzen ez duenari. Biotzeco beldurrac concortzen ditu belarriac.

Deitu zaituztet bada cer eguin bear dezuten adierazteco; baita ere ezaguera-citzeco cer erabaqui dedan, ta onen arguividea. Lentuloren naguitasun, ta lotutasunac cembat calte, ta eriotza ecarri digun gucioi berez ostean, badaquizute, Soldaduac, ta nola Uritic laguntza ichedoten nengoan artean, ecin joan nindequean Galiara. Gogoia iduquia gatic, daude eragozpen garaitu ecinecoac. Eragozten digute Soldadu aldrea andi bic, bata Uricoac, bestea, Galotarrenac.² Au ezagutzen dezute zuec nic bezala. Bestetic ogui ta gauza gucien eza, ta gabea degu. Nora nai joan, burni zorrotzac idiqui bearco du vide.³ Orregatic zaudete prest, ta sendó, ta esetsi bear diezunean etsaiari, escuratzen ceraten unean, oroi zaitezte zuen escuietan daramazquitza ugari ondasunac, icen ona ta erri ascoren doatsutasuna, ta cate gabeco vicitza; guciez jabetuco guera; nai ala jan izango degu; aguertuco zaizquiguz ala arrotzac, nola locarri gabe vici nai duteen errietacoac, agur onac eguin, ta esquerrac ematera. Baña beldurrac azpiratzen bagaitu, concortzen baguera, beste soñu bat enzun bearco degu; gauza guciac gora-beratuco zaizquigu. Estaldu, ta gordeco ecingo [*sic*] dituzte, ez adisquideac, ez erriac, burni odoltsuac gordetzen ez dituenac. [541]

Onezaz gañetic, Soldaduac, ez da aien ta gure jocoa berdiña. Guc billatzen ditugu guere cateac urratzea, guere vicitza, ta erriaren Zoriona.⁴ Etsaiac berriz jarri bear dira vicitza galtzeeco irriscuan, esquiñi bear dituzte beren bularrac burni zorrotzari guchi batzuen aguintia gatic. Equin bada, equin, esetsi zaiozute portizqui, azcór, ta pizcór, gogoratzen ceratela lengo eguicarietan aguertu dezuten biotzeco nausitasuna. Igaro dezute lotsatzeco erbestetasun, ta deserritze astuna. Zuen arteco batzuec egon cerate Erroman iñoren ondasunen zai bezala, norc cer eman, zeuenac galdu ondoan. Beste guizonac ceucaten lotsagarri, ichusi, ta igarro ecintzat artu cenduten muquertasun gabe. Larga nai badiezu guerraco burni odolgueroi, loitu bearco dezute icen ona billauqueriaren videz. Ezdu inoiz iñorc

² Esaldi honek zerbait falta dau zentzun osoa eukiteko: zer eragozten daben Soldadu-aldrok: T: *Eragozten digute ecer eguita...* P: *Eragozten deuscube ecer aurreratutia...*

³ *burni*. ms: *burri*.

⁴ Aditz nagusi legez *degu* eskatzen dau komuntadurak, ez *ditugu*.

Catilinaren Izqueta erreguzcoa bere Soldaduai.

Ex Salustio

Ezaguturic daducat, ene Soldaduac, ez dirala itz soill, ta utsequin azcortcen, ta pizcortcen guizonen biotz erori, ta macalduac. Soldautegua, nagui ta buru-zalea bada, leena gueldituco dá, erausi, jardun, ta equin guciequin. Iguituco ez dá ecer-tara. Esan zayozu nai al gucia; ez diozu viotz berriric, ez sendotasunic erantsico beldurti bati. Beti izango dá icaracor, chaldan, ta gauza eza. ¿Irriscu ta icen onac indartzen ez duena, nola indartu itzen ots, ta soñuequin? Belarriac mimberatcen dira biotz sendoa ez dagoanean. Alperric zapalduco dezu itzez, ta oyuz Soldadu erquin, coldar, ta milicatua; ez du cirquinduco ondo esanac, ez aguiraca gogorrac. Berdin berez bear du, ta jatorriz becela ecarri biotzeco azcortasuna.

Deitu zaituztet bada, ó ene Soldaduac, itzcho bi esateco, ta certaraco dán adie-razotzeco. Etzaudeté azturic cembat naígabe ta calte ecarri cizquigun, bere burua-renzat ere caltegarria izan dan Lentuloc, bere naguitasun, macaltasun, ta ardura guchiaz. Baciñaquien, nola Uritic lagun [11] berriac ichadoten nengoan artean, ecin joan izan nindequeala Galiara. Berriz, nic becein ondo dacutsute, nolaco estura, ta aurreratu eciñean gauden orain. Eragozten digute ecer eguitea bí Soldadu talde izugarric; bata datorquigu Uritic, ta bestea Galiatic. Gogoa baguenuca, ta erabaguico baguendu emen guelditcea, ¿nolaco eragozpenac ogui, ta gauza gucien gabe, ta ezaz? ¿Cér bada? ¿Macaldu, larga guciari ta iguesa artu, ardi beldurti, icaracor otsoaren arnasa usaitzen, ta zauca enzuten duténac becela? Ez orre-lacoric, ez. Bearretic indarra artu bear da: estuan indarrac atera. Nora nai joan, neurdin burniarequin idiqui bearco degu videa. Zaudete bada prest, guertu, ta sendo etsayequin escuetara eldu bear-dezuten orduraco. Oroí zaitetze, gogora ecarzute zuen escuietan daramazquitutela ondasunac ugari, zuen Icen, ta izaite ona, erri ascoren dontsutasuna, ta vicitzaco cate locarrien urramentua. ¿Cer nai dezute gueiago? ¡Garaitzen, ta menderatzen baditugu, gure zori ona! Gucien jabe eguingo guera. Jaaná, nai al gucia, ta bestean, catearic ezagutu nai ez duteen erriac, ta arrotz ezagutzen ez gaituztenac ere, irtengo digute videra; ezarrico dira gure besóetan laztan estuequin, eguingo dizquigüez agur gozo, ta escumuñ estu estuac; enzungo degu esquer ascoren soñu ederra, ta Catilinaren Soldaduen Icen ona zabalduco dá lurreco bazterretaraño. Baña beste soñu bat enzun bearco degu, beldurrac macaltzen bagaitu; gauza guci oéc goibetu, ta buruzberatuco dira. Burniac zaitzen ta gordetzen ez dituenac, gordeco ecin dira, ez errien ez adisquiden videz.

Oezaz gañetic, ene Soldaduac, ez da berdin ta orabatecoa ayen ta gure Zoria. Gu gabilta catea ta mendetasun lotsagarri bat urratzen; arnas lasaia billatzen; guc nai ditugu eguin zorioneco, errietacoac; ta azquenic dijoaquigu vicitza bera. Etsa-yac berriz ez [12] dute guc bezelaco ceri oraturic, ez cerc ambeste azcortu. Baca-

guerra paquera aldatu, garaituaz baicic. Garaitzalleac ipiñico ditu muga, ta legueac; aguintari izango da. Irichi, ta ichedon nai badezute osasuna iguesaren videz,⁵ ta burni guerracoac etsaien beguetatic alderaturic, zorotzat emango zerate. Beldurtiac beti arquitzen dira irriscu andian etsaiequin escura datozanean. Azartasuna da muru orde, orma sendoa. Zuetan beguiac ezartean, Soldaduac, ta azertuaz zuen eguicari onragarriac, garaitutzat dauzcat etsaiac. Zuen urte ederrac, viotzeco prestutasun, ta azcortasunac neu pizcortzen, ta sututzen naute; berriz premia, estuac, ta besteric ecin eguiñac, beldurtiac ere sendotzen ditu. Inguratu ez gaitzaten etsaien pillo andiac, galeracitzen du toquiaren estutasunac. Zori onac igues eguiten badio zuen azcortasunari, ez dezute orregatican epeldu bear, ezda ere [542] eriotza eman macalqui; eriotza emanaz, eriotza artu bear da; guerta ez didin etsaien escuetan erorita ardien guisaan zatitu, ta purrucatuac izatea. Obé da guizonquiró burnia erabilliaz ematea etsaiac guerra irabazte gorá, odoltsu, ta negargarria. *Sellectae Orat ex Sallust.*

⁵ Lehenengo *badezu* idatzi dau, eta ondoren gainetxoan *te* erantsi, ondoriotzat *dezute* emonez.

rric billa lezaquete guchi batzuen ondo izatea. Beragatic bada, equin equin, ez oñic atzeratu: jayo dedilla berriz ta berriz gure biotcetan azcortasun ta pizcortasuna. ¿Aztu ote zerate lénagoco egun zorionecoetan aguertzen cenduten jabetasun ta beldurric eza? Igaro cenuten bai lotsagarria zan deserritze, ta erbestetasun gogaitgarria. Zuen arteco batzuec, ondasun guciac galduric, ebilli dira Erroman escumuñac eguiten, ta buruz bera ichedoten besteen batzuen ondasun apurrac. Ascoc gauza ichusi, gaitzirritzi, ta igaro ecintzat ceucaten, igaro cenduten issilchoric. Larga nai badiezu guerraco burni zorrotzai, artu bearco da billauqueriaco arma motz, ta lotsagarria. Paque zucen, ta irauncorra billatu bear da, etsayai eracutsiaz arpegui azartu ta sutsua. Garaillariac ipinten ditu mugac, ta aguindu cer eguin. Macaltzen danac artu bear du ematen zayona. Osasuna billatcea iguesa artuaz, eraqueria andia. ¿Corputza zaitzeco eguin diran erremientac macurtu, ta bératu etsayei? Beldurra bera baño irriscu aundiagoric ez da. Azartú, azcór, ta biotz sendocoa danac, berequin darabill muru, edo orma lodi, burniric gogorre-nac barrenduco ecin duena. Nere beguiac daramazquidanean zuec ganontz, Soldaduac, ta aztertzean nere artean zuen anciñaco eguicari sinisgaitz, ta miragarriac, uste det escura dacartela etsayen galtzapena, ta gure jauntasuna. Zuen urte gaztén sendotasunac, biotzetaco prestutasun, ta azcortasunac portitzten, ta pizcortzen naute ní. Berriz estuac, larriac, ta besteric eguin ecinac, beldurrienac biotz anditzen ditu. Inguratu ez gaitzaten etsai pilloac, galerazotzen du toquiaren estutasunac. Zuen azcortasunac bere alde ezpadu zori ona, gorde zaitzete vicitza galtzeaz merque, edo doaric; guerta ezdidin etsayen escuetan erori, ta ardi icaracor ta argalen guisan zatitu, ta gañibet pean azqueneco arnasac odol utsituric ematea. [13] ¿Cembat obeago da guizonquiró etsayen sayetsetan zuen burniac sarturic damu ematea beren irabaciaz, dacustenean, cein gora irten dien gure triscantza berai ambeste odol issurieraci diena?

Exordio de la Oracion I^a de Marco Tulio en el Senado contra L. Catilina

¿Noiz artean azquenic, Catilina, artuco dituzu bideac gure issil egotetic cere asmo galduetaraco? ¿Noiz arteraño onaco zure aserreac iduquico gaitu iraaquin gabe?⁶ Ce asmotaraco jaiquico da zure lotsagabequeria? ¿Etzinduzten iguituco, ez atzeratuco zure gogo gaiztoetatic, Palatinoco mendico gaveco Zaillac, errico guizon gordetzallac, ez erricoen beldurrac, ez on gucien alcartasunac, ez Batzaarrac biltzeeco eguiña dan toqui sendotu oneec, ez enzun, ez ecusiac? ¿Ez diozu igarten ezagunac dirala zure asmoac? Ez dacutsu gucien ezaguerara eldu dala zuc jaso nai dezun machinada laster urratzeco cegoana?⁷ ¿Nor dagoala deritzazu gure artean ez daquianic nolaco arazoac erabilli dituzun igaro dan urreneco gavean, non egon ceran, nolaco lagunac bildu dituzun, ta cer vide artu cere asmo galduraco?⁸

O egunac, o oiturac! Batzaarrac au badacus; Beguiraleac ezagutzen du. GuCIAZ ere vici da Catilina. Vici da? Gaiztoago dana; aguertu da lotsa gabe Batzaar onetan.⁹ Ematen zaio escua erabaquitzeo, edo bere iritzia emateco beste Aguintariac bezala. Egozten dizquigu bere begui malmutzac, ta marcatzen dabill gure arteco ill bearco duteenac. Uste degu baña guc cerbait eguin degula Errepublikaren alderaco, gordeaz [543] guere buruac onen aserre, ta burni odoltsutic.

Orain baño leenagotic, zuc Catilina, galdu bear cenuan vicitza gaizto ori, Beguiralearen aguinduz, ta eguin zurequin, zuc gurequin eguitea asmo dezuna. Araco guizon ain ezagun P. Scipio, Guraso Nagusiac, guc beste escuvide etzuela,¹⁰ illeraci zuen Tib. Gracco, Errepublikaco paquea galtzen zuelaco cerbaitean,¹¹ ta guc, izanic Beguirale escu osocoac, largaco diogu viciric, ille bat ere quendu gabe, lur-bira gucia suz, ta burniz deseguin nai duen Catilinari?

Largatzen ditut bada aitatu gabe eguicari zaarreguiac,¹² nola Q. Servilio Ahalac ill zuen bere escuz Sp. Melio, oitura berriac sartu nai izan zituelaco.¹³ Izan zan, bai, izan zan beste egun batzuetan legue zucena Errepubliaca onetan, ceñen videz, guizon benetacoac ciranac, beren etsaiei baño gastigu latzgarriagoac ematen cizten erri-caltegarriac ciranai. Badaucagu zure gañean, Catilina, Batzaar<r>eco erabaquia, ta ez chiqui, ta macala;¹⁴ badituzte Errepublikac arrazoiac, ta escuvidea emen bildu diranac; baña gu, diot lotsa ta estalqui gabe, gu guera, beguiratzeco ipiñiac gueranoc, macal, gauzaezac, ta eranzuten ez diogunac guere cereguiñari.

⁶ Herri-esapide adierazkortasun handikoa, *iraakin gabe iduki*, 'haserre bizian' adierazoteko. Beste bertsinoetan leunago: *ain lotu ta makal* (P), *garabiltzala lotsagarriri siñuka bezala* (T).

⁷ P: *urratu agiñik*.

⁸ P: *nortzukaz lagundu, ta ze bidetzuk artu...*

⁹ P-ko testua T-koa baino hurrago: *Begiraliak bazau. (...) Dongago dana, agertu da lotsa бага Batzaar onetan*.

¹⁰ P: *eskubide andi бага*.

¹¹ P: *Errepublikari kalle erdi bat egin eutsalako*.

¹² P: *jazoera zarregijac*.

¹³ P: *ekandu barrijak sartu gura izan zitubalaco beste бага*.

¹⁴ P: *Batzararen epai astun ta bizkorra*.

Ciceronen I^a. Izqueta Batzaarrean eguiña Catilinarean contra.

Cicer. Orat. I. In Cati. In Sen.

¿Noiz arteraño gueroenean, Catilina, gaiztoagotuco zera gure onegitasunaz? ¿Ceimbat egun dá zure aserre videgabeac garabiltzala lotsagarrero siñuca bezala? ¿Ceri ta certara zure lotsagabequeria mugaric ez duena? ¿Etzinduzten igüitu, ta gaizqui eguitetic atzeratuco Palatinoco gau-zaillac, ez erria gordetzeco zeudenac, ez Uricoen beldurrac, ez on gucien alcartasunac, ez Batzaar toqui ain sendotuac, ez oen itzac, ez arpeguiac? ¿Ez diozu igarten aguirian daudela zure asmoac? ¿Ez dacutsu guciac daquitela, zuc jaso nai izan dezun machinada laster urratzeco cegonana? ¿Nor dagoala, deritzazu, gure artean ez daquianic, nolaco arazoetan ebilli ceran igaro dan urreneco gabeac, non egon ceran, nolaco lagunac bildu dituzun, ta cer gogo artu dezun?

¡O egunac! ¡O oiturac! Batzarreac au badaqui; Ondocusleac badacus. ¿Guciaz ere vici da Catilina? Vici da. Gaistoago dana, badator bera Batzarrera; ta ematen zayo escubidea erabaquitzeac emen aitatzen diran gauzétan. Egozten dizquigu bere begui malmutzac, ta marcatzen ditu gure artean nortzuec ill bearrac diran. Uste degu baña cerbait eguin degula Tal-[14] degauzaren oneraco guc, guizon sendoac, gordeaz guere buruac onen aserre, ta burni odoltsutic.

Orain baño lenago eriotzara bialdua izan bear zenduan zuc, Catilina, Ondocuslearen aguinduz, ta eguin zurequin, gurequin zuc eguin nai cenduan calte ber bera. ¿Cér, araco guizon andi Publio Scipion Apaiz Nagusiac, guc adina escubide etzuela, illeraci zuen Tib. Graco, erdiquiro baño caltetu etzuela Taldegauzaren on izatea; ta guc, Ondocusleoc, largaco diogula paquean lur-bira gucia su ta burniz ondatu nai izan duen Catilinari?

Uzten ditut bada aitatu gabe eguicari zaarreguiac, nola Q. Servilio Halac ill zuen bere escuz Sp. Melio oitura berriac sartu nai cituelaco. Izan zan bai, izan zan beste egun batzuetan Taldelur onetan escu zucena, guizon sendoac etsai aguiriac baño gastigu latzgarriagoaquin menderatzen cituztenac erritar caltegarriac. Bade-gu, Catilina, zure contra Batzarreco erabaqui portiz, ta macaltasun gabea. Badu Taldeaguenteac arrazoya, baita ere gure artean orretaraco escua. Baña gu, diot estalqui gabe, gu Ondocusletzat ipiñiric gaudenoc guera macal gauza ezac, ta gaizqui eranzuten diegunac gure Eguinvideai.

Exordio de la IIª Oracion del mismo contra Catilina

Azquenic noiz edo noiz, o Jaunac, edo bota degu nai ta ez, edo bidaldu degu, edo irtetzean agur eguin diogu itzez araco lotsagabe, azartu L. Catilina oquerra baicic arnasatzen etzuen ta Uri gucia izurritzen zuena asmo gaiztoen videz. Joan zan bai, ezcutatu zan gure beguietatic, aldeguin du, egorritu da gure zorionean. Ezdu onezquero erri-orma, edo muru barrumbe oetan gueiago iscambillatuco, ez beste calteric eguingo Gaizta-[544] guiñen arteco Erraldoe icaragarri onec.¹⁵ Garaitu degu benetan erri barreneco machinarien Buru nausi au. Ezda ecusico ez emendican aurrera gure saietsetan bere Cañibet eriotzguiñ, ta odolez ugartua. Ez gaitzacoz beldur izango, ez Marteren Campoan, ez Batzaar barruan, ez beste Aguintarien Enzuteguiuan, ezda ere echeetaco orma arteetan.¹⁶ Erori da gaizto ura gaizqui cegoan toquitic Uritic quendu degunean. Aurreracoan eguingo diegu etsai ai guerra zucena, inoc saldu, ta eragotzi gabe, ta aguirian. Eguiaz, ta zorionez galdu degu guizatasun gabeco guizon bat, ta galdu degu ezcutuca gabe, ta vide ezagutuz, issil-toqui celatacoetatic ateraeraci, ta bota degunean lapur ezagun, andi, ta agui ri izango dan lecura. Nolacoa berriz deritzazue izango zala bere biotzeco naiez, atsecabe, ta astuntasuna irten duelaco bere asmo galgarriac bucatu gabe; bere burni ondo zorroztu zuena nai bezala odoldu gabe; irten duelaco gu viciric largata; guc, bere Cañibet eralea bere escuetatic aterata; Uricoac osasun ederrean, ta Uria bera osoric, ta calte gabe guelditu diralaco? Etzanda dago orain auspezturic, ta bururic jaso ecin duela; ala ere ezqueltzen ditu burupetic bere begui odoldu, sutu, ta amorruez iraaquiñac, egozteco noizean bein Uri onetara, darizquiola malco mimbera, ta goriac, bere atzapar piztia odolzaleen guisacoetatic irten, ta gorde gualaco; ta vitartean Uri au pozez bete ecinda dagoala dirudi, trocatu, ta atera duelaco campora bere barren ta erraietatic Izurri cital, ta caltegarri ura. [545]

¹⁵ P: Ez dau onezkeru kalteric egingo Erriko orma barru oneetan inor ez legeko Gaistotzar ak.

¹⁶ P: ez Auzitegijan, ez Batzaarreko Aulkijan, ezta bere geure etxeetako orma barrubetan.

Ciceronen Izqueta II^A. Catilinen contra.

Azquenic noiz edo noiz, Erromaco Jaunac, bota, ayenatu, ta erri-egorritu degu Lucio Catilina gaiztaqueriaren gose zana, gure jayoterra izurritzeco asmatzen cebillena, zuec, ta Uri au cemaitzen cituena, sú ta odol eramateaz; ta emendic irtetzeco uanean jarraitu [15] diogu atzetic agur betico bat eguitera. Joan da, irten du, igues du gure escuetatic, ta ezcutatu gure beguetatic. Ez du onezquero guiza charar, ta gaiztaguillen Guiari, ta Erraldoe onec gure Urico orma barrumbean calteric ecarrico. Garaitu degu bai nosqui Eche baralla, edo guerra onen Buru bacarra. Ez ditu gure saietsaldeac barrenduco bere Cañibetac. Ez gaitzacoz bada orain beldur ez Marteren Campoan, ez Batzaar onetaco Aulquian, ez beste Aguintarien Aditzañean, ez ta ere gure echétaco ormeen artean. Quendu degu igo bear etzuen toquitic, Uritic atera degun une berean. Emendic aurreracoan esetsi, ta equingo diegu etsayai aguirian ta zucenqui, norc galerazo ez dagoalaco. Benaz benaz galdu degu guizon chár ura, ta garaitu degu andiquiró, aterá degunean ceuzcan illumbe, ta issil-abia zelatacoetatic, lapur andi, aguertu, ta ezaguna izango dan lecuetara. ¿Nolacoa berriz deritzatzue izango dala bere atsecabe, damu, ta biotzeco amorrua irtenduelaco bere asmo galgarriac bucatu gabe, bere burni odolzalea jaso gabe, asmatzen zuen bezala; irten duelaco gu viciric largata, atera diogulaco bere atzaparretatic cañibet zorroztua, erricoac guelditu diralaco osasun onean, ta utzi duelaco Uri au zutic lurreratu gabe? Datza auspezturic orain, Erromaco Jaunac; ezagutzen du bere zauri andia, ta eroritasuna; ta noizean bein buruz bera dagoala egozten ditu eguiaz bere begui gaizto, ezquel, ta aserrez goritu, ta gorrituac Uri onetara, dariozquiola ernegu, ta amorrusco malcoac irensten larga etzayolaco; ta deritzat gure Erria pozez bete ecinda dagoala, bere erraietatic aterá, ta trocatu duelaco izurri ain andi, ta eriotzearlea. *Oracio II. in Catilinam.* [16]

Germanicoren Izcundea Soldadu machinatuai¹⁷*De Tacito, Anal. Lib. I¹⁸*

Nere emazte ta nere Umeac ez ditut maiteago nic nere Aita, ta Erria baño. Baña nere Aitac arkitzen du burua gordetzeco videa bere Anditasunean, ta Erromaco Aguintaritzac (*Imperio*) arkitzen du paque, ta sendotasuna bere Soldau moltsoetan.¹⁹ Zuen ondo izate, ta icen ederra balego nere emazte, ta Ume gajoac galtzean, ipiñico nituzque nic edocein irriscutan.²⁰ Baña ezcutatu ditut zuen aserre gogorretic, zuec zorroztu ta prestatu dituzun cañibetac bacarric sartu ditecen nere bularrean, nere odola issuriric ase albacindizque, gueitu gabe zuen gaiztaqueria eriotza emanaz Augustoren Billoba (*Pronepos, o Biznieto*) ta Tiberioren Errañari. Noraño bada eldu da zuen aberetasun Ceruraño dei eguiten duena? Ce icen emango dizuet?²¹ Soldauena? Inguratu dezuen ezquero arrapatzeco indarrez zuen Aguintari andiaren Semea? Erritarrena? Osticopetu dezute Batzaarra bere escuvidean. Ezdiezu eceri lotsaric gorde, ez gendeen arteco legue artuei,²² ez Bialquiñai (*Embaxadores*), ez etsai. Ygaro ciran egunetan Julio Cesarrec, paquetzeco bere Soldaduen artean jaiqui zan machinada osoa, etorri nai etzuteela bere esanetara,²³ etzuen bururic ausi, ez mihia moteldu, ez eztarriric latztu jardun luceaquin; bacarric aitatu zuen zoli zoli icen au, *Errromaarrac!* Eta beingoan paquetu ta etorri ciran bere escura. Augustoren Arpeguiera, ta beguirraune itzaltsuac ipiñi cituen Accion [546] arrituric ta icaragorrian Soldau aldra machinatuac. Ezagutzen det ez naizala berdintzecoa guizon andi oequin;²⁴ baña nator beren odoletic. España, edo Syriaco Soldaduac eracutsi ta eguin balidate videgabe latzen bat,²⁵ igarocorra izango zan neretzat; ez nintzan arrituco, ez aserreco chit bat ateraco nuen.²⁶ Baña zuec, lenengo, ta ogueigarrengo Soldau-moltsoac,²⁷ artu ezquero ambeste ontarte Tiberioren escuetatic,²⁸ batorrec Banderac, ta besteoc bere lagun izatea ambeste gudatan,²⁹ ta ain saristatuac, esquer onac ematen dizquiotez Tiberio beraren odoleco gaizquiric eguin ez dizuenari. Cein berri ederrac emango dizquiote nere Aitari beste lecu ascotatic onac, ta obeac baño artezen ez cituen

¹⁷ P: *Jermanikoren berba-jarduna...*¹⁸ P: *Ex Tacito Lib. I.*¹⁹ P: *bere Arma-gizon askotan.*²⁰ *Nituzke.* Lehenengo *nituzque* idatzi eta gainetxoan z erantsi. Izan ere P-n *nituzque* darabil, Mogelen bizkai sortaldeko bizkaieran ohi dan lez.²¹ P: *emon neizube.*²² P: *jente zuzenen arteko lege artubei.*²³ P: *etorri gura ez ebeela bere esanik egitera.*²⁴ P: *Bazaut ez nasala bardindutea...*²⁵ P: *bidebaga damugarriren bat*²⁶ P: *ez aserrek agertuko neban, ez txit bat atera.* T-k ere: *ez nuen aserrez txist bat aterako.* H-k esamodu diferentea dakar: *aserreko txit bat.* Mogelen hizkeran errazago espero geinkean: *aserrezko* adnominala.²⁷ P: *Soldautziak.*²⁸ P: *ainbeste mesede.*²⁹ P: *ainbeste esetsaldi, edo batallatan.*

Germanicoren Izqundea Soldadu machinatuai.

Ex Tacito. Anal. lib. I.

Nere emazte, ta nere Umeac ez ditut maiteago nic ere Aita ta Erria baño. Baña nere Aitac arqitzen du burua gordetzeco videa bere Anditasunean, ta Erromaco Aguintaritzac (*Imperio*) badu paque ta sendotasuna bere Soldadu Taldeetan. Zuen ondoizate, zorientasun, ta icen ederra balego nere emazte, ta ume gaissoac galtzean, ipiñico nituzque edocein irriscutan. Ordea ezcutatu ditut zuen aserre gogorretic, zuec prestatu ta zorroztu dituzuten Gañibetac sartu ditezecen nere bularrean, nere odolean, ase albalidi zuen gorroto muga gabea, gueitu-gabe zuen gaiztaqueria eriotza emanaz Augustoren Billoba, ta Tiberioren Errañari. ¿Noraño bada elduda zuen aberetasun, edo guizagabetasun Ceruraño dei eguiten duena? ¿Cer icen emango zaitzu? ¿Soldaduená, inguratu dezuten ezquero, arrapatzeco indarrez zuen Aguintari andiaren Semea? ¿Erritarrena? Osticopetu dezute *Batzarrea* bere escu bidean. Ezdizote eceri lotsaric gorde; ez gendeen arteco legue artuei, ez *Bialquiñai* (*Embaxadores*) ez etsayai. Igaro ciran egunetan Julio Cesar-ec, paquetzeco bere Soldaduen artean jaiqui zan iscambilla, ta machinada osoa, etorri nai etzutela bere esanetara, etzuen bururic ausi, ez mihia moteldu, ez bere eztarria lastu jardun luceaquin: bacarric aitatu zuen zoli itz au, *Erromarrac*; eta beingoan paquetu ta etorri ciran bere escura. Augustoren arpeguiera, ta beguirune itzaltsuac ipiñi cituen (*Accion*) arrituric, ta icaragorrian Soldadu aldra machiñatuac. Ezagutzen det [17] ez naizala berdintzeco guizon andi oequin; baña nator beren odoletic. España, edo Siriaco Soldaduac eracutsi, ta eguin balidate videgabe chararren bat, igarocorra izango zan neretzat; ez nintzan arrituco, ez nuen aserrez chit bat ateraco. Baña zuec, lenengo ta ogueigarrengo Soldadu taldeac, artu ezquero ambeste mesede Tiberioren escuetatic; batorrec Banderac, ta besteac bere lagun izatea ambeste gudatan, ta ain saristatuac, esquer ederrac ematen dizquiotzute Tiberioren odoleco gaizquiric iñoiz eguin ez dizuenari. ¡Cein berri onac emango dizquiot nere Aitari beste lecu ascotatic onac baño obeac artzen dituen orduan! Jaquinerazo bearco zayo, nola bere Soldadu zaar ta berriac aspertzen ez diraden, asetzen ere ez, ez diruac artuaz, ez beren echeetara joateco auquera emanaz: emen bacarric billatzen dala eriotza ematea; Euntaria (*Centurion*) urrutitzea; Errico Buruzaiac gatigatzea, ta galtzea Batzaarreco Ecautuac (*Diputados*) celai ta ibarretan basatu dala luurra Erromarren odolarequin; ta salgai dagoala nere vicitza gorroto didaten etsayetan. Ori eguin bear bacenduten, asmo orietan bacembilzaten ¿céraraco quendu cindaten escuetatic araco Gañibet nere bularrera neuc neramana, bularra barrentzeco, nere izcuntzaco lenvicico egunean? ¡O adisquide gaizqui beguiratu, ta erruqui gabeac! Obeto eguin zuen, ta maiteago ninduen, ordu artan Gañibeta esquiñi cidanac. Illco nintzan edolaric jaquin gabe nere Soldaduen ambesteco gaiztaqueria. Autuco cenduten beintzat nere ordeco Buru bat, nere eriotza guiñen atzean ebillico etzana, ta bai bacarric iru Soldadu

orduan! Jaquinerazo bearco zaio,³⁰ nola bere Soldadu zaar, ta berriac ez diraden aspertzen ta asetzen, ez diruac artuaz, ez echeetara joateco auquera emanaz; emen bacarric billatzen dala eriotza ematea Euntariac, urrutitzea errico Buruzaiac, gati-gatzea Batzaarreco Ecautuac;³¹ zelai, ta ibarretan basatu dala luurra Erromarren odolez, ta salgai daucadala neuc ere nere vicitza icusi ecin nautenen escuetan. Ori bear bacenduten, asmo orietan bacenbilzaten, certaraco quendu cindaten escuetati Burni neuc neramana nere bularra idiquitzera nere Izcuntzaco lenengo egu-nean!³² O adisquide gaizqui begiratu ta erruqui gabeac! Obeto eguin zuen, ta mai-teago ninduen, ordu artan Cañibeta bera esqueñi cidanac!³³ Ilco nintzan edolaric jaquin gabe nere Soldaduen ambesteco gaiztaqueria.³⁴ Autuco cenduten beintzat nere ordeco [547] Buru bat, nere eriotzaguñen atzean ebillico etzana,³⁵ ta bai bacarric Varo, ta iru Soldau pilloren eraleac billatuco cituena oen eriotzac damueracitzeco. Ez dezala Jangoicoac nai arrotzea inoiz Belgiacoac,³⁶ ceintzuec esquintzen dauden laguntasuna, esaten duteela gure lotsagarriraco:³⁷ “Erromarrac gure bear izan ciran beren estualdietan; zerabilzaten etsaiac larri, ta garai-tuaguinic. Deitu ciguten erreguz bezala; ta gure laguntza prestuarequin, gure indarrequin, jaso zuteen macurturic cerabilten burua”.³⁸ Ez, ez; ez degu iñoren bearic; Augusto, beecoa baño gueiago cerana goicoa, Druso, nere Aita: eratsiric daude oraindican zuen irudiac Soldauen biotzetan. Beste gabe lotsa ta damuac aldatzen asi dituenequin, diot, deseguín bear degula lotsaari au, quendu guere icen onari ezarri diogun cetaca, ta ugarra, ta izan degun errierta au izan didin etsai berentzat caltegarria.³⁹ Berriz arpegui ta biotzetan aguiri dezunoc eguñaren atsecabea, nai badiozcatzu eman Batzaarrari bere Bialquiñac, Aguintari nausiarior zor diozuten mendetasuna, niri, nere emazte, ta umeac, aldeguin zazute gaizto naastzalle orietatic,⁴⁰ ta atozte nere aldera. Au izango da zuen damu, ta leialtasunaren bairic ederrena.⁴¹

³⁰ O: *Jakin eragin biarko jako...*

³¹ P-k: *Emen bakarric billatuten dala eriotzia emotia, Euntarija urrundutia, Agintarijak galdutia, katigu imintia Batzaarreko Ekautubak. Esaldia hurrago dago T-kotik.*

³² Izkribu honetan ilunago eta gaztelaniaren sintaxira obenduago dago esaldi erlatibo hau beste bietan baino (P, T).
P: *neure bularra edegitera neroian burdinia berba egiteko lenengo unian?*

³³ P: *maietasun geijago erakutsi eustan ordu atan Burdina zorrotzuba eskiñi eustanak.*

³⁴ P: *billaukerija ain eskegria.*

³⁵ P-k erlatibo adjektiboa: *beste Buru neure eriotzaguñen atzian ibilliko etzana.*

³⁶ P: *Belgiarrak buru arruak erabilitia.*

³⁷ H eta P-ko esaldia hurrago T-koa baino. P: *esaten dabeela gure lotsagarrirako. T: ta esatea gero gure lotsagarrian.*

³⁸ H-k, T-k legez, pluralez: *ta gu lagun gendubezala, gure indarren bidez, jaso zituben makurturik erabillezan burubak.*

³⁹ P, adizkian T-tik hurrago: *ta euki dogun errierta berau izan dedilla kaltetsuba geure averijuentzat.*

⁴⁰ P: *aldegizube donga atralahari bakegaltzalle orreetati.*

⁴¹ P: *bai ta ezagugarririk ederrena.*

pilloren eraleac billatuco cituena, oen calteguiñ, ta eriotzac damueracitzeco. Ez dezala Jaincoac nai inoiz Belgiacoac buruac arrotzea, esqueintzen daudelaco laguntasuna, ta esatea guero gure lotsagarrian, "Erromarrac gure bear izan ciran beren estu-aldietan: ce-[18] rabiltzaten etsayac larri ta garaituaguiñic; deitu ciguten erreguz bezala, ta gure laguntza prestuarequin, gure indarrequin jaso zituzten macurric ceuzcaten lepoac". Ez, ez, iñoren bearric ez degu. Zu Augusto, lurrecoa baño Cerucoa gueyago cerana, Druso, nere Aita, zuen irudiac ichatsiric daude oraindican Soldadu oen biotzetan. Beste gabe, lotsa ta damuac biureracico dituenquin, diot, deseguin bear degula lotsaari au; quendu gure icen onari ezarri diogun cetaca, ta ugarra; ta emen jaiqui dan ospe ta errierta bera izan dedilla etsayentzat caltegarria. Berriz aurpegui ta biotzetan aguiñi dezutenoc eguiñaren atsecabea, nai badiocatzute eman *Batzarrari* bere *Bialquiñac*, *Aguintari Nagusiari* zor zayon mendetasuna, Nirì nere emazte ta umeac, aldeguin zazute lenago asmo gaiztoetan dirautenen albotic, ta atozte nere aldera. Au izango da zuen damu ta leyaltasunaren bairic ederrena.

Scipionen Izqueta Nagusi gazte bati

Tito Livio. Lib. XXVIII^o.

Zu ta ni, bioc guera gazteac, ta ez naiz lotsatuco nere gogoco berriac aguer-tzeaz. Ecarri didatenean nere aurrera beste gatiguen artean arquitzen zan zure emazte-gaia, jaquin det guciz asco onestzen, ta maitatzen cenuela, ta bere edertasunac siniserazo dit.⁴² Ezpaneran-[548] bill Errepublicac cereguin ta arazo andi arduracoetan,⁴³ ta beguiratu bear banie nere gaztetasun ta bere griñari, asmo char-tar, ta videgabeco amoreric ez diodan ezquero, artuco nuque neretzat.⁴⁴ Nere escuan, ta nere mendean det, ta nai zaitut bere jabe eguin, ta ez quendu zure amoriarentzat [*sic*] erabaquita cegoana.⁴⁵ Zure emazte-gai au egon da nere echean Aita batenean bezala. Gorde det lotsaric galdu gabe, eguiteco zuri ta niri dago-quigun doiañ eder ta garbi au.⁴⁶ Ezagutzatzat, nic escatzen dizut, izan zaiteala Erromarren adisquidea.⁴⁷ Baderitzazu naizala ni guizon zucen, on, ta prestua, nolacotzat egon ciran beste egunetan, ta erri oietan nere Aita, ta nere Osaba, jaquin zazu, badirala ugari Erromaco Urian gure irudicoac, ta ezdagoala lurraren gañean beldurgarriago bat etsaienzat, ta maitagarriagoric adisquideentzat.

* * *

⁴² P: *gutziz asko gura zeuntsala, ta bere edertasunak sinistu eragin deust.*

Onetsi, euskara zaharrean *oneretxi* | *oneritzi* aditzek eben balio berberaz darabil, 'maite izan, gura izan'.

⁴³ IS honetan /Iz + Adj + Adj (Iz + -ko)/ egitura dogu: *arazo andi arduwako*. P eta T-n, ostera hitz berberok modu egokia-goan josi ditu, ISren egitura eta zentzuna aldatuaz: *arazo ardura andikuetan* | *andicoetan* (P 144, T 18).

⁴⁴ P-k ordena bestelakoaz: *artuko neuskezu neuretzat, asmo galdurik ez dodan ezkeru*.

⁴⁵ P-k luzeago: *Neure eskuban dot, bere jaube naz, baina gura dot igaro zugana daukadan jaubetasuna, ta ez kendu zure oniritxi ta maitetasunarentzat erabagita eguana*.

⁴⁶ P-k luzeago: *Ezdeutsat lotsarik galdu, ta gorde dot bere garbitasunaren kalte bago zuri ta neuri dagokun eskintza garbi bat zuri egi-teko*.

⁴⁷ P-k: *Esker orde eskatuten deustut...*

Scipionen Izqueta Nagusi gaste bati.

Ex Tito-Libio. Lib. XXVIII.

Zu ta ni, bioc gazteac guera; ta ez naiz lotsatuco nere gogoco berriac aguer-tzeaz. Ecarri didatenean nere aurrera beste gatigüen artean arkitzen zan zure emaztegaia, jaquin det guciz asco laztantzen dezula, ta bere edertasunac sinisera-zo dit ala dala. Ezpaneranbil Taldeaguenteac cereguin ta arazo ardura andicoetan ta beguiratu bear banio nere gaztetasun, ta onén griñai, asmo videgabeco ta cha-tarric [19] ez diodan ezquero, artuco nuque nere emaztetzat. Nere escuan, ta nere mendean det, ta nai zaitut bere jabe eguin, ta ez quendu zure amorearentzat gor-deric cegoana. Zure emazte gai au egon da nere echean Aita batenean bezain gar-bi ta calte gabe. Gorde det lotsa onean eguiteco zuri ta niri dagoquigun emaitza garbi au. Izan zaitean esquertzú, escatzen dizut izan zaiteala Erromarren adisqui-dea. Baderitzazu naizala ni guizon zucen, on, ta prestua (nolacotzat egon ciran lengo egunetan, ta erri oyetan nere Aita ta Osaba), jaquinzazute, badirala ugari Erromaco Urian gure irudicoac; ta ezdagoala lurraren gañean beldurgarriago bat etsayentzat, ta maitagarriagoric adisqueentzat.

Notas

Hai a la verdad en estas elocuentes arengas no pocas voces no fácilmente acomodables a un idioma hasta ahora nada o poco cultivado. Por egemplo esta voz ‘Republica’ deve subsistir en las versiones que del latin se hagan a otras lenguas, ni sé que se use de otra voz en todos los idiomas de Europa.⁴⁸ Esta voz ‘Senado’ equivale al *Batzaar* de que nos valemos en Vizcaya para denotar una Junta de ancianos, es decir, de varones prudentes autorizados por los pueblos o Provincia.

‘Tribuno de la plebe’ se vierte bien por *Errien buruzaiia*, porque es empleo de gefes veladores del bien de los pueblos.⁴⁹ [49] ‘Centurion’ corresponde a la voz bascongada *Euntaria*, que gobierna, o commanda a ciento.⁵⁰

Legatus, o ‘Embaxador’ por la voz *Bialquiña*; y por ‘Diputado’, *Ecautua*, o escogido para algun negocio. Esta voz ‘Emperador’ se comprenderá por el bascongado con *Aguintari-nausia*, el principal mandon, y al presente esta voz, *Imperator*, y aun *Imperium* tienen otros significados que entre los Romanos, a no ser que se contraiga al Egercito, *Exercitus Imperator*, de donde se acomodó a los Emperadores romanos. La voz *Aguintari nausia* quadra suficientemente al uno y al otro. Asi no hai en estas versiones bascongadas voces usurpadas a otros idiomas, y qualquiera del populacho comprenderá bien las harengas.

Esta voz *Soldadua* es bascongada: su raiz en *soldatá*, o salario, como si digera el estipendiado, o asalariado, connotando a la milicia.

Si el idioma bascongado es o no capaz de elocuencia, y de todas las figuras rethoricas, si pobre en voces familiares, lo dirán estas versiones, y sera la vez primera en que hablen en bascuence los Curcios, Salustios, Tulios, Tacitos y Tito-Livios, Padres de la eloquencia romana.

Me he valido para estas versiones del dialecto guipuzcoano, porque es preciso confesar que, sobre ser más claro, es también más suave, y airoso.

* * *

⁴⁸ Hala ere Tolosako edizioan gutxienez hiru modu diferentara itzulirik agiri da ‘errepublika’: *Taldeaguñtea* (18), *Taldegauza* (14) eta *Taldelur* (14). Inprimaturiko idazketa da, beste kultura-hitz batzuetan be garbizaleena. Zalantza da, ea bereak direanentz hitzbarriok, ala inork ohartuak. Kontrakorik frogatzen ez dan bitartean, beraren uztakotzat jo beharko doguz.

⁴⁹ Testuan, ostera, *errico Buruzaiac* (46) dakar idatzirik, T-n legez (17). P-n hitz generikoago bat: *Aguintarijac* (142)

⁵⁰ Hala ere Mogel da berba hau testuan txertaturik lehenengoz darabilena, guk dakigula, nahiz Larramendik bere DT-en sartu izan eban lehenago.

[3]

[PRÓLOGO]

[7]

(...)

Doy al fin una nomenclatura de varias voces que hay en estas versiones, que aunque usuales en el pueblo, las ignoran no pocos de los Literatos, y Eclesiásticos. No hay una sola voz en todas ellas, que no sea de origen Bascongado. Para la voz Republica tenemos diccionnes literales, y propias en taldegauza, taldeaguinea, taldelurra. Para la voz Senado tenemos en uso Batzaarrea, es decir Junta de ancianos, ó varones de maduro juicio y autoridad pública. Para la de Consul Ondoecuslea, y así á este tenor las equivalentes á los Quirites, Padres Conscriptos, Embaxâdores, Centurion, Diputados. No hay idioma que se le aventaje en su gusto y artificio para formar voces descriptivas. El latin se ha enriquecido á costa del idioma griego. Filosofos, Teologos, Artistas, Maquinistas, [8] Médicos, deben á dicho idioma sus nombres descriptivos. Así el Latin como sus criaturas el Frances, Italiano y Castellano, son en sí muy pobres. El Bascongado tiene en el artificio proprio de su lengua el modo de formar semejantes nombres compuestos y definitivos. No se han tratado la Filosofia, ni otras Ciencias y Artes liberales en Bascuence. Solo le falta pues el cultivarla en ellas. Una de las grandes dificultades que tiene la perfecta comprension de nuestro idioma es la mucha abundancia de voces sinonimas en todo trato comun de la vida humana, y la variedad de primorosas inflexiones en la conjugacion. En sola una inflexion de verbo se comprende la distincion de varon y hembra, la afirmacion, las personas que hace y padece, la cosa, su singular, ó plural. Beencardaz en el dialecto Vizcaino significa, si tu, hombre me los, ò las traxêses. ¡Quantas cosas no se comprenden en una locucion breve! Así el Guipuzcoano, y en general el Bascuence tiene unas inflexiones eloqüentes y primorosas, sobre todo en varios que tienen ciertos irregulares, ó que salen de la direccion de los verbos auxiliares. No es para un breve prologo el dar razon entera de la perfeccion de esta lengua. Basta lo dicho para mi intento. Es la primera vez que hablan en Bascuence Ciceron, Salustio, Tacito, Tito Libio, y Curcio. Si se continua en semejantes versiones, y se aplican á esta lengua las reglas oratorias, escribiendo arengas originales, no se publicará que es lengua grosera.

[553]

En el dialecto guipuzcoano⁵¹**Gaiztoen biotzac zauritzen ditu Conciencia, edo barreneco aarrac.**⁵²

Siracusarren Erregue Dionisioc, ondasunac, ta atseguinac nai al osoan, edo ugari ceuzcan unean, adierazo zuen berberac etzala ez eguiaz zorionecoa.⁵³ Egun baten cegoala Damocles ceritzon bere lausengarien artecoa, Erregue onen Soldau pilloac, aberastasunac, Anaitasun, <ta> gauza gucien ugaritasuna, ta Erregue-eche-en edertasuna itzez gogoraeracitzen,⁵⁴ ucatzen zuela izan zala inoiz iñor doatsua-goric:⁵⁵ “Nai dezu, Damocles”, eranzun cion Dionisioc, “onembeste atseguin ematen badizu nere vicitzac, edo ain ondo baderitzazu, ecusi zeure buruan nere zoriontasuna?”⁵⁶ Baietza eman cionean, agundu zuen ipintzea guizona urrezco oe baten, gucia gañeco estalqui chit ederrez apainduric, baita ere apal asco, cillar, ta urrez estaliac.⁵⁷ Guero ipiñierazo cituen Mai alboetan mutillic ederrenac eguitemo ambat laster, ta ondoen aguintzen cien gucia, quiñu bat eguitea asco zala alcarren leian atseguin emateco.⁵⁸ Asmatu ala janari, ta ecin obeac arquitzen ciran Mai artan;⁵⁹ erre ciran usaingarri gozatsuac, ta lora ederrez eguiñico Aro, edo guirnardac baciran; baita ere computza eregatzeco miritza, edo unguentuac. Zorionecotzat ceducan burua ordu artan Democlesec.⁶⁰ Gozagarri gucien ondoan, onic onenean, ecusten du zorionecotzat cegoan berrichu arc bere gañean abe batetic esequita, zaldi zurda edo ille bat erantsiric, Burni zorrotz, argui eguiten zuena, ta noiz eten ta bere burura erorico zan, zai becela egon bear zuena. Beldur icara latz bat eldu citaion biotzera: ecusten etzituen, ez bere esanac eguitemo prest ceuden morroe mutil ederrac, [554] ezda ere beste urre-cillarrezco apaingarriac; etzuen escuric luzatzen mai artara, cimelduac bezela zeuden beretzat lora-aro edo guirnardac. Estuac, ta larritasunac ecarri zuen zorionecotzat len cegoan guizon ura, erregutzera Erregueri, larga ceguiola aldeguiten toqui artatic; etzuela berac nai alaco zoriontasunic. Ederqui beraz aguertu zuela dirudi Dionisioc, ezdala iñor zorionecoa, beldurren bat beti daducanean.

⁵¹ Beste letra batez eskumako alderdian: “Por D. Juan Ant^o Moguel”.

⁵² P: *Gizon dongeen bijotzak zaurituten ditu barruko arrak.*

⁵³ P: *guva betian eukazan egunetan, berberak adierazo eban...*

⁵⁴ Lehenengo idatzi: *Anditasun, ta gauza gucien ugaritasuna.* Ondoren *ta* tatxatu dau, gure ustez behar ez dala.

⁵⁵ *Doatsu, 'zoriontsu'. P-n: dontsubagoric. T: zorionecogoric.*

⁵⁶ P-k labur eta soilago: *onenbeste atsegin emoten badeutsu nire bizitza dontsubak, ikusi zeure buruban nasan edo ez benetan zorionekua?*

⁵⁷ P-k aditz subjuntibodun mendeko konpletiboaz: *Baietza arturik, agindu eban Dionisioc, imini egijela gizon axe bera urrezco oe baten, ta ezarteko oiari estalkirik apaingarrijenak. Ipini bere eragin zituban Arasa asko, zidar ta urrez janzijak.*

⁵⁸ P-k laburrago: *mutillik ederrenak ta edertó soñokotu alkarren leijan egingo eutseenak aginduten eutseen guztija.*

⁵⁹ P: *Asmau al, edo goguak emon al leikian jaaki mueta guztia prestau jakon.*

⁶⁰ ms. *cedudan.*

H eta P-k bardintsu. T-k, ostera, estilo zuzenez dakar gogoeta hau, protagonistak bakarriketan balihardu lez.

**Gaiztoen viotzac zauritzen ditu
barreneco arrac.**

Ex Cicer.

Siracusarren Erregue Dionisioc, ondasun ta atseguñaz ase bete, ta nai al osoan ceuzcan unean, adierazo zuen ber berac etzala ez eguiaz zorionecoa. Egun baten cegoala Democles bere beste lausengarien artean gogora eracitzen aurrean zeudenai bere Erregueren Soldadu pilloac, aberastasun, andiqueria, echeen edertasun, ta gauza on gucien ugaritasuna, ucatzen zuela izan citequeala iñor zorionecoaoric: “¿Naidezu, Democles”, eranzun cion bere Jaun Dionisioc, “orrembeste atseguin ematen badizu nere vicitzac, ain zorionecotzat banaucazu, ecusi zeure buruan nere zorion, ta dontsutasuna?” Baietza eman zuenean De-[20] moclesec, aguindu zuen Dionisioc, ipini cezatela guizon ura urrezco oe baten, gañe gucia estalqui ederrez apainduric; baita ere presta citecela edergarri gueyagoraco apalasco cillar ta urrez eransiac. Bildu eraci cituen mai alborá mutilic ederrenac, egoteco prest ambat laster, ta ondoen, Nagusi aren quiñu batera, esan ta vorondatea eguiteco. Arquitzen ciran mai artan asmatu al janari; sudurren gozagarriraco erre ciran usaingarri ecin obeac; baciran an ugarí lora ederrez eguindaco Aro, coroa, edo guirnaldac, corputza eregatzeco miritza, edo unguentu usaingozocoac. “Zorionecoa ni”, cion Democlesec: “nerequin dira ondasun guciac”. Gogoracio ero oetan arro arroric cegoala, ecusten du bere gañean abe batetic esequita burni zorrotz argui eguiten zuena, bere locarrizat ceucala zaldi zurda, edo ille mé, argal, ta eten erraza. Sartu zan bere biotzean beldur-icara latz bat irriscu artan bere burua ecusi zuenean; lausotu citzaizcon bere beguiac, ez ecusteraño an cebiltzan morroyac, ez apal ederqui apainduac. Ecin luzatu cituen bere escuac mai bete artara, aora cerbait eramateco; jaateco gogo gucia ill citzaion; jó zuten bea lora-aro edo coroa. Estuac, ta larriac ecarri zuen zorionecotzat cegoan guizon ura, escatzera erreguz Erregueri, larga ceguiola toquí artatic aldeguiten; etzuela berac nai alaco zoriontasunic. Beraz ederqui aguertu zuela dirudi, Dionisioc, ez dala iñor dontsu, ta zorionecoa quezca ta beldurgarriren bat dagoan orduan.

Faliscoco Maisuaren Billauqueria⁶¹

Erromarrac inguratu cituzten Faleriocoac Camilo Aguintari edo Buru zuteela.⁶² Oitura zan orduan Faliscoen artean mutilchoasco ematea Maisu, edo Eracasla bati alcarrequin aci citezen.⁶³ Jaquitunentzat cegoanac, eracasten cien Jaun andien Semeai.⁶⁴ Paque egunetan ateratzen cituen Maisu arc mutilchoac erri aurre edo atarira jolas ta jostatzetan lasaitzeco. Guerra egunac elduta ere, jarraitu cion oitura berari, ta egun baten oquer eguin naiz, ezarian, ta igarri gabe bezala urrutitu cituen cerbait gueiago errico ateetatic, ta eraman cituen etsaien escuetara, ta Soldauequin Camilo cegoan toquirá. Gaiztaqueria andi oni lagundu cien itz gaiztoagoac: “Nic”, cion, “eman ditut Faleriocoac Erromarren escupera, ecarri ditudanean ona beren Nagusien semechoac”. Enzun cituenean Camiloc itz oec, ta ezagutu alaco billauqueria, gorrotatu zuen gaiztaqueria, ta esan cion Billautzar ari: “Ez dira Erromarrac, ezda ni ere, zure guisacoac; sari charric artu nai ez degu guizon char ta billau baten escuetatic. Guerrac, ta paqueac dituzte bere escuvide ta legueac; ez da eguin [555] bear nai dana. Sendo bai, baña zucen guerraan jardutzea icasi guenuen. Burnia ez da eguin igarotzeco escuetan burniric ez darabiltenen corputz samurrac.⁶⁵ Errien jabe eguiten danean ere, barcatzen zaie alacoai, ta bacarric equiten zaie videgabe, ta atsecabea, escuetan armaac dituztela, eman digutenai”. Aguindu zuen bada billos-tzea Escola Maisu gaiztoa, ta escuac guibel aldera loturic eraman cezate-la atzera erri-ra mutilchoac berac, ta eman cizten cigorrac escuetara, galantac emanaz, araguaia zambrotuta, aguertu cidin Falerioen erdian. Ecusi zutenean Faliscocoac Erromar-ren prestutasuna, arrituric alaco eguiteaz, eman ciran indargabe, ta vorondate osoz, gogoratuaz alaco guizon prestuen leguepean zorionecoagoac izango cirala, beren leguepean baño. Esquerrac eman cizten Camilori, ala etsai armadunac, nola erricoac. Paquea eguinda, biurtu zan Erromara Soldauteguia.

* * *

Notas

Esta exposicion libre, *cimeldruta leguez egozan lora-aro, edo coroiac*, o a lo guipuzcoano, *cimeldruta bece-la ceuden beretzat*, es mas expresiva en nuestro idioma, que la version gramatical del texto latino.

Esta voz *aro* es círculo: de aquí *Izaro*, frente de Bermeo, que significa Isla, o Circulo de agua de mar.

El nombre *Tyranus* en el sentido presente signifca Principe, o Rey.

Alcarren leian: a porfia.

No ha havido tiempo para escribir las versiones, 1º en borron y despues en limpio, en cuia egecucion se podria mejorar el travajo.

⁶¹ P eta T: *Falisco* ...

⁶² P-k beste ordena bategaz: *Camilo Agintari, edo Buru ebeela Erromaarrak ingiratu zituben Faleriokuak*. Bokale bitua darabil P-n, *Erromaarrac*, baina ez H eta T-n: *Erromarrac*.

⁶³ P-k hemen be ordena diferentea: *Oneen artian zan ekanduba orduban, mutiltxu asko imintia Irakasle baten pekuan, alkarregaz azi zitezten*.

⁶⁴ P: *Jakitunentzat eguanak artu eruan Jaun andijen semiai irakasteko lana*.

⁶⁵ Lehenengo idatzi eta barriro tatxaturik: “...igarotzeco] aragui samur ta [escuetan...

[21]

Falisco Maisuaren Billauqueria.

Ex Tito-Libio

Erromarrac inguratu cituzten Faleriocoac Camilo Aguintari, edo guerra-buru zutela. Oitura zan orduan Faliscoen artean mutilchoasco ematea, Maisu, edo Eracastle bati alcarrequin aci zitecen Icaslecu baten. Jaquitunentzat cegoanac eracasten cien Jaun andien Semechoai. Paque egunetan ateratzen cituen Maisu arc bere escolaco mutilchoac erri-aurre, edo atarira, jolas ta jostatzeetan lasaitzeco, gaztechoetan on dan bezala. Eldu zanean guerraco unea, eguin zuen gauza bera, ta egun baten oquer eguin naiz, ez arian, edo igareraci gabe urrutitu cituen mutilcho zaldunac errico ateetatic, ta eraman ere bai etsayen escuetara, ta Camilo Soldaduen Burua cegoan toquirá. Gaiztaqueria andi oni lagundu cien itz gaiztoagoac. "Nic", cion, "ecarri ditut Faleriocoac Erromarren escupera, beren Nagusien semechoac onera ecarri ditudan orduan", atseguin emango zuelaco ustean. Eranzun cion Camilo prestuac: "Ez naiz ni, ez beste Erromarrac ere zure guisacoac, ez billau zaleac; ez degu sari charric artu nai escu charretatic. Paqueac, ta Auciac badituzte beren escubide, ta legue zucenac. Ez da eguin bear nai dana, baicic ondo dana. Icasí guenuen Erromarrac guerra eguiten sendó ta portizqui, baña vide onez, ta zucenqui. Ezda burnia zorrotzen barrentzeco burniric eztarabiltenen corputz macal [22] samurrac. Errien jabe eguiten gueranean ere, barcatzen zaie alacoai, ta bacarric equiten diegu vide gabe, ta atsecabea ematen digutenai, escuetan armac dituztela". Au esanda, aguindu zuen Camiloc billostzea escola maisu billautzarra, ta escuac guibel aldera loturic eraman cezetela atzera, irten zuen errira, mutilchoac berac ematen cizteela escuetara cigorrac, aragui gorria banabana eguiñic, aguertu cidin zambroz beteta Falerioen artean. Ecusi zutenean Faliscoac Erromarren prestutasuna, arrituric alaco eguiteaz, eman ciran auquera osoz ta vorondate betez etsaitzat etorri ciran Erromarren mendera, gogoratuaz, alaco guizon viotz prestuoen leguepean zorionecoagoac izango cirala, beren lengo legueen azpian baño. Esquerrac eman cizten Camilori ála Falisco armadunac, nola Uri artacoac. Paque osoa ta adisquide eguinda, biurtu zan Erromara soldauequin bere Aguintaria.

En el distrito vizcaino.

P. D. Juan Ant. Alloguist
 Grizla donguen biotzac zausituton delu concioncia
 edo barxuo aaxua.

Sriacumaxon Exeque Diari sine ondasen lu atozimias
 orua belian ta uxonitucazan unior, adizaro eban bon de-
 zac, etulo ez omias zomionua. Egon baton eguala Demo-
 cles exichon beste bene luumozion antecoa verba labanacaz
 Exeque onen eloldam pilluac, abozatasonac, Andiquonja, gau-
 za gualion ugonitama, ta Exeque edo, edo dantegui eper-
 suben edentasona gogua nracant, edo gomuta exa gualion,
 ucaaten ebula izan eala inoz ta inoz dontribazone, Guna doru,
 Democles, ziauntza, onombete ategun emofen badeculu nra
 vicitrias edo an ondo barxiocha nra zoxionac, i xua euaebu
 urban nuan edo ez zomionua. Bueta onon eban onduca
 Democles, agurdu eban Diari sine ipme Gualle quizon an
 uaxeco. Oe baton, ta gometi exatoco citatque chito apandubac.
 Ipme exagun eadaban Agal uxo cidax ta uxo ez taldubac,
 ta Alajaron albuclan multilio edononac bone quere baten
 zain exozant agurduatutidin gualia boniala gualteco, ta
 ni ataxen lejan, ta la xox Aman al edo gogua onon eper-
 tin jamae paxitau zomionac cizian uimias goralteco uxon
 gualia onon; pacizion an lora eitoragat gualnica Apo,
 an gualnic, bota bene gualteca onquetaco minitau e-
 magurdubac. Inuio, eozat eucan ondu alax Democles bene
 buruba. Bana onon orientan, goralteco gualion onon dazac
 zomionac paxitandu onac bone burubanon gualion, ^{Bendicpa zomion} paxitau.
 Gualteca, beste locaxitau eucala, exgalla Zolci fundat, edo e-
 dononon, nos bone gualion jaco eban zain laguez exon bax ebon

En el ...

Por D. Juan ...

Gaiztoen biotzac zauritzen dibe Conciencia 552

edo bareneco aamoc.

Siacuraxen Erizque Dionisio, ondasurmas, ta atseginac
 nai al orocuelis ugari cauzcan zorian, adiorazo zuzon bor biaz
 et zai ez edunat zaurionera. Egun baten copola Democles cont-
 zori bere hau ongarion antecoa Erizque onen Soldau cillac, abe-
 zaturama, Anaitasen, ta gauza gucien ugariatara ~~...~~
~~...~~ ta Erizque cillac edentama, itea ~~...~~ ~~...~~ ~~...~~
 ucitzen culla izan taia moiz moiz doatzenoie: Nai de... Democles,
 orancun Eion Dionisio, ondasurmas alioquin orantion badiu nei
 vicieta, edo ain ondo baderitzaun, cusi zene benuan zore.
 zomontasuna. Aaieta oran ciorcan, agurinda zuzon yntiza
 guizona unarce de baten, gucia gancos etalqui ~~...~~ edon-
 rez ~~...~~ baita zra apa ascu cillan, ta unuz etalac.
 Guero uniorato cilion Mai alboetan mutillie edononac
 equitico ambat la ton, ondon aguritzentien gucia, quena
 bat equitea ascu zala alcaion leian ateguin oraleco. Toma-
 bi ala janari, ta cion oblac aguriten cion Mai anton ~~...~~
 gari potatu, ta lora edonuz equitico Azo, edo quinalde
 bacian; baita zra corputra excoatiza munita, edo impunitat.
 Zorionecolat cedudan benua ordu antan Democlece. Gora-
 gauri gucien ordoan, onic ~~...~~ cauzcan du zaurionerac ce-
 gaur benucha que bote gancan abe baten, equitea zalditzaun
 edo ille bat orantioie, Buzni zomota, moiz orantion ziona, ta
 noiz etn ta bere benua orotico zar, orai beela corotocaz zua-
 na. Baidan icana bati bat etdu citraion biotzia: cauzcan etre-
 en, ez bote cionac equitea, puzt etuden moiz mutillie edononac.

[557]

En el dialecto vizcaino⁶⁶**Gaizto-dongueen biotzac zaurituten ditu Conciencia, edo barruco aarrac.**

Siracuserren Erregue Dionisioc ondasun ta atseguinac gura betian ta ugari eucazan unian, adierazo eban ber berac, etzala ez eguiac zorionecua. Egun baten eguala Democles erichon beste bere lauseungarien artecoa, verba labanacaz Erregue onen Soldau-pilluac, aberastasunac, Andiquerija, gauza guztijen ugaritasuna, ta Erregue-eche, edo Jauregui ospetsuben edertasuna gogora eracarri, edo gomuta eraguiten, ucatuten ebala izan zala inñor ta inños dontsubagoric: “¿Gura dozu, Democles”, dirautsa, “onembeste atseguin emoten badeutsu nire vicitziac, edo ain ondo baderichu nire zorionac, icusi ceure buruban nasan edo ez zorionecua?”

Baietza emon eban orduco Democlesec, aguindu eban Dionisioc ipiñi eguijela guizon ase urrezco oe baten, ta gañeti ezarteco estalqui chito apaindubac. Ipiñi eraguin cituban Apal asco cidar ta urrez estaldubac, ta Maijaren albueta mutillic ederrenac bere quiñu baten zain egozanac aguinduteutseen guztia beriala eguiteco, ta ori alcarren lejan, ta laster. Asmau al, edo goguac emon eiquian janari prestau zan;⁶⁷ erre cirian suurrac gozatuteco usaingarriric onenac; bacirian an lora ederragaz eguinico Aro, edo guirnaldac, baita bere gorputza ereguetaco miritza, edo unguentubac. Zorionecotzat eucan ordu atan Democlesec bere buruba. Baña onic onenian, gozagarri guztien artian dacus zorioneco beguitandu onec bere burubaren gañian Burdina zorrotz, abe bateti esequita argui eguitebana, beste locarriric ezeucala, ezpada Zaldi zurda, edo ule eten-erraza, nos bere gañera joco eban zain leguez egon biar ebana. [558]

Bildur, ta icara latz bat eldu jacon bijotzera, ceñec largaten ez eutsan icusten, ez bere esanac eguiteco prest egozan otsein mutil ederrac, ezta bere beste urredarrezco apaingarriac; azartuten etzan maira luzatuten bere escuba; ta cimelduta leguez egozan beretzat lora-aro, edo coroiac. Estura ta larritasun atan asi zan erreguz escatuten bere Jaunari zorionecua cirudijan guizon á, larga eguijola arrenaric aldeguiten; ez ebala gura alango zoriontasunic. Dirudi bada, ederto aguer-tuebala Dionisioc, eztala inñor zorionecua bildurren bat beti daguan artian. *Cicero Tusc.*

⁶⁶ Beste letra batez eskumako alderdian: “Por D. Juan Ant^o Moguel”.

⁶⁷ Erdi erren dago *janari* hitzaren sintagma. Mogelen erabileran guztiz zuzena da: *Asmau al janari*. Baina ez: *goguac emon eikian janari*, baldin *beste* edo *pareko* zenbatzaile batez ornitzen ez bada. P: “Asmau al, edo goguac emon al leiquian jaaqui mueta guztia prestau jacon” (150).

**Guizon dongueen bijotzac zaurituten ditu
barruco arrac.**

Ex. Tusc. Cicer.

Siracusarren Erregue Dionisioc, ondasun ta atseguin guztiac gura betian eucazan egunetan, berberac adierazo eban, etzala ez eguijaz zorionecua. Egun baten eguala Democles erichon beste bere labanguillen artecua Erregue onen Soldaupilluac, aberastasunac, Andiquerija, gauza guztijen jaubetasuna, ta Erregue-Jauregui, edo Echeen edertasuna gogora-erazoten, ucatuten ebala, izan zala iñor, ta iños dontsubagoric, “¿gura dozu, Democles, dirautsa Erreguec, onembeste atseguin emoten badeutsu nire vicitza dontsubac, icusi ceure buruban nasan edo ez benetan zorijonecua?”.

Baietza arturic, aguindu eban Dionisioc, imini eguijela guizon asé bera urrezco oe baten, ta ezarteco oiari estalquiric apaingarrijenac. Ipin bere eraguin cituban Arasa asco cidar ta urrez jancijac, ta maijaren albueta mutillic ederrenac ta edertó soñocotu, alcarren leijan eguingo eutseenac aguinduten eutseen guztija. Asmau al, edo goguac emon al leiquian jaaqui mueta guztia prestau jacon; erre cirian suurrac gozatuteco usaingarriric ónenac; bacirian an lora ederrez eguinico Aro, edo guirnaldac, baita bere gorputza ereguetaco miritza, edo bustigarrijac. Zorijonecotzat eucan ordu atan Democlesec bere buruba. Baña onic onenian, dacus zorioneco beguitandu onéc bere burubaren gañian Burdina zorrotz, leunaren leunez argui eguitebana, abe bateti [151] eseguita beste oracarriric ezeucana, ezpada zaldi-ule, edo zurda eteten erraza, nos bere gañera joco eban zain leguez egon biar ebala.

Bildurtu zan buruti biatzetara; icara ebilcon bijotza, ta begui, larritasunac erdi lausotubac ez eutsen eracusten, ez bere esanac eguiteco prest egozan mutil ederrac, ezda bere apaingarri urre-cidarra erijuenac; azartuten ez zan maira luzatuten escuba, ill jacolaco jaateco gogo guztija; jo eben beia aurrian eucazan lora-aro edo coroiac. Esturasun atan asi zan erreguz escatuten bere Jaunari zorijonecua cirudijan guizon asse, larga eguijola arren aric alde eguiten; ez ebala berac gura alango zoriontasunic. Dirudi bada ederto adierazo ebala Dionisioc, ez zala iñor zorionecua bildurgarriren bat bijotzian daguan artian.

Faliscoco Maisubaren billauquerija

Erromarrac inguirau cituben guerraz Faleriocupac, Camilo Aguintari, edo Buru ebeela. Ecandubac egozan Faliscuac orduban mutilchu asco imintera Iracastle baten azpian alcarregaz aci zitezat.⁶⁸ Jaquitunentzat eguanac iracasten eutseen Jaun andijen Semiai. Baque egunetan atera eruazan Maisubac mutilchu icaslaac erri aurre, edo ataira olgau citezan ta nasaitu joco, ta jolasetan. Guerra egunac eldu cirianian bere, jarraitu eutsan Maisubac leengo ecandubari; ta egun baten oquer eguin guraz, ezarijan, ta igarri baga leguez, urrindu cituban cerbait gueijago errico atee aurretic, ta eruan cituban arerijuen ondora, ta bere guerra-guizonacaz Camilo eguan toquirá. Dongaqueri oni lagundu eutseen verba dongaguac: “Nic”, cinuan, “eracarri ditut Faleriocupac Erromarren escupera, ecarri ditudanian oná Nagusi, edo ango Jaunic andijenen semiac”.⁶⁹ Gach irichi eutsan Camilori eguita-[559] da ta asmo ain gaistuac, ta esaeutsan billau donga ari: “Eztira Erromarrac, ez euren Aguintarija bere, zure irudicuac⁷⁰; eztogu artu gura sari chaarric zuriac leguezco escu chaarretati. Alan guerriac, celan baquiac baditube euren muga, escuvide, ta leguiac. Ezda eguin biar otuten dan guztija. Icas guenduban guc guerria eguiten, sendó bai, baña vide zuzenez. Burdinia ez da zorroztu biar igaroteco burdinaric artuten eztabenen gorputz samurrac. Errijacaz jaubetuten danian bere, parqueetan jaquee alanguai, ta bacarric equiten deutseegu escubetan armaac ditubela atsacabia emoten deuscubenai”.

Aguindu eban bada billostu eguijela Escola-maisu billauba, ta escubac atzera birau, ta loturic eruan eguijela mutilchubac aurrian urteeban errira, ta emon eragui eutseezan escubetara cigorrac, jooça jooça galantac emonda,⁷¹ gorputza zambrotuta sartu eguijen Errijan.

Zurtu cirian Faliscocuac icustian Erromarren prestutasuna alango eguitadan, ta erabagui eben edeguitea errico atiac, deitutia, ta euren alde jaartia vorondate osuaz, goguan artuta alango guizon erruquior, ta prestu zucenen aguindubaren beian zorionecuaguac izango ciriala lengo legueen azpian baño. Esquerrac emon eutseezan Camilori, alan armadun guizonac, celan Uricuac; ta baquia eguinda biurtu zan Erromara Soldau aldra guztia.

Ex Tito Libio.

⁶⁸ Aditz kategoriaz darabil hemen *ekandu*, edo hobeto esan *ekandubak egon* lokuzinoa. Gipuzkeraz *oitura zan* darabil bertsinio bietan. PAB-en osterá, *ekanduba*, izen legez darabil.

⁶⁹ Ohar bedi, irakaslearen ahoan estilo zuzenean ipinitako berbok ez datozala bizkaierazko PAB-n, baina bai gipuzkerazko bietan.

⁷⁰ VersP: *zu-lakuak*.

⁷¹ *Jooka* izena da hemen. Errata izan daiteke *jooka jooka* birritan idatzirik azaltzea, baina ez da segurua. P: *jooka galantak emonda*.

Falisco Maisubaren Billauquerija.

Camiló Aguintari, edo Buru ebeela Erromaarrac inguiratu cituben Falerio-cuac. Oneen artian zan ecanduba orduban mutilchu asco imintia Iracasle baten pecuan alcarregaz aci citezen. Jaquitunentzat eguanac artu eruan Jaun andijen Semiai iracasteco lana. Baque egunetan atera eruazan Maisubac mutilchu icaslac erri aurre, edo atarira olgau citezan, ta solastu toqui aisetu edo ascaturbetan. Guerra egunac elduta bere jarraitu eutsan Maisu ác lengo ecandubari, ta egun baten oquer eguin guraz, asmo gaistoz, ezarijan, edo igarri baga leguez urrindu cituban erriti eruateraño arerijuen ondora, ta Camilo guerra guizonacaz eguan toquirá. Gach-erechi eutsan Camilori alango billau-[152] querija, ta oquer eguin biarrac, ta esan eutsan Maisu donga ari: "Ez dira zu-lacuac Erromarrac, ezta Aguintarija bere. Ez dogu artu gura escu dongueetaric esquintza donguia. Alan guerra, celan baquiac ditube euren muga, escubide, ta leguiac. Ezda eguin biar ez otu, ta burura datorren guztia. Icasí guenduban guc guerra eguiten sendó bai, baña vide garbi ta zucenez. Ez da zorroztu biar burdinaric, escu utsetan ta burdina baga dabilzanan gorputz samurrac igaroteco. Errijen jaube eguiten garianian bere, indarrez artu arren, parquetan jaquee alanguai, ta bacarric equiten deutseegu burdinac escubetan ditubela, atsacabatuten gaitubenaí".

Aguindu eban bada billostu eguijela Escola Maisu billautzar á, ta escubac atzera loturic, eruan eguijela mutilchu aec aurrian, atera cituban errira; emon eraguin eutsan escubetara bacochari bere cigorra, jooça galantac emonda, gorputza zambrotu, ta eratzijaz sartu eguijen alan Errijan.

Zurtu cirian Faliscocuac icustian Erromarren prestutasuna, ta erabagui ebeen edeguitia Errico atiac, eurai deitutia, ta euren alde jartia vorondate osuaz, gomutauric alango guizon erruquior, ta prestuben aguindubaren beian, zorijonecuaguac izango ciriala, lengo legueen azpijan baño. Esquerrac emon eutseezan Camilori, alan armadun guizonac, celan Uricuac, ta baquia eguinda, biurtu zan Erromara Soldau-aldra guztija.

Ex. Tito Libio.

W. F. VON HUMBOLDT-EK BILDU
ZITUEN EUSKAL KANTA ETA
ESAEREN GAINEAN

Jabier Kalzakorta¹

¹ Deustuko Unibertsitateko irakaslea.

LABURPENA

W. von Humboldt bidaia bi egin ebazan Euskal Herrian. Bigarrenean abade famatu bat baino gehiago ezagutu zituen, tartean Juan Antonio Mogel eta Astarloa idazleak. Baina bere bidaia-liburuan Itsasun, Lapurdin, ezagutu eban Harrambillet abadeari eskaintzen deutso aipamenik samur eta bihoztiena. Bidaia-liburu horretan batu eban Humboldt 81 urteko Harrambillet abadeari eta Ithurbideri jasotako ahozko altxorra, eta hori berori dakar egileak artikulu honetara, behar diran argibide eta jakingarriekaz horniduta. Harrambilletenak: euskal baladarik zahar eta ederrenetakoa, "Andre Emili"; ahapaldi bakarreko kanta bat; beste ahapaldi bat azalpen barik; kanta bat eta euskal esaera zaharrak erdal itzulpenagaz; esateko modu berezi bat. Ithurbiderena kantu-sail bat da, zortzi kantu guztira.

RESUMEN

W. von Humboldt realizó dos viajes al País Vasco. En el segundo se relacionó con varios sacerdotes vascos como J.A. Mogel y Astarloa pero en su libro de viajes elogia con especial afecto al sacerdote Harrambillet a quien conoció en Itsasu (Lapurdi). En este viaje Humboldt recogió un tesoro de expresiones orales del citado Harrambillet, que contaba a la sazón con 81 años, y de Ithurbide. A este asunto, con el aparato crítico pertinente, dedica el articulista su reflexión. De Harrambillet aporta una de las más antiguas y hermosas baladas vascas, la de "Andre Emili"; un canto de estrofa única, otra sin comentario, un canto y unas viejas sentencias con su traducción castellana, y un dicho expresivo. De Ithurbide se aporta un conjunto de ocho cantos.

RÉSUMÉ

W. von Humboldt a effectué deux voyages au Pays Basque. Pendant le second, il fit la connaissance de plusieurs prêtres basques, comme J.A. Mogel et Astarloa, mais, dans son livre de voyage, il rend un hommage chaleureux au curé Harrambillet, rencontré à Itsasu (Lapurdi). Au cours de ce voyage, Humboldt recueillit un trésor d'expressions orales dudit Harrambillet qui, à l'époque, était âgé de 81 ans, et d'Ithurbide. C'est à cet aspect que l'auteur de l'article consacre ses réflexions, qu'il accompagne de l'appareil critique approprié. De Harrambillet, il rapporte l'une des plus belles ballades basques anciennes, celle de l'"Andre Emili", un chant à strophe unique, un autre sans commentaire, un chant et quelques vieilles maximes avec leur traduction espagnole et un diction expressif. D'Ithurbide, c'est un ensemble de huit chansons qui est rapporté.

SUMMARY

Wilhelm von Humboldt made two visits to the Basque Country. On his second visit he came into contact with several Basque priests, including J.A. Mogel y Astarloa, but his book relating his travels reserves special praise for Father Harrambillet, whom he met in Itsasu (Lapurdi). On this occasion Humboldt collected a treasure trove of oral expressions from Harrambillet, then 81, and Ithurbide. The author takes a critical look at this exchange. From Harrambillet we have one of the earliest and most attractive Basque ballads, the *Andre Emili*, a single-verse song, another without commentary, a song and some old refrains with Spanish translation, and one expressive saying. Ithurbide provides a set of eight songs.

SARRERA: HUMBOLDT EUSKAL HERRIAN

Wilhem Freicher von Humboldt (1767-1835) jakintsu handia bi aldiz etorri zen Euskal Herrira. Lehen bidaia 1799. urtean egin zuen bere emazte Karolina, bere bi haur eta Gropius pintatzailearekin. Bigarren bidaia 1881. urteko apirilean egin zuen bere lagun Wilhem Bokelamann-ekin. Lehen bidaian Euskal Herria zeharkatu zuen eta ez zuen egun askorik egin gure artean. Lehen bidaia Espainian zeharreko ibili bat izan zen: Baiona, Irun, Gasteiz, Burgos, Valladolid, Segovia, El Escorial, Madril, Aranjuez, Toledo, Manzanares, La Carolina, Andújar, Kordoba, Écija, Sevilla, Puerto de Santa María, Cadiz, Antequera, Málaga, Granada, Baza, Murztzia, Alacant, Valentzia, Vinaroz, Bartzelona, Mataró, Figueras, Perpiñan herri-hirietan barrena ibili zen. Ibili horretan Espainia goitik behera zeharkatu eta gero, Mediterraneoko kostaldea aldetik gora egin zuen V handi bat eginez.

Bigarren bidaian Euskal Herria korritu zuen. Bigarren bidaia horretako egunerokoa “Tagenbuch der baskischen Reise 1801” delakoan hainbat zehaztasun jarri zituen. Bidaia horren oharren itzulpena Telesforo Aranzadik argitaratu zuen RIEV aldizkarian “Diario del viaje vasco 1801” (RIEV, 1922, XIII, 614-658; 1923, XIV 205-250). Lan bera baina beste zehaztasun batzuekin *Los vascos. Apuntaciones sobre un viaje por el País Vasco en Primavera del año 1801* (Editorial Auñamendi 1975) liburuan ikus daiteke. Bigarren bidaia honetan hainbat egun egin zituen Euskal Herrian. Apirilaren 27an sartu zen Baionara, eta ekainaren 2tik 3ra artean ateratu zen berriro Baionatik Tartas hirira joateko. Hona hemen maiatzean korritu zituen herriak (zenbakiak maiatzaren eguna markatzeko erabiliko ditut): 1 Donostia, 2 Zarautz Getaria, 3 Zumaia, Deba, Mutriku, Ondarroa, Markina, 4 Markina, 5 Bergara, 6, 7, 8 Vitoria, 9-13 Durango, 14-17 Bilbo, 18 Somorrostro, Portugalete, Plentzia, 19 Bermeo, Mundaka, Gernika, 20 Gernika, 21 Lekeitio, 22 Azpeitia, Ondarroa, Mutriku, Elgoibar, Azkoitia, 23 Oiartzun, Asteasu, Billabona, Hernani, 24 Irun, Donibane Lohitzune, Baiona, 25 Baiona, 26 Uztaritz, Itsasu, 27 Itsasu, 28 Baigorri, Orreaga, 29 Donibane Garazi, 30 Maule, 31 Sauveterre Peyrehorade, ekainaren 1, 2 Baiona.

Bigarren bidaia honetan, maiatzaren 26 eta 27 egunetan, Itsasun, Harambillet apezarekin egon zen eta euskal kantak kantatu omen zizkion. Egun horietan Humboldték bildu zuen uzta dugu aipagai artikulu honetan.


ITSASU HERRIAN EGINDAKO EGONALDIA HUMBOLDT-EN EGUNKARIAN

Bigarren bidaia honetan Euskal Herrian apez famatu bat baino gehiago ezagutu zituen. Juan Antonio Mogel eta Astarloa idazleak ezagutu bazituen ere ez da aipamen handirik ikusten bere bidaia-liburuan. Itsasun, Lapurdin, ezagutu zuen Harambillet apezari, ordea, aipamen samur eta bihoztia eskaintzen dio. Hona:

De los días, que pasé en esta pacífica vivienda (Itsasu herriaz ari da), no referiré aquí mucho, pero su recuerdo nunca se apagará en mi corazón. El dueño un venerable anciano, había entregado a su sucesor la cura de almas de la comunidad, llevada con inviolable fidelidad durante cincuenta años, para concluir aquí sus días en tranquilidad y soledad. Pero todavía disfrutaba en igual medida de la estimación y cariño de sus feligreses y muy poco antes de estar yo allí habían, sin requerimiento suyo, allanado la cuesta algo pina de delante de su casa y la habían hecho más accesible para sus envejecidas fuerzas.

(...) Nunca he visto en un anciano una serenidad tan amable, por nada turbada, una tal disposición para la conversación instructiva y para cada indagación, por lejana que fuese del círculo de su limitada vida, una participación tan cordial en cada diversión inocente,

en una palabra un tal espíritu de genuina paciencia y verdadera humanidad, como en el honrado Harambillet. El más vivo interés para él tenía entre todos los objetos naturalmente su nación, y todo lo que algo se refería a ella. Se apoderaba de él una especie de entusiasmo, cuando hablaba de ella, de su antigua fama y de su idioma, y era conmovedor el oírle lamentar a él, que estaba al borde de la tumba, el paulatino desavenecimiento del último. Se acordaba con visible alegría de antiguas canciones aprendidas en su juventud, podía estar sentado horas enteras para recordar otras tonadas y estrofas medio olvidadas, y sabía siempre distinguir con el más ajustado gusto los genuinos tonos del pueblo de las imitaciones posteriores, tomadas de idiomas extraños. Desgraciadamente su memoria se había hecho tan débil, que de ordinario solo era capaz de recordar el encabezamiento y en todo caso las melodías. (180 or.)



Humboldtten bidaia-liburuaren lehenengo itzulpenaren azala.

Euskal Herrian ezagutu zituen pertsona guztien artean lerrorik gehien Itsasun ostatur egon zen apaizetxeko Harrambillet-i eskaini zizkion. Lerrorik gehien eta aipamenik bihozkoienak ere bai. Guk lan honetara ez ditugu pasarte guztiak aldatuko beldurrez eta geure gaitik ez hastan gaitezen.

HUMBOLDT-EN EUSKAL KANTA ETA ERREFRAUEN UZTAREN ARGITARALEKUA

Azkuek artikulu polit bat argitaratu zuen *Euskera* aldizkarian (1925, 60-66 or): “Curiosos documentos copiados en la biblioteca imperial de Berlin, de los manuscritos de Guillermo Humboldt, a 5 de agosto de 1922”. Zein da lan horren edukia? Besteak beste edukia, goragoko puntuan aipatu dugun 81 urteko apez bati, Harrambillet maitagarriari, bildutako kanta eta errefrau zaharrak. Humboldt-ek, uzta ttipi horrezaz gainera, beste kanta batzuk ere bildu zituen. Beste bigarren uzta hori Ithurbide baionatarrari bildua da. Gure lan honen muin nagusia bi bilduma horiek artikulu honetan ematea da.

Bigarren uzta, Ithurbideri bildutakoa, beste nonbait ere argitaratua izan zen. Non? C. A. F. Mahn-ek argitaratu zuen *Denkmaeler/ der Baskischen Sprache. / Mit einer Einleitung./ welche von dem Studium der Baskische/ Sprache handelt und zugleich eine/ Beschreibung un Charakteristik/ derselben enthält, /herausgegeben von C. A. F. Mahn*. Berlin, 1857². Liburu honetako zenbait kantu autoreak Humboldt-en paperetatik hartu zituen. Guk ez dugu hau beste inon irakurri. Bi iturriak konparatuz gero, eguerditan argi dela bezain klar dago Mahn-en kantu zenbait, ez guztiak, Humboldt-en paperetatik egindako transkripzioak direla. Arrazoiak begi bistakoak dira Charles August Friedrich Mahn (1802-1887) Humboldt-en jarraitzailea izan zen eta Berlinen berean argitaratu zituen hainbat liburu. Mahn-ek agertu zuen liburua eskura ezina da askorentzat, begi bistakoa denez. Euskal irakurleak badu euskal kanta bilduma hori aurkitzeko beste leku bat. Patri Urkizuk argitaratu eman zuen artikulu bat, hain zuzen: “C.A.F. Mahn-en kanta eta bertso bilduma Berlin, 1857” (in *Egan* Enero-Abril 1986, 13-84 or.) Artikulu honetako “Chanson erotique” (53-54 or.), “Chanson bachique” (56 or.); “Lamentation d’un vieillard” (57 or.); “Le rencontre du créancier et du débiteur” (58or.). Kantu horiek guztiak Humboldt-en bildumakoak dira.

Badago beste kanta bat beste inon ikusi ez dudana eta guk hemen transkribatuko duguna: “Gure haur ume çourtza”. Bi kanta-sailtxoak, bi dokumentuak, hemen transkribatuko ditugu, lan honen irakurlearen gozagarri³. Badago, aurrea baino lehen, kontu interesgarri bat. Bi kanta-sailek beren frantseseko azalpena

² Lan honen gaineko bibliografia: Vinson, J. “Monuments de la langue basque”, RIEV, 1922, XIII, 562-568 or.

³ Mikrofilma ikusi nahi duenak jo beza Bizkaiko Foru Aldundiko edo Euskaltzaindiko biblioteketan Humboldt-en mikrofilmetara Krakobiatik nonbait ekarritakoak, hurrengo signaturara: 5576/ 5563/ 5345/ 5166.

eta itzulpena dute ondoan. Guk itzulpen eta azalpen hori ez dugu aldatuko hona. Letra bihurriegia da batetik, eta bestetik ez du gehienetan informazio berririk ematen frantseseko testuak. Azkueren bidea, beraz, jarraituko dugu guk, itzulpenik gabeko euskarazko transkripziorik fidelena egiten saiatuko gara lantto honetan.

HARAMBILLET-EN KANTA ETA ERREFRAU BILDUMA

Biltzaileak biltze-puska bakoitza zenbaki batekin markatu zuenez gero, guk ere bide bera jarraituko dugu geure lanaren argigarri. Harambillet-en uztatxo bi orrialdetan dago 341 eta 342 zenbakiak dituzten orrietan.

1) Lehen kanta euskaraz dugun baladarik zahar bezain ederrenetakoa da: “Andre Emili”. Kanta honen gaintxoan azalpen bat dator: *Lieder deren sich der 81 jährige Harambillet in Itsasou aus seiner Jugend erinnerte. Aus der Zeit der Maurer Herrschaft, also sehr alt. In ersten Vers redet der Dichter; die Anderen sind die Antwoer des Mädchens.* Honelaxe itzultzen du Azkuek azalpen hori: “Canciones de las cuales se acordaba de su juventud el anciano Harambillet de 81 años en Itsasu. Son del tiempo de los moros; por consiguiente muy viejos”. Balada hau oso ondo transkribatu zuen Azkuek:

*Andre Emili, andre gora,
Orai ez arto-jorra;
Oguiric orra hain guti,
Zoaz Mairu herrin gora.*

*Saldu nintzen dirutan
Asco sari handitan,
Ehun pizu dirutan ta
Berrehun dupa ezitan.*

*Aita nuen salzaile
Ama diru hartzaile,
Anayaric chipiena
Mairutaric kentzaile.*

Balada transkribatu ondoan honela iruzkintzen du Azkuek: “Esta misma canción aprendí yo en Etxalar, con alguna variante, ciento y pico de años más tarde que Humboldt en Itsasu. Puede consultarse en mi *Cancionero popular vasco*, edición manual, página 47”. Kantu honen gainean ikus, besteak beste, L. Mitxelena-ren “Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos” (FLV, 1971, 149-169 or.) eta Antonio Zavalaren *Euskal Erromantzeak Romancero Vasco*, (Auspoa liburutegia 1998, 33-37 or.). Hizkuntzaren zehaztasun bi iruzkintzea zilegi balekit, ohartzekoa da “saldu nintzen” delakoa ez dela “me vendí” *fui vendido,-a* baizik. Gure kasuan saldua

dena neskatala bat da. Azkuek nonbait gaizki itzuli zuen erdarara, Mitxelenak zehazten duenez. Humboldt-en adibidean, ordea, ondo dago itzulirik: J'ai été vendue par de l'argent. *Mairu errin* delakoa inesibo arkaiko bat da, Mitxelenak dioenez.

2) Bigarren kanta ahapaldi bakarrekkoa da. Honelaxe dio alemanez: *Lied eines Mädchens an ihren geliebten der sie verlässt. Er wusste von diessem eine Strophe.* Hau da abandonatzen duen maitearen kanta. Lehen ahapaldia baino ez dago:

*Bethi bihar, bethi bihar,
Eznuzuya icussi behar,
Ene zainac eguin dira
Galhar idorra becen ihar.*

Azkuek berdin transkribatu zuen galde-markak jarririk bigarren bertso-lerroan: ¿Eznuzuya icussi behar? Kanta puska horretako “galhar” delakoa “arbola-adar ihar eta hila da”. “Bois mort ou sèche sur l'arbre” agertzen da hiztegieta, eta Duvoisinek dioenez: “Branche morte d'un arbre, dont on fait des fagots”. Argibide gehiagotarako ikus bedi *Orotariko euskal hiztegian* galhar hitzean. Ahapaldi hori beste lekutan ere ikusi dugu. Arakistainen errefrau-bilduman ere badago. Guk Bartzelonako *Revista de Ciencias Históricas*, (1880-1881, II, 416-433; III, 113-120, 350-374, 1881, IV, 72-87, 149-163 or.) argitara zen “Suplementos al diccionario trilingüe del



Itsasuko eliza, Harambillet apaiz izandako herria.

P. Larramendi” horretako errefracuak gure artikuluko batean argitaratu gure “Euskal atsoitiz-bildumak” (*Euskera*, 1996, 3, 41. liburukia 611-640 or.). Hona gure zenbakiaren arauera bosgarrena: *Quien espera desespera; beti nigar, beti nigar ezten onela vicibear; guere zaiñac eguin dira, basoan zotzac becein igar*. Arakistainek dakarren errefracua Humboldt-ek bildu zuen kanta-ahapaldi bera da. Arakistainen kasuan *Galhar idorra becen ihar* bertso-lerroa “basoan zotzac becein igar” bihurtzen da.

3) Hirugarren ahapaldiak ez du azalpenik. Azkuek bertso-lerroak Iparraldeko era-
ra jarri zituen. Guk ahapaldia jatorrizko testuan dagoen bezala aldatuko dugu hona:

*Isil isila nago
Mutua bezala
pairatzen dudalaric
munduan ahala:
ezderautzut erraiten
maite citudala
Seguratua bai naiz
Hartzio nuzula.*

4) Laugarren atala, Azkuek dioenez, kantua da. Guk uste dugu esaera zahar-
raren tankera handiagoa duela. Laugarren atal honetan euskal esaera zaharrak
erdal itzulpenarekin daude. Atal honetan Azkuek hustxo bat egin zuen “çure”
posesiboa “gure” irakurri zuen “cedilla” edo delakoa ez zuen, dirudienez, ondo
ikusitako. Erdarazko ordaina ere bigarren pertsonari dagokio: “tú”.

Ama, cer da escontcea? Alaba, da irutea, erditcea eta nigar eguitea. Madre, que cosa
es casar? Hija, hilar, parir y llorar.

Fraide ilkiric apestuari ez çure commaya fida. Al clérigo hecho de fraile no le fies
tu comadre.

Oraingo nerhabeac çaharrac baino gaixtoago dira. Les enfants d’a present sont plus
malitieux que les vieilles gens.

Semea asse eta circil, alaba gosse eta berreguin. Le fils saoul et déchiré, la fille affa-
mée et vêtue. El hijo harto y rompido, la hija hambrienta y vestida.

5) Bosgarren atalean esateko modu berezi bat dator: *Gure arecheen betiac*. ¡Qué
cargados están nuestros robles qué exageración! Astarl. Apol 141. Aritzac azalà cit.
vd. Larramendi. lex. v. Viejo.

ITHURBIDEREN KANTA-BILDUMA

Esku artean erabili dugun bigarren dokumentu-sorta Ithurbideri bildutako kan-
tu-saila da. Guztira zortzi kantu dira. Guk erabili dugun mikrofilm berean daude.
Dokumentuaren orrialdeen zenbakiak 469-481 dira. Zortzi kantu edo kantu puska

hauetatik sei kantu lehen aldiz C.A.F. Mahn-ek bere *Demkmaeler der Baskischen sprache* horretara aldatu zituen. Bere antologia horretan bost kantu ordena berean aldatu zituen. Antologiako azken kanta gure zortzigarrena da. Liburuaren kopia bat kontsultatu dugu Euskaltzaindiko bibliotekan. Bost kantak 74-75 orrialdeetan daude eta XXIII, XXIV, XXV, XXVI, XXVII zenbakiak dituzte. Azken kanta XXXVII zenbaki-duna da. Liburuaren antologia alderdia 37 sailetan banatua dagoela esan nahi du. Kanta hauen bertso-lerroak, gainera, jarraian idatzita daude Berlineko liburuan, marratxoak direla bertso-lerroen bereizle. Patri Urkizuk *Egan* aldizkarian argitaratu zituenean, ordea, gure erara argitara zituen. Behin kontuak honetara, galdera bat baino gehiago sor liteke. Nola transkribatu zituen Mahn-ek Ithurbideren kantak? Ondo baino hobeto gehienean. Badira dozenerdi bat hitz ondo transkribitu gabekak. Busti hitza, esaterako, “burti” eta abar. P. Urkizuren meritueta bost kanta horien parekoak edo antzekoak aurkitzean datza. Guk bigarren kanta-sail honetan gure transkripzioa jarriko dugu jatorriko eskuidatzian bezala, eta azpian Mahn-en transkripzioa, berak dakarren bezalaxe. Mahn-ek egiten dituen hutsak zein ondo-eginak begien bistakoak direnez gero euskal irakurleentzat, ez ditugu iruzkinduko. Frantseseko itzulpena ez dugu aldatuko ekarpen berririk egiten ez duelako.

Hona besterik gabe kantu-sailaren kantak.

Lehen kanta, 171 or. CHANSON ÉROTIQUE

*Guazin lagun, guazin Biyoc
Guazin attisinerat
usso churi bat yalguieten da
Attisaneko plaçarat
ursogno hura nahinuque
Bildu sarietarat*

2

*hegalac ditic arinac eta
Beguiy[a] ere ernea,
eta bera, heyequila,
izpirtus Bethea;
Beldur niquec ez den erretch
harren atzamaitea.*

3

*Attisaneco plaçan Baduc
ihistari abilic
Bat edo biya yarraeiqui ciascoc
usso harri ondotic
baïnan ecin idoqui ciotec
Batere lumaric.*

4

*Chaflacha beçain arina baninx,
yoaiteco airean,
ussugno hura harrapa niro,
airean edo lurrean;
edo Bertela sar nindáque
harren ussoteguián.*

5

*Maihatcean coin den eder
yulufraya churia!
ceimbat aldiz erran ceraundan
ussugno harrec eguia
Gabaz ungi cerratutcen cela
harren ussoteguiá.*

Mahn-en arauera: XXIII. *Chanson Érotique*. 1. Guacin, lagun, guacin biyoc,/ guacin Attisanerat./ Usso churi bat yalguiten da/ Attisaneco plaçarat. /Ussugno hura nahi nuque/ bildu sarietarat. 2. Hegalac ditu arinac, eta/ begy ere ernea,/ eta bera, heyequila,/ izpiritus bethea./ Beldur niquec ez den erretch/ harren atzemaitea. 3. Attisaneco plaçan baduc/ ihistari abilic./ Bat edo biya yarreiqui ciascoc/ usso harri ondotic,/ bainan ecin idoqui ciotac/ batere lumaric. 4. Chaflacha beçain arina bainiux/ yoaiteco airean,/ ussugno hura harrapa niro/ airean edo lurrean,/ edo bertcela sar nindaque/ harren ussoteguián. 5. Maihatzean çoin den eder/ yulufraya churia!/ ceimbait aldiz erran ceraun dau/ ussugno harrec eguia/ gabaz ungui cerratzen cela/ harren ussoteguiá.

Bigarren kanta, 473 or. CHANSON LIBRE

1

*Gure haur ume çourtza
Saïndu behar da phophertza;
aita apheza, ama Serora,
eta amasso Beata,
saïndu Behar da phophertza.*

2

*Arkulo ez hadila phoz
haur hori hona delacotz;
hitaz bercec emoancioc
hire guphelari hotz
arculo ez adila phoz.*

3

*gorainci, bai gorainci,
gorainci yaun errotorari,
Bathaya deçan bere eliçan,
icena démóla Semeari
gorainci yaun errotorari*

Il y a d'autres couplets qu'en n'a pas pu se procurer.

Hirugarren kanta, 474 or. CHANSON BACHIQUE

1

*Oï cer eguin othe çaut niri,
Bidian ibilcen ahantci;
ez dut paussuric eguiten,
non ez nicen erortcen.
Triste dut hainitz Bihotza,
indaçue arno hutza.*

2

*ene arreba juana
Badantçut arrebayauna
ni hilcen nicenean
ez eguin nigarrican
ez ekhar dolurican
emaçu fascua Burdian
edateco piyaya hantan.*

3

*Libera me cantatcean
Ez Busti hissopa urian
arnuan Busti çaçü
han ungui Trempa çaçü
Segur da nahico dudala
hilian Bician Beçala.*

XXIV. *Chanson Bachique*. 1. Oï cer eguin othe çaut niri,/ bidian ibilcen ahom-
tei;/ ez dut paussuric eguiten,/ non ez nicen erortcen./ Triste dut hainitz bihotza,/
indaçue arno hutza. 2. Ene arreba Juana/ badantçut arreba yauna,/ ni hilcen nice-
nean,/ ez eguin nigarrican,/ ez ekhar dolurican,/ emaçu flascua burdian,/ edate-
co piyaya hantan. 3. Libera me cantatuan / ez burti hissopa urian,/ arnuan burti
çaçu/ hilic ungi trempa çaçü/ segur da nahico dudala/ hilcean bician beçala.

Kantuen antologia bukatu ondoren jartzen du “hilic ungi trempa çaçu” hori eta horren lekuan izartxo bat ikusten da, kantaren transkripzioan.

Laugarren kanta, 475 or. CHANSON BACHIQUE

1

*Astezqunean yoanen guira
otzoaren ihizirat
otzoa ez bada, acheria
harturic yinen guira.*

2

*Acheria baldin bada
Behar dugu larrutu.
Larruyen ere balio du eta
dugun errepicatu.*

3

*Cembat lagun hambat hori
hambat acheri dugu
Beïrac escurat hartu eta
othoï conda guitzatçu.*

XXV. *Chanson Bachique*. 1. Aztezquenean yoanen guira/ otzoaren ihicirat,/ otzoa ez bada, acheria/ harturic yinen guira. 2. Acheria balin badac,/ behar dugu larrutu./ Larruyen ere balio du, eta/ dugun errepicatu. 3. Cembat lagun hambat hordi,/ hambat acheri dugu./ Beïrac ezcurat hartu eta/ othoï conda guitzatçu.

Bostgarren kanta, 476 or. LAMENTATION D'UN VIEILLARD

Un curé accompagne la maise du vilage dans la ronde des cabaretes à l'heure de la retraite trouvan dans un cabaret un vieillard, il lui fait une rude sermon. Le vieillard l'ecoute d'un grand sang forid, et puis lui repond par le couplet suivant:

*Gaste nincenian
hogoi urtetan
ardura nindabilan
nescatiletan
eta orai aldís ostatuetan
diru guti molsan
behar orduetan
eman neçaçu
dirutan, edo indarretan.*

Traduction:

Quand j'étais jeune à l'âge de vingt ans je courais le filles, aujour'hui en revanche je cours les cabarets, hélas lu Bourse vide; monsieur le cure rendez hus l'argent les filles, use la force

XXVI. *Lamentation d'un Vieillard*. Gaste nincenean/ hogoi urthetan, ardura nindabilan/ nescatiletan,/ eta orai aldiz ostatuetan,/ diru guti molsan. / Behar orduetan / eman neçaçu / dirutan edo indarretan.

Esan ditzagun bi hitz kanta honen gainean. Etxahunena ote da kanta hau? Patri Urkizuk *Egan* aldizkariko lanean honela dio "Ikus ahapaldi berdina J. Haritschelar jaunaren l'oeuvre poetique de Pierre Topet Etchahun. *Euskera*, XIV, XV. Bilbo 1970, 396. orr." Etxahunen lehen ahapaldia "Oraiko neskatilak" poemari dagokio. Hona lehen ahapaldia: Gazte nintzarian, hogoi urthetan,/ Ardura nindabilan neskatilakan;/ Eta orai aldiz, ostatietan,/ Diharü güti moltsan behar ordietan/ Nehork enaie ikhusi nahi kunpañetan". Badira bi ahapaldietan bateratasun handiak. Haritschelharrek berak duda egiten du honelaxe galdetzen baitu "Cette chanson, telle que nous le publions, est-elle d'Etchahun?" Kontuan izan behar dugu kantu hau Etxahunena izatekotan behin zahartuz gerozkoa izan behar duela hogei urte zituenetik oso zahartua dagoela. Etxahun 1786-1862 urtetan bizi zen eta kanta hau 1801 urten bildua da Etxahunek 15 urte zituela. Ezin daiteke, beraz, kanta hau Barkoxeko bardoarena izan. Gure bilduma honek frogatu hau bakarrik emateko balio balu, aski balio izango luke.

Seigarren kanta, 477 or. LAMENTATION DU CU CRÉANCIER ET DU DÉBITEUR

*Agur alciroïn, guison galanta
bici cireya oraiño?...
...Baï eta ere Bizi gogo,
harcecoac bildu arteraiño,...
...ala yincoa emaçu couraye
ez caude hilic oraiño.*

XXVII. *La Rencontre du créancier et du débiteur*. Agur, Alciroïn, guison galanta,/ bici cireya oraiño!/ "baï, eta ere bizi gogo,/ harcecoac bildu arteraiño."/ Ala yincoa, emaçu couraye,/ ez çau de hilic oraiño.

Zazpigarren kanta, 478 or. (BERZO BI PARAZIA)

*Berzo bi parazia
darocat buruan*

*dibertizeco cerbait
biardego neguan
dibertzieco bezala
gabiltza lanian
Cano Guetariarra
etorri dainian.*

*Aitzenzat ori zela
txit guizon guapua
oiec dihuenes
Guetariacoa
Arrisco figura
oile oitunante
oi dira nequez da
eruhitzen munduari
gure hira causa.*

Zortzigarren kanta (GIZON BAT ARDO BAGE)

*Guizòn bat ardobágue
dagó 'erdi-illa
bar-bar dabilza tripac
ardóaren villa
baño edán ezquéro
ardó ona ta onguí
guiz'oníc cascarrénac
balióditu ví.*

*Londrésen ta Parísén
Erróman ta Goán
arduáren usáia
daucáte gogoán
arduác quenzen dígu
viózeco miñá
berríz erateráco
emándit sotiñá.*

XXXVII. 1. Guizon bat ardobague/ dago erdi illa/ barbar dabilza tripac/ ardoaren villa/ baño edan ezquero/ ardo ona ta ongui/ guizonic cascarrénac/ balioditu vi. 2/ Londresen ta Parisen/ Erroman ta Goan / arduaren vsaia/ daucate gogoan/ arduac quenzen digu/ viozeco miñá/ berriz erateraco/ emandit sotiña.

ERLIJIOAREN GAIA GERRAOSTEKO
BERTSOLARITZAN:
BALENDIN ENBEITA

Jose Mari Kortazar

LABURPENA

Euskaldun gizartean sekularizazioak izan duen eragina ikertzea izan zen lantxo honen abiapuntua. Ebanjelioa, erlijioa eta Elizak Euskal Herrian izan duten eragina eta gaur egungo erronkak kontuan hartzeko, atal honetan Gerra osteko aldira mugatuko gara. Agiri eta jarrera ofizialak aparte, herri kolpatu eta zatitu hartan, nora jo erlijio gaia aztertzeraz? Bide asko legoke, baina herri herrian sustraitutako bat aukeratu dugu gure ikerketaren iturri: bert-solaritzaren esparru zabalean, Balendin Enbeita hain zuzen ere. Nekazaria, garraiolaria, gudaria gerra sasoian, teologia ikasketa apartekorik gabea, familia buru, seme-alaben aita, bert-solari eskolen sustatzailea...

RESUMEN

El origen de este estudio fue analizar la influencia de la secularización en la sociedad vasco hablante. El presente artículo mira al periodo posterior a la Guerra civil, estudia la influencia del evangelio, la religión y la Iglesia en el País Vasco en aquella época, por lo que pueda valer para entender los retos actuales. En la realidad de un pueblo dividido y golpeado, más allá de documentos y posturas oficiales, se centra en un bert-solari concreto, Balendin Enbeita, como voz profética de un sector del pueblo vasco silenciado.

RÉSUMÉ

Cette étude est née de la volonté d'analyser l'influence de la sécularisation sur la société bascophone. Le présent article aborde la période postérieure à la Guerre civile pour étudier l'influence de l'Évangile, de la religion et de l'Église au Pays Basque à cette époque dans ce qu'elle peut signifier pour comprendre les défis actuels. Dans le contexte d'un peuple divisé et attaqué, au-delà des documents et des postures officiels, il se centre sur un cas concret, celui du bert-solari Balendin Enbeita, voix prophétique d'un secteur du peuple basque réduit au silence.

SUMMARY

Covering the post-Spanish Civil War period, the present article has its origins in an analysis of how secularization has influenced Basque-speaking society. The article examines the influence of the gospel, religion and the Church on the Basque Country of the time, and may thus contribute to an understanding of present day challenges. Beyond documents and official attitudes, the article concentrates on a particular *bert-solari* (oral versifier), Balendin Enbeita, in his role of prophetic voice of a silenced culture.

Ebanjelioak, erlijioak eta Elizak Euskal Herrian izan duten eragina eta gaur egungo erronkak kontuan hartzeko, lantxo honetan gerra osteko aldira mugatuko gara. Agiri eta jarrera ofizialak aparte, herri kolpatu eta zatitu hartan, nora jo erlijio gaia aztertzeraz? Bide asko legoke, baina herri herrian sustraitutako bat aukeratu dugu gure lantxoaren iturri: bertsolaritza.

Gai aberatsa izanik, herri bertsolari bat aukeratu dugu, Balendin Enbeita hain zuzen ere. Nekazaria, garraiolaria, gudaria gerra sasoiaren, teologia ikasketa apartekorik gabea, familia buru, semealaben aita, bertsolari eskolen sustatzailea...

Lehen-lehen bertsolaritzari sarreratxo bat egingo diogu, ondoren gure bertsolariaren bizitza ezagutu eta bere bertsotan ageri den erlijio gaia eta Elizari buruzko ikuspegia aztertzeko.

1. BERTSOLARITZAZ

Zer da bertsolaritza?

Hizketan lerratzen da
gizonen bizitza
jolas edo jokoan
pozago gabiltza.
Neurriz eta errimaz
kantatzea hitza
horra zer kirol mota
den bertsolaritza. (Xabier Amuriza)¹

Bertsolariak talde bitan banatu izan ohi dira: bapatean bertsoa asmatu eta kantatzen dutenak, jendeurrean, alde batetik, eta bertso jarriak idazten dituztenak. Sarri bertsolari bera talde bietan sailkatu daiteke.

¹ ASKOREN ARTEAN, *Euskal testuen azterbideak. Literatura II*, Bilbao, 1985, 199.

Doinu baten laguntzaz, bertsoak asmatu eta kantatzea ez da Euskal Herriko arte jatorrizkoa. Ez da hau berezitasun bat. Hainbat herritan eta kulturatan, izen eta molde desberdinekin, antzeko fenomenoak ezagutzen da. Ekuadorren ere ezagutu dut nik. Gertatzen dena, zera da, gaur egun bertsolaritzak prestigioa irabazi duela, taberna zulutik atera dela eta euskaldun gizartearen nahiko zabaldu.

Prozesu hau guzti hau ez da berehala eman. Bide luzea ezagutu du. Juan Mari Lekuonak² egin zuen sailkapenari jarraituz (gaur egun idazlerik gehienek erabili ohi dutena, Aulestiak eta Kortazarrek, adibidez), honako aldiak izan zituen 70eko hamarkadara arte:

1. *Erromantizismo aurea*, 1800-1839, hasieratik karlisten lehen gerratea bukatu arte.
2. *Erromantizismoa*, 1839-1876, karlisten lehenengo bi gerrateen artean, bertsolaritzaren urrezko aroa dateke, Lekuonaren esanetan.
3. *Pizkunde-aurea*, 1876-1935, karlisten bigarren gerrateaz geroztik, Espainiako gudu zibila arte. Transizio epea, aberatsa bezain interesgarria.
4. *Pizkundera*, 1935-1968, "Bertsolari Eguna" 1935ean ospatzen hasi zirenetik, 1968an borroka armatuak eta errepresioak giro berri bat sortu zuten arte.
5. *Bertsolaritza soziala*, 1968-1977.

Balendin Enbeita (1906-1986) bertsolari "eskolatu" bezala aurkezten digu Lekuonak. Ikusten dugunez, pizkunde-aurrean hasita bertso lanean, pizkunde aroko bertsolaria dugu bete-betean, nahiz eta bere bertso jarduna azken garaian bukatu izan.

Aro honen gizarte egoerari begira, bertsolaria kaletartu egin dela esan dezakegu, euskal gizona eta gizartea ere egin den moduan. Entzulego berezia sortzen da, Euskal Herri osokoa, kulturaz eta bertso-ezagutzaz jantziagoa. Bertsolaritza komunikabideetan sartzen da, gizarte berriko jendaldeetan. Aldi honi dagokio, baita ere, bertsolari eskolak hastea, Bizkaia aldean batez ere.

Bertsolaria bapatean ari denean, jendearen aurrean, herriarekin bat egin behar du. Juan Mari Lekuonak honelaxe azaltzen digu:

Horregatik, bertsolaritzaren eta entzuleen arteko harreman honek dohai bereziak eskatzen dizkio bertsolariari plazako bertsogintzan: entzuleen munduarekiko sentiberatasuna, begirunea eta maitasuna. Entzuten dagoen jendetza ondo

² LEKUONA, J. M., *Ahozko euskal literatura*, Donostia, 1982, 91-169.

ezagutu behar du. Entzuleek bezala pentsatu behar du, publikoarekin batera pentsatu behar ere. Gauzarik txikienean entzuleek sortaraz dezakete poemarik gustagarriena.³

Bertsolaria bere kontura bertsoak jartzen, jakina, askoz libreagoa ibiliko da herriarenganako. Hala ere, bertsolaria sarri herriaren ahots gertatzen da, plazan nahiz bertso-jarrian, inork “profeta” edo “herriaren mezulari” izendatu duelarik.

Bertsolariaren eta herriaren arteko identifikazio hori, Xabier Amurizak⁴ beste adibide batekin azaltzen digu, bertsolari eta entzuleen arteko *elkarrikotasunen* seinale, entzuleak bertsolariarekin batera bertsoa amaitzea.

Guk ez dugu teknika gai hori ikertuko, Amurizak “elkarrikotasun” bezala definitzen duena baino. Lekuonak “sentiberatasuna, begirunea eta maitasuna” idazten zuen. Hitza hitz, bien arteko, entzule eta bertsolariaren arteko sintonia hori.

Jakin badakigu hau ez dela definizio matematiko zehatz bat, baina laguntza ematen digu herriaren pentsaera erlijiosoa aztertzerakoan, bertsolariengan jartzeari gure arreta nagusia.

Lan hau egin gabe dago oraindik, gehien bat. Mintegi honen helburuarekin bat, gerraosteko erlijio gaia eta Elizari buruzko ikuspegia ikertzeko, zilegi zaigu bertsolari mundua aztertzea. Bertsolaritza osoa azertu ezinik, bertsolari familiako den Balendin Enbeitaren bizitza eta bertso lanak aztertzeari ekingo diogu.

Azterketa maila desberdinetan egingo dugu, apur-apurka sakonduz, eta maila desberdinak elkar lotuz. Lehenengo eta behin, gure bertsolaria eta bere giroa eza gutuko ditugu. Bigarren, erlijio gai eta baloreak, ohiturak eta edukiak bildu eta sailkatu egingo ditugu. Ondoren, topiko errezetatik ihes egiteko, bere autobiografiaren laguntzaz, bere pentsakera gai honetaz zein izan zitekeen asmatzen saiatuko gara. Azkenik gai zehatza aztertuko da, bakea, eta konklusio probisional batzuk ateratzen saiatuko gara.

Polito letorke, gai berau aztertzea garai desberdinetako bertsolari bana aukeratzuz, ondoren bata bestearekin konparatzeko. Hortxe dago erronka.

2. BIZITZA

Balendin Enbeita Goiria Bizkaiko Muxikan jaio zen 1906ko maiatzaren 20an. Egun horretan Elorrioko seme zen Balendin Berriotxoakoa beato edo dohatsu izendatu zuten, haren izena ipini zioten.

³ LEKUONA, J. M., *Op.cit.*, 127.

⁴ AMURIZA, X., *Bertsolaritza 1. Hitzaren kirol nazionala*, Bilbo, 1981, 42-45.

Aita Kepa Enbeita, Euskadiko “Urretxindorra”, bertsolari fin eta ahots zolikoa. Ama Benita Goiria.

Hamabi urterekin hasi omen zen bertsoan aititarekin, Ariatzako tabernan.

Eskola urrikoa zen. Zazpi urterekin hasi zituen lehen eskolak, Oka auzunean, Don Pedro apaizarekin. Hala ere, etxeko lanak zirela eta, laster utzi behar izan zituen. Ondoren tailer batean lanean, Bilbon hain zuzen ere, lanorduak bukatu eta arratsaldeko seietatik aurrera “Artes y Oficios” izeneko eskolara.

Gaztaroko giroaren adierazgarri, hona aldatuko dugu Gabon eguneko etxeko ohitura bat:

Apaltzeko mahaia gertu jartzen zanean, danok aitaren goiko gelara joaten ginan, han egoan Jesusen Bihotza hartu eta aita aurretik zala, «Kristo Gure Errege» abestuz ekarten genduan. Gero afaria hasteko zutunik otoi egin, mahaia bedeinkatu eta, aitita mahai buruko zala, sendiko batasunik ederrenean pozezko gabonak ospatzen hasiko ginan.⁵

1932. urteko beste istorio bat ere hona ekarri behar dugu. Errepublika garaia zela, hain zuzen, herriko zazpi lagunek erabaki bat hartu zuten: Atzeli mendian, Usparitxa gainekoa hain zuzen ere, bere gailurrean gurutze handi bat jarri: “zor-tzi metro ta erdi luzeran, bi metro ta erdi zabaleran”. Talde horretako kide Balendin izan zen:

Gazte nintzala talde bat gendun
euskaldun jatorra eta fededun
hartu genduan erabagia
jartzeko gurutz paregabia:
esan ta egin
jarri genduan Atxeli Mendin
herri osoan ikusi zedin. (BJ 181)

1935eko azaroaren 30ean, San Andres eguna, hain zuzen ere, Klara Ealorekin ezkondu zen.

1936an Espainiako matxinada, lana galdu, anaiak banandu eta gerratearen garratza dator kio gainera. Bizkargiko frentean zebilela, enlaze lanetan, zauritu egin zuten. Handik ospitalera, Santanderrera... Eusko Gudarostea italiaroen aurrean errenditu arte. Balendinek ere bere kartzela zigorra jaso zuen: hamabi urtekoa. Lau eman zituen preso Santander eta Puerto de Santa Marían. Hona zelan laburbiltzen digun gerratearen ondorioa euskaldun galtzaileentzat:

⁵ ENBEITA, Balendin: *Bizitzaren joanean*, Donostia, 1986, 141.

Egun baltzak euskaldunontzat. Negarra ba zan, Aberriaren negarra. Aberria itzi eta etsaiaren menpe, herbestean jausi beharraren negarra. Anaiak bananduta, sendiak zatituta, etsaia, gorrotoz, «asesinos» deadarka... etab. (BJ 23)

Balendin, jatorriz, familia bertsozale eta bertsolari baten kide dugu. Hona Santi Onaindiak dirauskuna:

Enbeita'tarrak, dudarik gabe, aintziñatik dute bertsolari jatorria –dinstia esan bear ei dugu gaur–. Denok ezagutzen degu Balentin'en aita, Kepa Enbeita, Muxika'koa ez-ezik Euskalerrri osoko Urretxindorra, eta onen anai Imanol, eta bere anai-arreba ta seme-alabak. Sendi osoa bertsolari...⁶



1953. urtean herriarentzat antzerki bat pres-tatu zuen, bertsoz emana osoa, eta bere gaia: *Jesusen bizitza* (BJ 50, NA 17). Aria-4tzan, Ibarrurin, Mendatan eman zen eta herriko apaizen oniritzi eta propaganda eta guzti.

Bertso lanean, *Garriko* izena hartu zuen lehen bertso eskolaren sustatzaile eta partaide izan genuen. Gaur egun non-nahi daude bertso eskolak, baina hura izan zen lehena Euskal Herrian. Bizkaiko Bertsolari Txapelketako irabazle ere suertatu zen 1958 eta 1959 urteetan (NA 16).

Seme-alabak, umetan hildakoa izan ezik, hauek izan zituen: Kepa, Abel, Libe, Moises, Joseba Andoni eta Jon. Biloben artean ere badu bertsozale eta bertsolari-rik Balendinek.

1974. urtean, Donostian, Omenaldi Nazionala egin zitzaion bere lanagatik.

1986. urtean, etxeko teilatua konpontzen zebilela, handik erori eta Usansoloko erietxera eraman arren, bertan hil zen.

Kapitulu hau bukatu orduko, hona zer idatzi zuen aitaginerraba izan zuen Gabino Ealori buruz:

⁶ ONAINDIA, Santi: *Itzaurrea*, in *Nere apurra*, Tolosa, 1974, 11.

Berba gitxiko gizona zan, egizko euskaldun fededun eta abertzale zintzoa [...]. Hitzeko gizona zan, sekula berba bat bestea baino gorago esango ez ebana. (BJ 52)

Topiko honen barruan, euskaldun fededun moduan ezagutu duguna, horra hor berba gutxitan muina esana. Ideia berau garatuko du zehatzago *Joanes artzainaren sinismena* bertso sortan (NA 131-133), edota *Neure baserriko bizitza* izena duen poeman. Hona ataltxo bat:

Jagi ta lenengo lana
auxe egiten doguna:
zuzendu Jaunarengana;
Berai eskiñi neke ta lanak,
eskatu laguntasuna,
jateko eta edana,
guretzat berak emona,
bere eskuan utzi dana. (NA 138)

3. IDAZLANAK

Balendinek bertso ugari egin zituen, bai bat-batean baita bertso jarriak ere. Bertso asko bere aldiko aldizkarietan argitaratuta daude: *Euzkadi*, *Jangoiko-Zale*, *Jesus'en Biotzaren Deya*, *Zeruko Argia*, *Arantzazu*, *Karmengo Amaren Egutegia*, *Anaitasuna*, *Arantzazu'ko Egutegia*, *Goiz-Argi*, *Karmel*, *Euskeria*, *Olerti*, *Txistulari*, *Principe de Viana*, etab.

Dena dela, lantxo hau egiterakoan, esku ditugun liburu bi erabiliko ditugu batez ere:

- *Nere apurra*, Tolosa, Auspoa, 1974, 265 orrialde⁷.

Argitaralpen honek Santi Onaindiaren hitzaurrea dakar, eta Auspoa bilduma ospetsuaren ale bikoitza da, 117-118 zenbakiduna, hain zuzen ere.

Bertso pilo bat dakar liburu honek. Egin zitzaion omenaldi nagusiaren ildoan egina. Hala ere, gauza pare bat izan behar dugu kontuan. Zein urtetan argitaratu zen, gai batzuei buruzko bertsoak oraindik ezinezkoa zela argitara ematea. Beraz nagusi izango dira erlijio gaiak, euskerari buruzkoak, ohiturak, etab. Zentsura bat egon badago. Bigarren oharra, praileek eratutako liburua izanik, baduela joera argia motiboak aukeratzerakoan. Hala ere, hau kontuan izanik, bertso bilduma aberatsa dugu hau gure gaia aztertzeke.

⁷ Irakurle zorrotza dagoeneko konturatuko zen NA laburtu dugula liburu hau lantxo honetan.

- *Bizitzaren joanean*, Donostia, Elkar, 1986, 194 orrialde⁸.

Liburu hau bere autobiografiaren lehen liburua da, jarraitzeko asmoa izan arren, heriotzak honetan mugatu zuen bere lana. Urteagatik, pasarte biografikoek argitasun asko ematen digute batez ere gerrate sasoi haiei buruz. Prosaz aparte, hainbat bertso ditu tarteka eta liburu amaieran. Aurreko liburua baino laikoagoa izanik, kontrapuntu interesgarria jartzen digu gure bertsolariaren fede ikuspegian barneratzeko, topikoaz aparte, zertzelada finagoak eman ahal izateko.

4. FEDEAZ LAGUNDURIKO BIZIMODUA

Euskaldun bertsolari honen bizitza, fedez lagunduriko bizimodua izango da. Denbora eta urtaroak, tokiak, santuak, Andra Maria, Erlijioa, gizabanakoa, baloreak... federekin eskutik dabilta. Naturaltasun osoz erlijioaz bustitako bizitza izango da. Hori dela eta sarritan *euskaldun fededun* topikoa errepikatu da non-nahi. Zein fede ageri zaigun sakontzeko ahalegina egiten badugu, zehatzago jokatu behar izango dugu. Dena dela, metodologia bat jarraituz, aztertu dezagun lehen-lehen orokorra dena, fedez lagunduriko bizimodua (3. atala), aurrerago (4-6. atalak) zehaztasun garrantzitsu batzuk egiteko.

4.1. Denbora eta urtaroak

Denboraren iraupen arruntean, ohiko martxa etengabea, erlijioak markatuko ditu intentsitate sakonagoko unekadak. Eguneroko *kronos* horretan, izango dira une, egun edo aldi sakratuak, *kairos* izenda ditzakegunak, jainkotasunaren oihartzun zoli eta gardenagoa dutenak, hain zuzen ere.

Egunari dagokion martxan, ikusi dugu lehenago ere, goizeko otoitzaren garrantzia (NA 138), Jainkoari eskaini eta eskatu, joko bikoitz horretan, egunaren nekea eta zeregina. Aditz bikoitz osagarriak ditugu eskaini eta eskatu, gizakiaren jarrera osagarrien ispilu. Nire ustez, magiatik harago dagoen fede ikuspegia ere ikus dezakegu bertan, gizakia Jainkoaren laguntasunaz, Jainkoaren lankide egingo baitzaigu!

Urtearen erritmoa ere erlijio jaiek markatzen dute gehien bat. Gabon jaiei buruzko azalpenak eta garrantzia ere ageri da bere lanetan (NA 30-31; BJ 140-143; NA 253-255; NA 249-250):

⁸ Irakurle zorrotza dagoeneko konturatuko zen BJ laburtu dugula liburu hau lantxo honetan.

Belengo seaskatik
maitasun eske,
eta mundu guztia
alkarrez burruke;
bakoitzentzat berea
emongo bageunke,
zorioneko Gabon
izango genduke. (NA, 254)

Beste une aipatua, auzoko jaien ingurukoa izango da, *Santa Kurtze* jaiak hain zuzen ere (NA 25; 91; BJ 96-101):

Ariatzako jaiek
Santa Kurtzietan,
Irailan amalauan
urte guztietan;
naiz aberatsetan
bardin txiroetan,
jan-edanen paltarik
ez da etxietan,
naiz-ta eskas ibilli
beste egunetan. (NA 25)

4.2. Tokiak

Tokiak direla eta, antzeko gauza esan dezakegu. Ohiko eta eguneroko tokietan, badira toki sakonago edo sakratuagoak. Batzuk aintzinako euskal sinismenetik jaso eta bateatuak: mendi gainak, kobak, etab. Besteak gaur egungo eraikin apropos eginak: ermita, eliza eta santutegiak.

Ermitak direla eta:

Mendi goietan Kurutza Deuna,
ermitatxuak ugari,
egunsentiko argia Jaunak
lenen damotse eurari.
Asaba zarrak jarriak dira
siñismenen ezaugarri,
zer ikasia damoskularik
beian bizi garanori. (NA 114)

Hona, bada, uztarturik, asabengandik datozkigun toki sakratuak eta kristau erlijioaren ezaugarriak, haietan jarriak: gurutzea, ermitak...

Horra hor, baita ere, *Usparitxako San Migel ermitaren historia* (BJ 153-154).

Aipa ditzagun, labur-labur. Auzuneko *Eliza*, auzokoen bilgune eta bihotz, edota Muxikako San Bizente parrokia (BJ 112). Gogoan izan dezagun, gaztaroan mendi gainean jarritako *gurutzea*.

Santutegiak ere ageri dira bere bertsoetan: Arantzazu, Arrate, Urkiola...

Euskal lur osoa, hala ere, Jainkoak bedeinkatua da:

Alde egiñagaitik
gure gurasoak;
emen lotuko dira
mendi ta basoak;
baserri eta zelai,
sagardi, soloak,
euskaldun zaindu bediz
Aita Jaungoikoak. (NA 51)

4.3. Santuak

Denbora eta toki berezi batzuen antzera, badira fedearen ikuspegitik pertsona edo gizabanako berezi batzuk, Jaunaren adiskidetasun estuan bizi eta guretzat eredu eta aterpe direnak, santuak hain zuzen ere. Euskal herri-erlijioan garrantzi handia izan dute auzo, herri edo pertsonen babesle eta zaindari bezala.

Santuen akorduz markatzen da urtea, edo fetxa garrantzitsuak gogoratu. Hala ere, Balendin Enbeitak, bere bizitza kontatzerakoan, dataren ondotoxoan, eta beharbada data baino garrantzitsuago denez, eguneko santua dakarkigu: jaiotegunean bere izenaren arrazoia azalduz (BJ 13), San Andres egunaz ezkondu (BJ 19) San Antonioren bedeinkazioaz Urkiolan (BJ 179), etab, santuen izendegian oinarritutako *egutegi* paralelo bezala.

*San Jose*ri eginiko bertsoak *Joseba Deunari eskatzen* (NA 177-178) edota *Xabierko San Frantziskori* (NA 251-252):

Jaiotzaz eta izatez bardin
Xabier euskalduna zan,
Xabier egiz maite badogu
euskaldun izan gaitezan;
egizko euskaldun ez bagabiltza
etxe, plaza ta eleizan,
gure Xabier maite dogula
guzurrik ez daigun esan. (NA 252)

4.4. Andra Maria

Herri-erlijioaren beste ezaugarri bat, Andra Mariari emandako garrantzia da. Luze idatz dezakegu puntu honi buruz, gabon giroko Andra Mariaren aipamenak eginaz. Hala ere, gai hori aurrerago ere jorratu dugunez, hiru bertso ekarriko ditugu hona bakar-bakarrik. Ikuspegia, denetan, Vatikanoko II. Kontzilio aurreko Mariaren irudia dugu: *Sortzez Garbiko Amari* (NA, 195-197) guztiz apologista, garai hartako nahasten harira; *Arrate ixilik* (NA, 205-206) Arrate Irratian jarri zuten lehergailua zela eta:

Garai batean Arrateko Ama
 eberdiko amabietan
 irrati-bidez asten zanian
 kantuz eta bertsoetan,
 pozez beterik jarten genduzan
 geure bazkal-orduetan;
 erri-izparrak zabaltzen zitun
 zeaztasun guztietan,
 alaitasuna besterik etzan
 euskaldun sukaldietan. (NA 205)

Eta azkenik, *Aloiña mendi gainian* (NA 39-41), Arantzazuko Amari eskainitako bertsoak:

Mendi onixek oñian dauka
 eleiza eder bat baketsu,
 bere inguruak zeruko argiz
 jantzirik daukaz loratsu;
 gizaldietan emon izan dauz
 ainbat eliztar jakintsu,
 lurbira ziar zabaldu be bai
 Kristoren egi mamintsu,
 mundu guztiak gaur goratzen dau
 Euskalerriko Arantzazu. (NA 40)

4.5. Erlijioa eta elizgizonak

1953. urtean, auzoko jendearen laguntzaz, Balendin Enbeitak *antzerki* bat prestatu zuen, bertsoz kantatua, *Jesusen bizitza* izenekoa (BJ 50; NA 17). Berak kontatzen digunez, herriz herri aurkeztu zuten bere inguruan, herriko apaizen laguntasun eta propagandarekin.

Arratia'ko mixiñoiak dirala-ta bertso sorta (NA 57-58) herrietan ematen ziren *misioak* dakarzkigu gogora. Hona nondik norakoak, 1956. urtean egindakoen gainera:

Bedian asi ta Ubider'arte
hamabost egun luzian
mixiolari onak ôn dira
arratiarren errian. (NA 57)

Hala ere, gure bertsolariak, hitz hutsetan geratu gabe, konpromisorako deia egingo du bere kantuan:

Jakin dagigun itzak bakarrik
aixiak daruazala,
eta egipenak gizona nor dan
ondo erakusten dabela. (NA 58)

Azkenik *elizgizonak* ere aipa ditzagun. Horien artean, Aita Martin karmeldarra hil zela eta, eginiko bertsoak (NA 128-129); Don Pedro haurtzaroko bere apaiz eta maisuari buruzko aipamenak: “Abade jatorra zan, euskal zalea eta egiazko euskotarra. Okan egon zan arte gauza eder asko egin ebazan. Bere ikasleak maite ebazan eta gizon eta euskaldun ataratzen ahalegintzen zan [...]. Frankoren otseinak, gorria zala esanaz, salatu eben eta Harora desterratua izan zan” (BJ 158); Don Ilario abadeari esandakoak (NA 158-159); edota Joan XXIII.a hil zela eta eginiko bertso sorta. Hona zortziko bat:

Lau urte eta zazpi illabete
Aita Santu egin ditu,
egin dituan lan ederrakaz
guztiok gaitu arritu:
mundua batu,
egia autortu,
aundikeria baztertu;
danak diñue olango Aitarik
ez dala iñoiz ezautu. (NA 156)

Elizgizonei buruzko aipamen positiboak baino ez ditugu hona ekarri. Honek ez du esan gura haien aldeko jarrera ezkritiko bat zuela, hurrengo ataletan ikusiko dugu eta, elizgizon gaiztoak ere kontuan zituala, eta ondotxo zekian batzuk eta besteak bereizten.

4.6. Gizabanakoaren bizitzan

Gizabanakoaren bizitzan ere, badira une esanguratsu eta apartak: jaiotza, ezkontza, heriotza, etab. Kristautasunak sakramentuen bitartez lagundu izan ditu uneok, eta halan geratuko zaigu islaturik, Balendinen bertsoetan.

Ezkontza dela eta, izen bereko bertso sorta, Ariatzako Eleizan botata 1973ko azaroaren 24.ean (NA 260-261), edota bere emazteari zorionak ematen ezkontza-ren 48. urteurrenean (BJ 178-179). Hona sorta honetako hirugarren zortzikoa:

Urkiolako eleizan gendun
buztarria hartu lehenbizi
Ordutik hona gorabehera asko
egin ditugu ikusi
Baina buztarri hori gaur arte
ez da lokatu ez hausi
San Antoniok bizkar gainean
ondo egin euskun josi. (BJ 179)

Heriotza dela eta, *Jesusen eriotza* izeneko bertso sorta dugu, bere heriotza gure-arekin konparaturik. Hala ere, hunkigarriena, aita-semeak istripuan hilda eginiko *Igor il zaneakoak* bertsoa dugu:

Aman biotza zauritutzen da
seme bat galdu orduan,
senar ta seme galdu dituna
errukarri da munduan.
A la lumière de nouvelles trouvailles, nous analysons la présence des propositions finales à subjonctif en *-ntzat* en biscayen. Il est argumenté qu'elles appartiennent au stade historique le plus ancien, aujourd'hui attesté par Pérez de Lazarraga, mais qu'elles se limitent à la zone la plus méridionale du biscayen et aux dialectes limitrophes, en dehors de la vaste implantation qui a été la sienne dans le dialecte labourdín, également dès les premiers textes. Cette constatation nous conduit à une localisation plus exacte du texte bien connu du XVII^e s., *Viva Jesús*, et nous permet d'éclaircir les conjectures qui le concernent. La question controversée de la chronologie du système flexionnel du subjonctif en biscayen est laissée pour un prochain article.

SUMMARY

New discoveries have led to this examination of the frequency of final sentences with subjunctive in *-ntzat* in *vizcaíno*, the Vizcaya dialect of the Basque language. The article argues that this belongs to the older historical phase, a view supported now by Pérez de Lazarraga, although limited to the southernmost area of *vizcaíno* and neighbouring dialects, and apart from its broad implantation in the *labortano* dialect from the earliest texts onwards. This also leads us to a new, more accurate location of the well-known 17th century text *Viva Jesús*, clarifying a number of related conjectures in the process. The controversial issue of the chronology of subjunctive inflections in *vizcaíno* will be dealt with in a later instalment.

Pérez de Lazarraga poetaren testu aurkitu berriak² lehengo ustekizun batzuk, alde batekoak eta bestekoak, egiaztatu eta gezurtatu egin ditu ezinbestela³. Orobat, faltsuki itxitako atek atzera irekitzea eta testuen berrirakurketa sakona eskatzen dizkigu, bai eta lozorroan zirauten galderak atzera azalarazten ere, hala nola dibergentzia dialektalarena, dialekto ezberdinen arteko harreman eta interakzio-ena, bizkaierazko koiné zahar baten esistentziarena, arabera bataiatu-rikiko euskalkiaren karakterizazio lausoarena⁴, testu batzuen adskripzio dialektalarena⁵ edota konparaketarako-berreraiketarako objetuena. Bizkaierako subjuntibo zaharrena dateke, bat baino gehiago direla aldarrikatu behar baitugu, berrazterketa ozenki eskatzen duen puntu horietako bat.

Subjuntiboak hizkuntzaren fondo zaharrari dagozkiokeen egitura eta forma bertsuak ditu euskalki guztietan. Ezberdintasunak, ez lehen eta beharbada are gutxiago orain, ez dira handiak, eta azalekoak dirudite. Bizkaiera zaharreko⁶ testuetan, egun mintzatzen denean ez bezala, subjuntiboa ez da, itxura batean, gehiegi aldentzen gainerako dialektoetakotik, dibergentzia edo aldentze historikoaren teoria baieztatuz datorkeena. Badira, alabaina BZeko subjuntiboaren

² Jatorrizko testua erabili izan badugu ere, Patri URKIZUK paratu eta argitaratu berria den ediziotik egingo ditugu aipamen eta erreferentziak: Joan PÉREZ de LAZARRAGA, *Diana & Koplak*, Erein, Donostia, 2004.

³ Artikulu honen mamia, orain hilabete batzuk idatzia da, beste gauza interesgarri batzuen artean subjuntibozko forma interesgarri bat dakarren 1770eko testu baten aurkikuntzaren harira, inguru bereko 1773ko beste testu batekoak gogora zekarzkiguna. Orain, ordea, P. de Lazarragaren testuaren aurkikuntzak txiki utzi ditu gainerako guztiak, baina, aldi berean, XVIII. mendeko aipatu testu berri bi horietan aurkitutako subjuntibozko forma kilikagarri horien garrantzia estali ez, baina agerian uzten du, P. de Lazarragak berak berrehun urte lehenago darabiltzan batzuekin bat baitatuz.

⁴ Aurkezten diren ezaugarri bereizgarri batzuk ez dira oso pisutsuak, bokal geminatuen faltarena, kasurako, orain P. de Lazarragak –Arabako euskararen ordezkariatza jo behar badugu behintzat– goitik behera gezurtatua. Laster aurkeztu behar dugun Urduñako testu batean ere, *erlea* irakurtzen dugu, bokal geminatu garbiarekin.

⁵ Betolazak, E. KNÖRREk haren deiturako herrian jaioa zela idoro zuen arte, ez genekien nongo euskara zuen, bizkaiera zela baino ez, alegia. Arabakoa zenik susmatu ere ez genuen egiten. *Viva Jesús*, haatik, Orozko-Laudio ingurukotzat emango genuke guk orain. Kapanagari dagokionez, bestalde, aldaketa ez da handia, geografikoa ez behintzat; baina Durangok bazituen eta baditu Mañaria bezalako herri txiki batek ez zituen eta ez dituen ezaugarri franko, Arzadun eta Urkizuren esistentzia beste era batera ulertarazten digutenak, besteak beste. Natxo URKIJOK, bestalde, ez du garbi ikusten E. KNÖRREk eza-gutzera emandako *Bula ineffabilis*-en 1864ko itzulpena Laudioko euskararen dagoenik (*Zenbait apunte Laudioko euskaraz*, Udako Euskal Unibertsitatea, Bilbo, 1994, 17. or.).

⁶ BZ, hemendik aurrera.

inguruan ondo ezkontzen ez diren datu eta fenomeno sailak, orain datu berrien harira berrinterpretatu daitezkeenak eta, orobat, datu zaharrak berrirakurtzera bultzatzen gaituztenak. Hurrengo lerroetan bizkaiera zaharrak eta modernoak, edo idatziak eta mintzatuak nahiago bada, subjuntiboari buruz darabilten estrategia dibergentearen nondik norakoak aurkezten saiatuko gara.

Esan bezala, badira bi datu multzo nolabaiteko kontraesanak aurkezten dizkigutenak. Izan ere, BZeko testuetako subjuntiboa ez dator oso eta beti bat herriak egun nagusiki darabilenarekin, ezta, gure iritziz, behinola zerabilenarekin ere, berau frogatzea aurrekoa bezain erraza izan ez arren. Batetik, lapurteraz Leizarragaren denboratik hona hain ezagunak diren *-n+tzat* subjuntiboak eta bizkaieraz⁷ ere gutxi-asko erabiliak izan direnak oso bakanki azaltzen dira bizkaierako testu zaharretan, Pérez de Lazarraga eta *Viva Jesús* salbuespenak salbuespen, baina bai testu modernoago batzuetan⁸, XIX. mendekoetan, bereziki. Bestetik, literatur bizkaierako *didin*, *zidin* flexioen falta ia erabatekoa dugu ahozko euskararen, ahozko euskarako *daitean*, (*z*)*eitean* flexioak BZeko literatur tradizioan kasik testatzen ez diren bitartean.

Kontraesanak, alabaina, kronologia testualak eta metodo berreraikitzaileak eskaintzen dizkigun beste zenbait lanabes, anomalien legea esaterako, itsumustuan



Lazarraga jauregia, Larrea, Barrundia (Araba).

⁷ Gipuzkeraz, Ipar Goi Nafarreraz eta, orain, Araberaz ere erabili izan dela baieztatu dezakegu.

⁸ Zabalkunde urriago baten ondoren, desagertzea ere, bizkaieraz goizago eta bortitzago eman da, dudarik gabe.

aplikatzen ateratzen zaizkigun konstruktoen eta datuen irakurketa arretatsuago batek ematen dizkigun ebidentzien errekonstruaren ondorio huts eta soilak dira, ez bestelakoak. Pérez de Lazarragaren lekukotasunik ezean, testuen kronologiak *-n+tzat* lapurteraz egitura zahartzat harrarazten zigun bitartean, berrikuntzat harrarazten zigun bizkaieraz ia Añibarrok bakarrik erabilitakoa. Aitzitik, aipatu egituraren banaketa dialektalak, isolaturik eta erdialdeko dialekto batean ageri baitzen, bere zaharrean, lapurteran berean ere berrikuntzat interpretatzera gonbidatzen gintuen, bazterreko eremuen kriterio hutsari kasu egiten bagenion, behintzat. Datuak, zaharrak eta berriak, arreta handiagoz miatuta, eta Lazarragak dakarzkigun *leguiança*t eta *çeitean* flexioak lagun, orain arteko interpretazioak arin egitza hartu behar izaki, datuen berrirakurketa inposatzen da. Arazoa ez da hala beharrezkoa, metodoen orain arteko aplikazioaren hutsa baizik, edo bestela esanda, Axularren hura parafraseatuz: hobena ez du metodoak, metodo aplikatzaileek baizik. Testu zahar berriak agertzearena beti baita berreraikitzaileak behar eta desiatzen duena, egindako lanaren azken bateko bermea, edo nahiago bada, berre-raiketaren faltsatze popperianoaren papera bete dezakeen lanabesa.

Hemen eta orain aurkezten zaigun eszenatoki metodologikoa interes bizikoa da. Flexio hauek, beren txikian, nahikoak dira BZeko gainerako testu guztien isiltasun ia erabatekoaren indar probatzailea zalantzan jartzeko. Gurean hainbesteko pisua izan duen eta oraindik orain duen *ex silentio* argumentazioa abaildu egiten da, Mitxelena maisuak hainbestetan esan eta idatzi bezala, oso argumentazio ahula suerta baitaiteke, dogmatismo militantearen etsai gupidagabe hau. Testuen urritasunak arropa gutxirekin gaudela gogorarazi digu oraingoan eta ditugun lekukotasun guztiei, txikiak eta modernoak irudiagatik ere, kasu gehiago egin behar diegula berretu. Izan ere, hots bakar batek mila isilune hauts ditzake. Denon ezaguna izanagatik ere, ez du pertinentziarik eta gaurkotasunik galtzen Mitxelena maisuaren testu ahaztezin honek:

“No hay necesidad de suponer o postular nada: basta con examinar textos antiguos. Una larga experiencia me muestra cada día que es un procedimiento expuesto a toda clase de equívocos el pretender distinguir a priori en hechos modernos entre arcaísmos e innovaciones, además de inútil, cuando esto puede hacerse con toda seguridad sin otra molestia que la de examinar textos de hace tres o cuatro siglos”⁹.

Subjuntiboa, modu irreal den aldetik, aditz ekintzaren gertatze hutsa (bere kontestu aspektualean) adierazten ez duten hainbat egituratan baliatzen da, hurrengo lerroetan aztergai izango ditugun helburuzkoetan, edota denborazkoetan, besteak beste. Flexionario propio hauen erabilera, bestaldetik, asko eta dia-

⁹ *Fonética Histórica Vasca*, 2. edizioa, San Sebastián, 1976, 14. or.

lekto guztietan murriztu da historian barrena; aipatu denborazko hainbat egituratan, nabariarik.

Arazo kontzeptualak alde batera utzita¹⁰, esan dezakegu hizkuntzak badituela subjuntiborako paradigma berezi edo berezitu batzuk, neurritz behintzat, beste funtzio batzuk ere betetzen dituztenak edo garai zaharretan bete dituztenak, *aoristo* deitu izan zaiona, kasurako. Flexionario berezitu hauen osagarri edota ordezkagarri, menperagailu nagusi biek ere, *-n* eta *-la* hurrenez hurren, parte hartzen dute subjuntiboan erabateko sinkretismo batean.

Hori dela bide, zenbait egitura pleonastiko bilakatu dira indar eta zabalera ezberdinez. Honela deskribatzen digu fenomeno Luis Villasantek:

*“El modo normal y corriente de expresar la finalidad es aplicando el sufijo -n a la flexión verbal. Cuando el verbo está en subjuntivo, ya de suyo la flexión termina en -n, razón por la cual ésta no sufre alteración alguna.”*¹¹

Eta aurreraxeago arrazoibidea burutzen:

*“Tal vez, por esta razón, por el poco cuerpo y relieve que tiene esta forma de expresar la finalidad, y porque el sufijo -n sirve además para muchas otras funciones, Ax[ular], y en general los autores orientales, acostumbran a reforzar esa -n final con la palabra amorea(k)gatic, que sigue al verbo que lleva la -n.”*¹²

Axularrek, aurrekoaz gain¹³, *-ngatik* ere badarabil funtzio berbererako. Hauxe da nafarreraz aurkitzen duguna, Elkanoko Lizarragaren idatzietan, esaterako. Bestaldetik, hauxe da, azken batean, baina aditz izenari loturik, kausazko eta helburuzko perpausak eratzeke darabilgun baliabidea ere. Baina badago beste egitura paralelo bat, Villasantek berak honela aurkezten diguna:

*“Otro modo de reforzar el sentido final de la -n es agregando a ésta el sufijo destinativo -tzat de la declinación. / Este uso se encuentra atestiguado en autores de diversos dialectos.”*¹⁴

¹⁰ Gontzal ALDAIk artikulu interesgarri zenbaitetan lozorrotik atereak: «A propósito del aoristo vasco», *FLV* 79, 1998, 377-86. or., bat besterik ez aipatzearen.

¹¹ *Sintaxis de la Oración Compuesta*, Editorial Franciscana de Aranzazu, Oñate, 1976, 136. or.

¹² *Ibid.*, 137. or.

¹³ Hona Blanca URGELLEk *Geroko Gero*-ren edizioan esaten diguna: “AMOREKATIK: *Iparraldeko esapidea avazorik gabe onartu du, ziurrenik itxurak hartaraututa (ik. OEH, AMOREKATIK, s.v. amore), noiz amore gordeaz (gure amoreagaiti 16-129/130, neure amoreagaiti 28-43, aitaren amoreagaiti 28-143), noiz maitetasun bihurtuta (aitaren maitetasunagaiti 0-76, bere maitetasunagaiti 16-132), noiz bestela (aren amorez ta beguiramentuz 28-139/140). Harrigarriagoa da, ordea, helburuzko balioa duenean ere onartzea: egon etzedin amoreagaitic < etcegoen amoreac gatic (1-67/68), letorquien amoreagaitic < ethor cequien amoreac gatic (9-192), Cerura ta Ceruco laguntasunaz baliu gaitecen amoreagaitic < cerura eta cerucoetara fidantcia handiarequin laster daguigun amoreac gatic (10-37). Ohartu behar da kontuaz jabetu ondoren ere erabiltzen jarraitu zuela, hein bateraino behintzat, aurreko adibideen artean sakabanatuta dauden bestelako itzulpenek diguten bezala: egon ez litecen < etzeudecin amoreacgatic (1-81), bildur izan gaitecen gaitic < veldur garen amoreac gatic (9-93), larga daguizuzan < utz ditcatçun amoreac gatic (11-106), pobreai zabaldu, emon ta aldatu daguien < probetara parti deçaten amoreac gatic (16-111/112), sinistu daguiontzat < sinhetz deçaten amoreac gatic (19-252/253). Eta, azkenik, behin zeharo okertu da: maite dodazalaco < dugun amoreacgatic (1-160/161)”, *Geroko Gero*, Bizkaiko Foru Aldundia, edizio digitala, CLXXXIII. or.*

¹⁴ *Ibid.*, 137. or. Jesús María Agirrek, berriz, honela deskribatzen du: “*Iparraldean helburu, asmo edo xedearen iragarpena, marka gehigarriaz lagundurik ere bideratzen da. Baliabide osagarri hori, batzutan -ENTZAT, -GATIK atzizkia da, arrazoia eta helmuga bateratzen direlarik*”, *Euskal gramatika deskriptiboa*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1991, 806. or.

Villasantek seinlatu dialektoak, Axularren lapurtera bera eta bizkaiera baino ez bide dira, ez baititu Haraneder eta Duvoisin batetik, eta bere anaia kuttun Añibarro bestetik aipatzen, azken honen adibide hau ematen digularik:

“*Onela fededun guztiak ikhasi egientzat modu batera Kredoa*”¹⁵

Egitura honek Añibarroengan¹⁶, eta bizkaieran¹⁷ oro har, izan duen presentzia aztertu nahi dugu lan honetan. Honi ekin aurretik, alabaina, seinala dezagun, gaingiroan baino ez bada ere, lapurteran izan duena, azken honetan bide baitu presentzia nabariena egitura honek. Gipuzkerako¹⁸ eta Goi Nafarrerako¹⁹ adibide bakanak, bana baino ez baitugu ezagutzen, aipatu bi area nagusien hurbiltasunari zor zaizkiola pentsatu behar dugu, harantza zabaldu delako edo murrizten joan den area zabalago baten azken arrastoak direlako.

Egiturak zabalkunde handia izan du lapurteran hastapenetatik. Izan ere, Villasantek aipatu Haraneder eta Duvoisini gaineratu beharko litzazkioke beste hainbat, Leizarraga buruan, eta Xourio, Elinzaburu, Etxepare medikua, edota Bonaparte printzeak agindutako Donibane-Lohitzuneko katekima eta Lapurditik kanpoko baina lapurteraren barruko Isturitzekoa, besteak beste. Egitura, alabaina, ez da orokorra. Zenbait autore garrantzitsuk, Axular buruan²⁰, ez dute erabiltzen, goian aipatu *-ngatik* eta *-n amoreakaitik* baliabideekiko lehia bitarte. Subjuntibo hau, zenbait autore modernok ere baliatu duten arren, Jean Mirandek esaterako, badirudi, bizkaieraz bezala, lapurteraz ere guztiz bakandua zela aspalditxotik erabilera. M. ITHURRYk Leizarragarren adibide soil bat aipatuta²¹ garbitzen du gaia eta P. LAFITTEk ere adibide bakar bat ematen du, hau gaineratzen duelarik: “*très rare, ser à appuyer le conjonctif à valeur finale*”²². J. PIKABEak²³, bestaldetik, aipatu ere ez du egiten baliabide hau lapurtera idatziaren historiaren bere azterketan.

¹⁵ *Misionari Euskalduna*, II, 352. 1808an idazten hasitako eskuizkribua.

¹⁶ Testu nagusi zenbait baino ez dugu arakatu. Blanca Urgell dugu, zalantzarik gabe, puntu hau, Añibarroren beste puntu asko bezala, arretaz ikertu duen bakarra. Esku-liburuarri dagokionez, baina *Geroko Gero*-ren edizioan, grafiaren eta bestelakoen bilakaeraz gain, egitura honena ere aztertzen du: “*EL-aren lehen bi argitalpenen artean gertatzen den bilakaerarekin bat etorri-rik, -tzat erako helburuzko perpausak urri dira GGeroren C ataleraino, D atalean nahikoa ugaltzen diren bitartean*”, *Geroko Gero*, Bizkaiko Foru Aldundia, edizio digitala, CX. or.

¹⁷ Bizkaiera esaten dugunean arabera doa barne, lan honen xederako ez baita pertinetza, baina bai nahasgarria. Izan ere, kasu honetan Arabari begira dauden Bizkai hegoaldeko eskualdeetan, –Otxandio, Arratia eta Orozkon– ematen baita fenomeno, Audioko testigantza opaori dautsela. Pérez de Lazarragaren aurkikuntza berriarekin ekialderantz zabaltzen da fenomenoaren espektroa eta J. Otxoa de Arin ordiziarraren adibide isolatuarekin nolabaiteko zubia egiten. Beti ere, interesatzen zaigunerako bizkaierarekiko continuum batean dugu *-ntzat* egituraren araberako P. de Lazarragaren testigantza soil baina goiztiarra. Gogora bedi, bidenabar, Pérez de Lazarragarrek Goierri izan zuten pisua eta monta, Legazpian, esaterako. Ik. *Ferrietas de Legazpia*, Caja de Ahorros Provincial de Gipuzcoa, 1980.

¹⁸ “... *ondasumen bat conseguidu seguienat*”, Joseph Ochoa de Arin, *Doctrina christianaven explicacioa*, Donostia, 1713, 148-6 or.

¹⁹ Bonaparte printzeak aginduriko Elizondoko dotrinan. *Bonaparte ondareko eskuizkribuak*, Deustuko Unibertsitatea.

²⁰ Guztiz egia ere ez da hau, behin bederen bai baitarabil: “*Eta aincinerat alfer egoiteco descusaric etcutentcat, eman cerauen... finean traballateco behar cuten gustia*” (*Guero*, 27). Blanca Urgell konturatu bezala, holakorik espero ez izaki edo, txarto ulertu bide zuen Añibarro eta destinatiboaren ordeko datiboa erabili itzulpenean: *ez equenai*.

²¹ *Grammaire Basque*, 1894-1907, Ediciones Vascas, San Sebastián, 1979, 359. or.

²² *Grammaire Basque (Navarro-Labourdin Littéraire)*. Édition revue et corrigée, Elkar, Donostia, 1978, 399. or.

²³ *Lapurtera Idatzia (XVII-XIX)*. Bilakaera baten urratsak, EHU-Kutxa Fundazioa, Donostia, 1993.

Askoz ere landuagoa da Jesús María AGIRREK²⁴ eskaintzen digun ikuspegia, Jon Etxaide, Jon Mirande, J. B. Etxarren-Lohigorri eta Jean Etxepareren adibideak dakarzkigularik.

Bizkaieraren baranoan, Zabalak lehenik eta Azkuek gero, herrian zuen erabilerara batetik eta Añibarroren testigantza bestetik dakarzkigute gogora. Azkuek gaztigatzen digu, halaber, gero eta gutxiago erabiltzen zela. Ez dugu uste gaur bizirik dagoenik, Andima Ibiñagabeitiaren lekukotasuna, jakina, bestela interpretatu behar baita. Anuntxi ARANAREN korpus aberatsean²⁵ edota Manuel ETXEBARRIAREN²⁶, –inguru horietan testatu baita oparoen eta, Azkueri jarraiki, luzaroen ere– ez dugu alerik aurkitu. Iñaki GAMINDEK ere, Orozkoko aditzari buruzko detaileko lanean²⁷ ez du, subjuntiboaren paradigmak ematen dituenean, holakorik aipatzen, ezta ere Otxandioko euskarari buruzkoan ere²⁸. Bonaparte printzearen aginduzko Otxandioko dotrinan ere ez dago arrastorik, ordurako bertan oraindik bizirik behar bazuen ere. Honek salatuko luke, egitura honen erabileraren desagerpena baino, letretara igotzeko prestigiorik eza. Ildo beretik, E. KNÖRREK ezagutzera emandako bi testu arabarretan²⁹ ere ez dago subjuntibo pleonastiko honen zantzurik, irakurketa arin batek adibideak ezkutatu ez badizkigu, behintzat.

Ez goaz egitura honen azterketa sintaktikorik egitera, bai, ordea, hori egin nahi duenarentzat materiala apailaturik utzi. Interesgarria litzateke *-ntzat* pleonastikoaren eta *-n / -teko* alternatibo eta lehiakideen arteko banaketa aztertzea, ez baitira, bistan denez, eskusiban ez bata ez besteak, erabiliak izan. Blanca Urgellek planteatzen duen bereizketari³⁰, bestaldetik, ez diogu, historikoki behintzat, oinarriarik ikusten, aditz iragangaitz eta iragankorren arteko oreka eta bilakaera arruntetik kanpo. Azter dezagun, bada, lehenik testu idatzietan egitura honek izan duen pisua eta ondoren zabalduzko zegoen eremu dialektala zehaztu.

Orain arte, Añibarro genuen *-ntzat* helburuzko subjuntiboa erabili zuen ia idazle ezagun bakarra. Bera aipatzen dute Juan Mateo Zabala bere lankide eta anaiak eta Azkuek berak ere, Leizarragaren parean. Idazle arratiarra dugu, duda

²⁴ *Op. cit.*, 806-07. or.

²⁵ *Orozko haraneko kondaira mitikoak*, EHU, 1998.

²⁶ *Gorbeia inguruko Etno-Ipuin eta Esaundak*, Labayru Ikastegia, Bilbao, 1995; *Zeberio haraneko euskararen azterketa etnolinguistikoa*, Ibaizabal, Zornotza, 1991.

²⁷ «Orozkoko aditzak», *FLV* 41-42, 1983, 37-96. or.

²⁸ X. BURGETE & I. GAMINDE, *Otxandioko euskaraz*, Bilbao, 1991.

²⁹ «Una traducción de Uriarte al vascuence alavés: La Bula ineffabilis de 1864», in *Piarres Lafitteri Omenaldia, Iher-2*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1983, 279-315. or. Eta «Otro texto de Llodio. El Libro de Ruth por Ignacio Galíndez (1872)», in *Symbolae Ludovico Mitzelena Septuagenario Oblatae, Pars Altera*, Victoriaco Vasconum, Aintzinate-Zientzien Institutua, 1985.

³⁰ «LauEv-en ere sarri xamar erabiltzen du (cf. Ciarrusta 1991: 75-76 eta 153), baina bada alde garrantzitsu bat honen eta GGeroaren artean: Axularren itzulpenean adibide guztiak iragankorrak dira, EL¹-ean bezala (jarraitu neguiantzat 10, ezagutu daientzat 100), LauEv-en iragangaitzak ere agertzen diren bitartean (bete cedintzat 22, issildu cedintzat 232, maitetu zaitecéntzat 282, izan ez nendintzat 303/4), EL²-an bezala (eldu nadintzat 102, izan ditezantzat 93, austu dedintzat 39, eguin cedintzat 215, etab.)», *Geroko Gero*, edizio digitala, CX. or.

gabe, hauetariko formak maizenik erabili zituena. Ez dakigu Añibarrok zein tradiziori jarraitzen dion, baina pentsatzekoa da, beste batzuetan bezala, herriarenari lotu zitzaioa; izan ere, lapurterako tradizioa, Añibarrok ezagutzen bazuen ere, iturri urrunegia dela dirudi.

Ez zen guztiz ezezaguna *Viva Jesús* katekimaren lekukotasuna³¹, baina ez zirudien BZaren ezaugarrien artean kontuan hartua izateko nahikoa³². Ez da baliabide honen arrastorik ez RSetan, ez Mikoletarengan, ez Kapanagaren, ez Olaetxearen edo Amilletaren dotrinetan, ezta behean aipatuko dugun Urkizuren herkiea eta maisua izan zen Arzadunenean ere.

XIX. mendeko erabilera oparo baina oso mugatuak eta XVII. mendeko testu bakar bateko 6 adibide soilek, bistan da, ez dute aski masa kritikorik. Gorago esan bezala, ordea, testuak arreta handiagoz begiratuta, zabaldu egiten zaigu adibide-tegia. José Ramón Garigortak eta I. Gamindek³³ ezagutzera emandako 1739ko Orozko otoitzetan ere badugu beste monstra bat. Hurrengo urtean, 1740an, Diego Lorenzo Urkizu deboto durangarrari ere, beste batto isurtzen zaio erdaraz idatzi baina euskarazko zortzikoak dituen *Novena*³⁴ liburuan, bere *Errosario*³⁵ ezagunagoan alerik ematen ez digun arren. Orain, BZeko adibide urri hauen eta Añibarroren ugarien arteko lekukotasun berriak dakartzagu. Batetik, 1770eko testu judizial interesgarri inedito³⁶ batean forma bat ageri zaigu, seguruenik ere hegoaldeetik gehientsu aldentzen zaiguna; bestetik, 1773ko Orozkoko sermoi batean³⁷ hainbat dira adibideak. XIX. menderako, bestaldetik, Laudio eta Orozko kateki-metako hainbat adibide gehitu behar zaizkio Añibarroren ugariei.

Hona korpua:

P. Lazarraga 1567 *Silvia despediduric bere ugaçabaganic ynorc eçautu ez le-
güançat quendu eben bere jaztecoac eta artu eben arçai baten
jaztecoac (10).*

³¹ «Textos vascos antiguos. Un catecismo vizcaíno del siglo XVII», *BRSVAP 10*, 1954 (1). Blanca Urgellek Añibarroren *Gue-roco Gero* itzulpenaren edizioan darabil luze gaia.

³² Ez dago, jakina, BZA karakterizatzeke azken urteotan erabiltzen izan den 22 ezaugarrien artean, ez «Bizkaiera zaharra (gainerako) euskalkien artean» lan klasikoan, Joseba A. LAKARRA, *ASJU 20-3*, 1986, 639-81. or., ez honen egokitzapen edota bertso ugarietan ere. Xabier ALTZIBAR-ek Urkizuren *cedinzat* aleaz, “zahar” hitza darabil: “Euskara-modua (...) ez da oso arkaikoa... Interesgarriak dira, hala ere, forma zahar batzuk”, ik. 33. oharra, 43. or. Hauxe da egituraren arkaikotasunaz aurkitu ahal izan dugun aipamen bakarra.


³³ «XVIII. mendeko otoitz batzu», *Enseiukarrea* 2, 1986ko negua, 61-65. or.

³⁴ *Novena a Nuestra Señora de Uribarri*, Iruñea, 1740. Xabier Altzibarri zor diogu bertso hauen testua: «Durangaldeko Andre-mari- eta Gabon-kanta zahar batzuk zortzikoan», *Litterae Vasconicae* 6, 1993, 35-55. or.

³⁵ *Liburu Virginia Santissimien Errosario Santuena*, Iruñea, 1737, Joseph Joaquín Martínez-enean.

³⁶ Zolloko Etxatxu baserriaren libramenduaren inguruko autoetan egindako galdeketa da. Galdeketa hauek arruntak ziren korrejidorearen aurreko auzietan, eta ezagunak lekuko euskaldun elebakarrei euskaraz egiten zitzaielako berriak ere, baina lehena eta bakarra da, guk dagikularik, euskaraz idatzita ailegatu zaigun hau. Laster emango dugu ezagutzera *Belai* aldiz-kari berrian.

³⁷ 1739ko otoitzak bezala, José Ramón Garigorta orozkoarrari esker ezagutua baina oraindik argitara eman ez dena: *Domin. 23 post. Pent. Sobre la muerte y quien mucho peca vive poco*.



Lazarragaren eskuizkribua.

Viva Jesús XVII

... libredu **gaguicenzat** Iangoicoac pensamientu deungueetarie (3-7).

... libredu **gaguicenzat** Iangoicoac Verba deungueetarean (3-8).

... libredu **gaguicenzat** Iangoicoac obra eta deseo deungueetarie (3-10/11).

... da Emaiten ditus virtuteac bere, **gareanzat** honàc (9-18).

parcatu **ditezanzat** Sacramentu Santuonem virtutes (9-27).

Iangoicoa icen **ditincet** alabadue eternamente (16-16).

Orozko 1739

Gozo Virgen María / gugatic erregu eguizu / Jaincoen Ama Santa / icen **gaitezanzat** digno (23).

Urkizu 1740

Ceruco ondasún parebaguean / Izan **cedinzat** común, / Uri nobleau nai izanèban / Eguin Iaúbea, eta Iauna.

- Zollo 1770 *Ausia ... Echachuco echea libreu **daiensatt**.*
- Orozko 1773 *Bai catolicuin considerau **daigunzet** es solamente estala posible sarrac vivizeitea, espavere considerau **daigunzet** urteric floriduenetan eta edaderic onenean erituzac igualmente cochitan dabezala gasteac (1-9,10).
... eingo deutzuee discursu gustis brebebat, obeto artu **daizuensat** memorian, eta obeto gorde **daizuensat** ceuroen viotzetan (1-18).
... *pecato* mortala cometiitan dosuenean Catolicuec ser eiten dosue vesteric espada jo espuileagas caballo iqueragarrisco au, carra eguin **daguinzat**, eta cochidu **zaguientzat** oiñen aspitan (3-23).
... eta escriture sagradeac dacasan exemploac entendi **daigunzet** *pecatuen* venenoac laburtuiten dabela guisonen vicitzea (3-31).
... echi eguien urquemendiruc esqueguiric urrengo egunera artean mundu gustiec ecusi **leienzat** a ecusgarri lastimososa besteen escarmintureco (4-3).
Cantaru onen metafora, eta comparaciño e onetan entendi **daigunzet** ser ezaiten euren Jaungoicoac Zacarias Profetari expliquetan deuscu Sn. Geronimo Doctoreac (7-5).*
- Añibarro (1800)³⁸ *Eta, San Ambrosioco diñoan leguez, artu eban adimentua empletatu **leienzat** (1-69).
Eta, orrez gueiago, aguinduco deuscat, onembeste señalatu ta icentaturic, pobreak emon **daguiointzat** (17-21).
... bada, icusiric ezteutséla sinisten, dacaraz testiguac, au da juramentúac, eurocaz batean sinistu **daguiointzat** (19-253).
Baldin orain paciencia badozu, Jangoicoaren escuetan ichiten badozu, berac **daguiointzat** largatzen badeutsazu (29-15).
... guztia au ezagutu **eguiointzat** ifini eban legue estu bat (31-84).
... bestéac Jangoico[a] alabatu **daientzat** (35-71).
... biotz guztiaz ta sarri escatu bear deusagu Jangoico maiteari gracia, azquen-iraupena au emon **daiguntzat** (43-87).
Itandute au ez eban eguin Jangoicoac jaquinezaz, ezpada Adanec bere *pecatua* ezaguturic, confesatu edo autortu **eguiointzat** (47-15).*

³⁸ *Geroko Gero*. Oraingoan ere, Añibarren idazlan gehientsuen moduan, datazioa korapilotsua izan arren, beste lanen aurretikotzat ematen du Blanca Urgellek, gerora izan zituen moldaketa ugariak gorabehera, «Añibarro, Axularren Itzultzaile», in *Memorie L. Mitzelena Magistri Sacrum, Pars Prior*, Joseba A. Lakarra (ed.), ASJU gehigarriak XIV, Gipuzkoako Foru Aldundia, 1991, 323-327. or.

Eta cergaiti itandu eutsan onela? Bere pecatua gogoratu eguiantzat; ta gogoraturic, confesatu eguiantzat (47-24, 25).
 ... nequez izana obeto estimatu **eguiantzat**, edo laster emona gorrotau ez eguien (49-89).
 ... tentatu, beragandu ta becatu eguitera **ecarri daizentzat** (50-24).

Añibarro 1802³⁹

... jarraitu **neguiantzat** ceure vicitza, virtute, eguite eta santutasuna (10).
Erregutu, ta sarritu escariac Jangoicoari... arguitu zaizentzat aterateco ònen bat lan onetatic (13).

Añibarro 1803⁴⁰

Arotz, ceñec, emen egoan tella ausia ifinteban an; euquiric beti itoz-ura, euqui leizentzat beti non bear eguien (20-12).
 ... egaz-eguingo dot laster ta estal-petuco nas Jesusen Viotzean, sendatu ta erre **naguiantzat** bere amorezco suaz (171-9).

Añibarro (1802-21)⁴¹

... etorri cirian... osatu **eguiantzat** (46/7).
 ... eurac icusi **zaicéntzat** (55).
 ... oraciñoa eguien daroe... guizónac icusi **daicentzat** (55).
 ... **ecarri eutsézan ume chiqui, ta seiñac, eurai ucutu eguiantzat** (225).
 ... ceuroen artean maitetu **zaitecentzat** (282).
 ... **peleauco leuque... ni Judeguai emona izan ez nendintzat** (303/4).
 ... emon eutsén eurai... crutzean josi **eguiantzat** (307).
 ... emoten deutse dirua... esan **daicentzat** (321).
 ... euren beguiac estalduric egozan ezagutu ez **eguiantzat** (322).

Añibarro (1808-)⁴²

Masteguiia ebagui, podau, inñautsiten da, mats morda gueiagogo ta obeac dacarrentzat (15-2).

³⁹ *Vici bedi Jesus. Escu-Librua, ta berean eguneango cristiñau-cereguinac*, Tolosa, 1802. Aldaketa garrantzitsu askoren artean, -ntzat baliabidearena ere badugu Añibarroren estiloaren garapenean, Blanca Urgellek seinlatu bezala, obra honen bigarren edizioan, eta orduko beste obra guztietan, nabarmen areagotu egiten da erabilera, bigarren ediziorako gutxienez honako hauek erabili zituelarik: *empleatu leizentzat* (1-69), *emon daguiantzat* (17-21), *sinistu daguiantzat* (19-252/253), *daguiantzat* (29-14), *ezagutu eguiantzat* (31-84), *alabatu daicentzat* (35-71), *emon daiguntzat* (43-85), *autortu eguiantzat* (47-15), *gogoratu eguiantzat* (47-24), *confesatu eguiantzat* (47-25), *estimatu eguiantzat* (49-89), *ecarri daizentzat* (50-24). Beharbada, honetan ere pisua izan zezakeen Juan Mateo Zabalaren iritziak, garbi -ntzat baliabidearen alde mintzo zenak: "... las de causa final, que en castellano se expresan con para: para que, a fin de que..., y éstas en vascuence se hacen siempre por subjuntivo con los artículos enteros con su n final; y en muchos pueblos del centro del Señorío añadiendo tzat, como en el dialecto labortano, lo cual tengo yo por más exacto y pueden también hacerse por gerundio de dativo", *El Verbo Regular Bascongado*, San Sebastián, 1848, 29. or.

⁴⁰ Blanca URGELL, «Añibarroren idazlanak II: Lora Sorta Espirituala (1803)», *ASJU XXII-1*, 1988, 7-92. or.

⁴¹ *Jesu Christoren lau evangelioac batera alcaturic*, M^a Pilar CIARRUSTA (ed.), Labayru Ikastegia, Jarein-2, Bilbao, 1991. Data-rik gabeko eskuizkribua dugu, 1802-21 bitartean kokatzen diguna edizioaren paratzaileak.

⁴² Blanca URGELL, «Añibarroren idazlanak I: Nekea arindurik», *ASJU XXI-1*, 1987, 211-63. or. 1808az geroztikoa bide da, baina aurretiko zirriborro batekin, X. ALTZIBAREk zahazten digun bezala, *Bizkaierazko Idazle Klasikoak*, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilbao, 1992, 90. or.

*Ce escariac, ce erregúac Jaunari eguingo es neusquioz, ango penac emengoetara aldatu **eguidazantzat**? (16-15).*

*Guztiac ezpada bere, batzuc emen esango dodaz, arima debotac gogoratu **daicentzat** ta abiatu **ditecentzat** gogo onaz eroatera munduco crutze ta nequéac. (45-18,19).*

Laudio 1828⁴³

*I. Cegatic...? / E. Jangoicoac libradu **gaguizanzat** pensamentu deunguetaric.*

*I. Cegatic...? / E. Jangoicoac libradu **gaguizanzat** berba deunguetaric. I. Cegatic...? / E. Jangoicoac libradu **gaguizanzat** obra, ta dese deunguetaric.*

*I. Cetarac...? / E. Guri acordarazoteco Ceruan dagoana, eta bere imaginia dalaco erreberenciya eguin **daiyogunzat**.*

*I. Cetaraco...? / E. Bera beti alabadu, ta bedeincatu **daguiyentzat**.*

*I. Eta pecatu mortalian yausten dan guztiyan, biar dau batec bertati confesau parcatu **daquiyoantzat** ?*

*I. Cetaraco...? / E. Biar dan leguez errecibidu azquero, izan **dintzat** gueure arimeen mantenimentua, eta graciya aci, ta gueyagotu **deiguntzat**.*

*... bein bere ceure graciya galdu **eztaguidantzat**.*

*... gorde naguizu gaurco neure pausu, berba, ta gauza guztiyetan, bencidu ez **naguiyenzat** neure areriyoc; eguin eztaguidan ceure aurrian neure Jangoicoaren contraco gauzaric.*

*... lagun eguidazu, bada, gaurco ta neure bici guztico obra, berba, ta gauza guztiyetan, dirianac izan **ditezantzat** neure Jangoicoaren gloriyaraco.*

Laudio 1858

*I. Setaraco dago an? / E. Gu veretati acordau **gaitesansat** Ceruetan dagoanaganic, eta dalaco vere imaginia erreverensiadu daigun.*

*E. Bera beti alabadu, eta bedeinquetu **daguiensat**.*

*I. Setaraco gueyego? / E. Bere ministruec legues Elexia gobernau **daguiensat**, eta guisonac gorde*

*I. Eta pecatu mortalian yaustendan gustien biardau batec confesau bertati parcatu **daquiunsat**?*

*I. Setaraco da sacramentu santu Comuniñoocoa? / E. Erresibiduric biardan disposisiñoogas isen **dinsat** gueure arimeen mantenimentue, eta aumentadu **daigunset** grasie.*

⁴³ Laudioko katekima bien kontu zehatzetarako ikus bedi: Natxo URKIJÓ, *op. cit.*

Orozko 1858⁴⁴ *Juancoibac librau **gaguizantzat** pensamendu deunguetaric.
Bera beti alabadu, eta bedeincatu **daguientzat**.
... eta bera imaginea dalaco erreberencia eguin **dayoguntzat**.*

Gorago esan bezala, Juan Mateo Zabalari esker dakigu herriko egitura zela helburuzko subjuntibo horrena, erdialdeko herri askotan usadiokoa zela zehazten digularik⁴⁵. Añibarroren Arratia izan daiteke Zabalak aipatzen digun eskualde hori, Durango, Urkizuren herria, erdialdean baino gehiago ekialdean baitago. Arratiako eskualdea eta Orozko eta Otxandio, ezker-eskuin. Ez dira oso datu eza-gunak, baina inguru honetan testatzen da bereziki, Añibarroren garaian testatu ere, *-n+tzat* subjuntiboaren erabilera. Hiru eskualde horiek dira, hain zuzen ere, Azkuek hiztegian aipatzen dituenak, nahiz eta, gero, *Morfología*-n, okerrik urrean, *Txorierr*i jartzen duen *Otxandio* ordez, hau da *tx-* laburdura, *otx-* laburduraren ordez hartuta:

“El afijo n, en acepción de conjuntivo final «para que», lo usan pleonásticamente acompañado del afijo adverbial tzat bizkainos de Arratia, Orozko y Txorierr, aunque cada día menos, como también Leizarraga en su Nuevo Testamento. Añibarro es el autor bizkaino que más lo usa: izan daitezantzat para que sean (Esku. 20-22). En el Catecismo de Llodio se lee akordu gaitezantzat para que nos acordemos (p. 39). En este mismo librito se leen ejemplos sin el pleonástico tzat: bizi ditezan para que vivan (80-7), asi dagiezan para que críen (80-9). En Leizarraga, entre cien otros ejemplos, leemos gizionei barur aizela ageri ezakientzat para que no te muestres a los hombres cuando ayunas (Matt. VI-18)”⁴⁶

Hiztegian idazten duena, hogei urte lehenago idatzi ere, ordea, honakoa dugu:

“(B-a-o-otx, BN?). Jarraitu negioentzat (Añib, Esku-lib., 11-26); argitu zagientzat (18-10)”⁴⁷

Ez du ematen Orozkoetik iparrera, Zolloko adibide bakana gorabehera, erabilia izan denik. Uriartek egindako itzulpenetan ez darabil egitura hau Arrigorriagako katekimaren itzulpenean, baliabide ondo ezagututa, Orozkokoan, adibidez, maiz darabilen arren. Paulo Zamarripa abade txorierritarrek ez du aipatzen egitura bere gramatikan⁴⁸, ezta bere testu literarioetan erabiltzen ere.

⁴⁴ Ez ditugu adibide guztiak jaso, *Bonaparte ondareko eskuizkribuak. Bizkaiera* liburuan indextatzen direnak baizik, Bilbao, Deustuko Unibertsitatea, 1992.

⁴⁵ *Ik.* 38. oh.

⁴⁶ *Morfología Vasca*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1923-25, §560.

⁴⁷ *-NTZAT* sarreran, *-TZAT* sarreran oso labur aipatzen baitu.

⁴⁸ Laredon jaioa zen halabeharrez, baina berak esan bezala umetan Sondikaratu zen atzera. *El Bascuenze facilitado. Gramática Bizkaina*, Bilbao, 1909.

Hauek honela, galdera baitezpadakoa da: zer dela eta ez da bizkaierako gainerako literaturan holako formarik ia testatzen? Gure ustez, Bizkaian zabalkunde eskasa izan zuen egitura honek edo behiala izan bazuen garai historikorako galdua zuen ia lurralde osoan, kostalderantza bereziki. Urritasun horrek, beharbada prestigiorik ezari loturik, testuetako presentzia eskasa azalduko luke, eta Juan Mateo Zabalak emaniko epaiak Añibarroren kontzientzia piztu eta gauzak une batez aldarazi zituen arren, arratiarraren ahaleginak ahalegin, XX. mendearen hasierarako, erabilera Arratia-Orozko-Otxandio eskualde zabalera murriztua zen gainbeheran, eta ordurako jadanik, desagertzeaz zen arkaismo lokaltzat hartu beharko genuke.

Kontuak kontu, hizkuntzaren ezaugarri hau ongixko kokaturik daukagu espazioan eta denboran, non eta *Viva Jesús* katekima umezurtzaren kokapenez zerbait gehiago zehaztu daitekeen orain. Ezaguna da testua data eta inprimatze leku aipamenik gabe heldu zaigula. Julio de Urquijok, bere bibliotekako altxorra baita eskuizkribu hau ere, "*vascuence vizcaíno occidental de Vizcaya y Alava*"⁴⁹ paragrafeatu zuenaz idatzirik zegoela aurreratu zigun. Ez da, halaz guztiz, Arabako euskararen krestomatietan sartua izan, Betolazaren katekimak hartu baitu leku hori, Arabako Betolatza herrikoa zela jakin zenez geroztik bederen. Berrikitan, Joseba A. Lakarrak, bokalismoaz ari delarik, Orozko aldera begiratzen du zeharka⁵⁰, Betolazaren kasuan bezala begiak Bilbotik Orozko aldera aldentuta. Urkijok bete-betean asmatu zuela dirudi, baita Lakarrak ere, bokalismoaz hitz egiten duenean. Testuak Orozkoko euskararen ezaugarriak ondo biltzen ditu, erkaketa egiteko garai horretako testurik ez dugun arren. Audio edo ingurukoetakoa ere izan zitekeen berdin-berdin. Jakina da Audioko katekima Orozkon, eta menturaz eremu zabalago batean ere, erabiltzen izan zela luzaro⁵¹.

Viva Jesús-en beste ezaugarri ñimiño batek ustekizun hau sendotzen du: Audioko 1828ko doktrinan VJeko *jatee* 'jake, zaie' bera azaltzen da, Orozkon gaur erabiliak diren *jakue*, *jakie* flexioen ondoan. 1773ko Orozkoko sermoian ere (8-4), nagusi dira *jakee*, *jake* formak baina "... *urguetan daude trampea toqueetan es yatená cobretaco, eta sor daudena es paguetaco*" lekukotasunak ez du duda izpirik uzten. Aramaio-Oñati inguruetan ere⁵², ezagunak dira *-te* flexioak, Gipuzkoako Goierrin bezala, baina horrek gehiegi aldentzen gaitu Urquijok begi zoliz seinlatu men-debaldetik.

⁴⁹ «Cosas de antaño. Las Sinodales de Calahorra (1602 y 1700)», *RIEV* 14, 1923, 335. or.

⁵⁰ "Bokalismoen aldetik itsura guztien arabera VJ hurbilago dugu Orozkoko 1739 testu horretatik RS baino", «Refranes y Sentencias: arazoak eta lekukotasunak bizkaiera zahararen azterketarako», in *Bilboren 700. Urteurrena. Hizkuntza gunea. Sinposioa*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbao, 2002, 57. or.

⁵¹ *Jk*. Honetarako eta Villasantek dakarren beste argitzapen baterako, Natxo URKIJOK, *op. cit.*, 13-14. or.

⁵² Amilletak "*penac dobladu jaateen*" dakar eta Domingo Egiakoaren kantak Durangoko euskarakoa behar duen beste hau: *Francesay bear jate, ausi buru* (88).

Amaitu aurretik, aipa dezagun, laburkiro beharrik ere, *daitean*, (*z*)*eitean* subjuntiboen kontua. Ez gara sartuko, orain eta hemen behintzat, flexio hauek subjuntiboko edo modu irrealako paradigma osoaren berreraiketan izan dezaketen lekua aztertzeraz. Asko dira aldeztatik argitu eta ebatzi beharreko auziak, esate baterako, ziztukaria galdutako edo garatu gabeko *ditean* tankerako flexio pluralen kronologia, testu zaharrenek bateko eta besteko nahibeste adibide eman baitiezazkigukete. Diogun, bakarrik, hiperbizkaieraren fruitutzat eman izan diren flexio urri hauek, *didin*, *zidin*⁵³ flexio orokorren garaikideak behintzat badirela, orain P. de Lazarragaren testuari esker jakin ahal izan dugunez. Aurkikuntza berri hau, jakina, ez da bakarra, hainbat dira sakabanaturiko adibideak, baina amaitzeko dakargun RSeko 145. erretraukoa soilik: *gaza lora ditean artean*, *beste gauza lecusque*, testu zaharrak eta ez hain zaharrak arretaz berrirakur ditzagun artean, beste gauza lekuskeela pentsatu nahi baitugu.

⁵³ Primariotzat ematen diren forma hauek, paradoxikoki gutxienez bi berrikuntza nabari eta ez nolana hiko azaltzen dute, bokal asimilazioa batetik eta *-ean* > *-ian* > *-in* bilakaera bestetik.

RECUERDOS DE LA COMPAÑÍA
DE JESÚS EN BILBAO
TRAS SU DISOLUCIÓN:
1932-1937

Juan Luis Cortina S.J.¹

¹ Profesor Emérito de la Universidad de Deusto.

LABURPENA

Jesuiten hiru komunitateen gorabeherak deskribatzen dira. Komunitate horiek, II. Errepublikan, Bilbon zehar “sakabanatuta” zeuden. Horrela, batetik, Indautxuko Ikastetxea batetik bestera ibili zen hainbat egoitzatan; bestetik, Deustuko Unibertsitatearen Zuzenbide Fakultateko bizimodu akademiko zaila azaltzen da, Unibertsitate Komertzialeko bizimodu patsadatsuagoari kontrajarrita; eta, azkenik, San Estanislao de Kostkako bazkide gazteen jarduera xumea deskribatzen da. Aipamen zabala egin zaie La Paz kaleko (gaur egun P. Lojendio) Bazkide Etxearen gorabeherari; Errepublikako Gobernuaren helburu izan zen Etxe hori, baina sekula ez zuen lortu, behin eta berriro saiatu arren: jesuitek eta jesuiten jagole baliotsuek eraginkortasunez babestu zituzten beren interesak. Azkenik, Francoren armadak uria okupatu eta gero San Luiseko Kongregazioaren artezkaritza estamentuen “Espainiaren eraspena” norainokoa zen ikusteko, lerro batzuk ekarri ditugu Akta Liburutik. Hainbeste gutiziatutako eraikina itzuli egin zen atzenean.

RESUMEN

Se describen las vicisitudes de las tres Comunidades de jesuitas, que se constituyen en “dispersos”, instalados a lo largo y ancho de la geografía urbana de Bilbao durante la II República: la peregrinación, por diversas sedes, del Colegio de Indautxu; la difícil vida académica de la Facultad de Derecho de la Universidad de Deusto, contrapuesta a la más normal de la Universidad Comercial; la discreta actividad de los jóvenes congregantes de San Estanislao de Kostka. Se hace más amplia referencia a los avatares que sufre la Casa de Congregantes de la calle La Paz (actual P. Lojendio), objetivo del Gobierno de la República, nunca conseguido, a pesar de una machacona insistencia, que va a encontrar respuesta por parte de los jesuitas y de sus buenos valedores. Finalmente se trazan una líneas, entresacadas del *Libro de Actas*, para mostrar “el fervor patriótico” de los estamentos rectores de la Congregación de San Luis, una vez ocupada la Villa por las tropas de Franco. Se acaba con la devolución de este codiciado inmueble.

RÉSUMÉ

L'article porte sur les vicissitudes qu'ont traversées les trois communautés de Jésuites qui se sont constituées en “dispersos” répartis aux quatre coins de la géographie urbaine de Bilbao pendant la IIe République: le pèlerinage par divers sièges du Collège d'Indautxu; la vie académique difficile de la Faculté de Droit de l'Université de Deusto, en opposition à celle plus normale de l'Université Commerciale; la discrète activité des jeunes congréganistes de San Estanislao de Kostka. Il est fait plus ample référence aux avatars qu'a souffert la Maison de Congréganistes de la rue La Paz (aujourd'hui P. Lojendio), objectif du Gouvernement de la République jamais atteint en dépit d'une insistance obstinée, à laquelle sauront répondre les Jésuites et leurs bons protecteurs. Finalement, quelques lignes sont tirées du *Livre d'Actes* pour montrer “la ferveur patriotique” des dirigeants de la Congrégation de San Luis après l'occupation de la ville par les troupes de Franco. L'article s'achève sur la récupération de cet immeuble fort convoité.

SUMMARY

The article describes the trials and tribulations of the three Jesuit communities in Bilbao in the 2nd Spanish Republic. The story includes the restless search of the Indauchu Jesuit College for a settled home, the difficult academic life at the Law Faculty at the Jesuit-run University of Deusto in comparison to the more normal course of things at the *Universidad Comercial*, or Commercial University; and the discreet activity of young Congregationists of San Estanislao de Kostka. The troubles afflicting the Congregants' House in the *calle La Paz* (a street today named after Padre Lojendio) are dealt with in rather more detail; targeted insistently by the Government of the Republic, the Jesuits and their allies defended the House tenaciously. Finally, extracts are given from the *Book of Acts* to show “the patriotic fervour” of the rectors of the Congregation of St. Louis, once Bilbao had been occupied by Franco's troops. The article ends with this much-prized building being returned to the Jesuits.

INTRODUCCIÓN

Se deslizaba felizmente el curso académico 1931-1932 en el Colegio de Ntra. Sra. de la Antigua, en Orduña, donde estudiaba Preparatoria Superior, cuando corrió como reguero de pólvora, entre los alumnos, la noticia de que se cerraba el Colegio, y que volvíamos todos a nuestras casas. Eran los últimos días del mes de enero o tal vez los primeros de febrero de 1932, cuando regocijados y un tanto desconcertados tomamos la mayoría el tren en la estación del ferrocarril, en Orduña, para reintegrarnos a nuestras respectivas familias.

Desconocedores, en absoluto, de los entresijos políticos y constitucionales que motivaban nuestra singular situación, abandonábamos las aulas, patios de recreo, las silenciosas camarillas, la señorial Iglesia de nuestras colectivas oraciones... todo el mágico entorno de nuestro Colegio. Partíamos, no diré hacia lo desconocido, pero sí ciertamente hacia algo anómalo, que presagiaba, cuando menos incertidumbre, si no peligros materiales, supuestos los acontecimientos que habían tenido lugar desde la proclamación de la República, el 14 de abril de 1931. Yo tenía 10 años y debía aprobar mi ingreso en el bachillerato.

Organizamos las clases, en Bilbao, tanto las mías, como las de mi hermano mayor, recurriendo al magisterio de un tío, hermano de mi madre, ingeniero industrial, para las clases de ciencias y matemáticas, y al buen oficio de un padre jesuita, que estaba acogido en casa de unos excelentes amigos, quien se encargó de todo lo referente a la parte de letras: literatura, historia, arte... Debo decir que al final del curso nos examinamos en el Instituto de Segunda Enseñanza de Vitoria y así pudimos salvar el curso. Algo se estabilizaba y normalizaba.

Creo recordar que mi percepción infantil me avisó de que algo extraño sucedía a los jesuitas: yo los conocía como profesores y formadores de nuestras inquietas mentes juveniles, viviendo en grupos, uniformados por sus austeras sotanas, con su discreta circunspección... Ahora casi no sabía dónde vivían, en qué se ocupaban, qué les sucedía. Habían cambiado sus sotanas por unos atuendos que querían parecerse al de los demás ciudadanos, pero que rara vez lo conseguían.

DISOLUCIÓN DE LA COMPAÑÍA DE JESÚS

Instalada la República en España, el 14 de abril de 1931, se desató con virulencia el odio antirreligioso. El 11 de mayo de ese mismo año ardieron en Madrid 11 edificios de religiosos. Entre éstos la iglesia y la residencia de los jesuitas de la calle La Flor, y el Instituto Católico de Artes e Industrias regentado por los jesuitas.

